y sin tocar la corneta, para que los carlistas no se dieran cuenta, se marcharon. Se marcharon dejando a los heridos en la iglesia.

Chacurchulo ordenó a las capitanes que formaran las compañías, sin toques de corneta. Antes de amanecer bajamos a Abárzuza. Allí vimos que lo dicho por la mujer era cierto. Andaba por allí el médico mayor de Concha, que le estrechó la mano a Chacurchulo.

Al poco apareció Dorregaray, nuestro general. Irazu le dijo:  
–¡Déjeme picar la retaguardia!

Dorregaray (le respondió) que no, que era inútil y que no haría más que perder unos cuantos chicos. Luego, por fin, dijo que sí, pero el enemigo se hallaba ya un poco lejos y apenas hicimos nada.

## Lakar

## Lácar

–Salustiano, Lakarreko berri badakit gero, ta ez zure kontua urrutiegitik asi.

–Ea, bada. Allotz nun dan bai al dakizu?

–Bai, orixen. Allotzen zuek, ta etsaiak Lakar. Bitarte, kilometro pare bat.

–Bai; alaxen da. Allotzen, bada, izan zuten Errege ta goiko agintariak, baita koronelak ere, batzarra. An, Lakar jo bear gendula erabaki zuten. Karpentier gure koronela an izan zan.

–Aizu; egia al da Karpentier koronelak, batzar ortatik etorri berrian, esan zizuela naparrak eta besteak ere Lakar erasotzea erokeria zala ta...?

–Bai; ala esan zigun.

–Ta berak zer esan zun?

–Karpentierrek, bere teniente koronelai galdetuko ziela esan zun. Galdetu zien, bada, ta gure nagusiak baietz erantzun zioten.

Lau kolumna egin ziran. Gu, erdian. Kornetarik jo gabe: “arma suspendida” (eskuan, ez bizkarrean) ta aurrera. Gure ezkerrean bazan basarri bat. An, liberal konpañi batzuk. Guk lau konpañi bidali (batalloi bakoitzak bi) genizkien, ta beltzak izutu ziran noski ta beren buruak gure mendean jarri zituzten.

Lakarren sartzerakoan, Karpentier ari zan:

–¡Esto es a la catalana! –deadarka.

Bera kataluñatarra bait zan, ta ango karlistak erri asko asaltoz artu zituzten.

Lenengo errian sartu zana, Urbeaga Joxe, gure lenbiziko konpañiko sarjento zana, Billafrankako semea. Etsaien koronela ta gure sarjentoa aurrez aurre gertatu ziran. Joxek tiroa bota zion, bai koronelak ere bere errebolberraz, ta biyak uts. Aguro alde egin zuten, ta gu beraien atzetik baionetaz jarrai. Etxeetan sartu giñan etsai billa: batzuk lotu, besteak ill. Odola ixuri zan artsalde artan, ugari gero.

Plazan giñala, gure mutil batek maleta bat eman zidan, berak ez zula ezertarako ta.

–Nun artu dek?

–Ortxe, etxe orretan. Sartu giñan, bada, ta nik soldadu xar bati, birabaraka ari zala, baioneta sartu diot, ta maleta auxe an zegon ta nerekin dakart.

Artu nion, iriki det ta apaiz jantziak ta errezo liburuak. Baita tarjeta bat ere: *Ángel Represa González* zion. Batalloiko kapillaua zan. Liburuak gure kapillau D. Frantzisko Alustiza zanari eman nizkion.

Andoaindar batek Regimiento de Andalucía-ren diru kutxa artu zun.

Gure artean izugarrizko naspilla egin genun. Batalloei danak nastu. Alako iskanbillarik! Batzuk «Aurrera!»; ta besteak: «Nora, ordea?».

Balluerka, arabatarren brigadierra, ari zan plazan: ez aurrera joateko: geldirik an egoteko.

Maleta arren kontua entzun. Urte batzuz gero, guda bukatu berrian, ni Billafrankan nitzan, ta baita liberaletako batalloi bat ere. Aste Santun zala, an zebillen beren kapillaua aitorketarako. Arekin izketan ari nitzala, Lakarren ildako kapillauen maleta banula esan nion.

–Ta nola zun izena kapillau arek? –galdetu zidan.

Nik:

–D. Ángel Represa González.

–Servidor de V. –erantzun zidan.

Ni arriturik; bañan berak esan zidan, Lakarren gu sartutakoan antxe zala, ta bizirik atera zala, maleta galduta. Ta orrela, errezo liburuak pozik artuko zituala; baita bai nik eman erazi ere. Gero esan zidan:

–Ekar zaskidazu an ibilli ziran mutillak, ta apari eder bat eman bear diet.

Orrela, amasei-edo bildu giñan ta ederki apaldu ere.

–Salustiano, ya conozco lo de Lácar y no empiece su narración demasiado lejos.

–A ver, pues. ¿Sabe usted dónde está Alloz?

–Claro que sí. En Alloz (estaban) ustedes y en Lácar el enemigo. De un pueblo a otro, un par de kilómetros.

–Sí; así es. En Alloz hicieron su conciliábulo el rey y los jefes de mayor graduación, incluidos también los coroneles. Decidieron allí que debíamos atacar Lácar. Carpentier, nuestro coronel, asistió a la reunión.

–Oiga: ¿es verdad que el coronel Carpentier, recién llegado de aquella reunión, les dijo a ustedes que el que los navarros y demás atacaran Lácar era una locura?

–Sí; así nos dijo.

–Y él ¿qué dijo?

–Carpentier dijo que preguntaría a sus tenientes coroneles. Se lo preguntó y nuestros jefes le respondieron que sí.

Se formaron cuatro columnas. Nosotros en el centro. Sin toques de corneta, "arma suspendida" (en la mano, no al hombro) y adelante. A nuestra izquierda había un caserío. Allí, algunas compañías liberales. Nosotros destacamos cuatro compañías, cada batallón dos. Los liberales se acobardaron y se nos entregaron.

Al llegar a Lácar, Carpentier decía:

–¡Esto es a la catalana!

Es que él era catalán y los carlistas de allí habían tomado muchos pueblos al asalto.

El primero que entró en el pueblo fue José Urbeaga, que era sargento de nuestra primera compañía, hijo de Villafranca. El coronel enemigo y nuestro sargento se encontraron frente a frente. José le disparó un tiro, y lo mismo hizo el coronel con su revólver, y los dos fallaron. Pronto despejaron el lugar, y nosotros les seguimos a la bayoneta. Entramos en las casas en busca de enemigos: a unos los hacíamos prisioneros y a otros los matábamos. Se derramó sangre aquella tarde, y mucha.

Estando en la plaza, uno de nuestros chicos me entregó una maleta, diciendo que él no la necesitaba para nada.

–¿Dónde la has cogido?

–Ahí; en esa casa. Hemos entrado y a un soldado, que blasfemaba, le he clavado la bayoneta, y esta maleta estaba allí y la he traído conmigo.

Se la tomé, la abro y eran vestimentas de cura y libros de rezo. Y también una tarjeta que decía: Ángel Represa González. Era el capellán del batallón. Los libros se los entregué al que era nuestro capellán: el difunto D. Francisco Alústiza.

Uno de Andoain se hizo con la caja de dinero del Regimiento de Andalucía.

Entre nosotros se produjo una confusión tremenda. Todos los batallones se mezclaron. ¡Que follón! Los unos decían: «¡Adelante!»; y los otros: «Pero ¿a dónde?».

Balluerca, brigadier de los alaveses, se afanaba en la plaza para que no siguiéramos adelante, sino que nos quedáramos allí quietos.

Pero oiga lo que ocurrió con aquella maleta. Unos años después, al poco de terminada la guerra, me hallaba yo en Villafranca, lo mismo que un batallón liberal. Como era Semana Santa, allí andaba el capellán de ellos con las confesiones. Estando hablando con él, le dije que tenía la maleta de un capellán muerto en Lácar.

–Y ¿cómo se llamaba aquel capellán? –me preguntó.

Yo:

–D. Ángel Represa González.

–Servidor de usted –me contestó.

Yo me quedé sorprendido; pero él me dijo que él se hallaba en Lácar, al entrar nosotros; pero que salió vivo, con pérdida de la maleta. Y que recuperaría a gusto los libros de rezo, y yo se los hice llegar. Luego me dijo:

–Tráeme a los chicos que anduvieron allí, que les tengo que invitar a una buena cena.

De ese modo, nos juntamos unos dieciséis y cenamos a lo grande.

## D. Manuel Orbea

---

1927. Elosuko maixua. Urrillako 23-an idatzi nion, berarekin itz egin bear nula esanaz. Gaur, 28-an, etorri zait.

–Guda asi zanean, ni oso gaztea nitzan. Nere aitak lan asko egin zun armak Plasentzi ta Eibarren artu ta Elosuko kastillora eramanaz.

–Zer da kastillo ori?

–Arkaitz aundi bat. Ingurun orma zarrak-eta ditu. Etxerik ez. Aren inguruko zulo ta sasi tarteetan gordetzen zituzten. Ara etortzen ziran arma billa Zebaiko ta beste asko.

(San Andrés de Elósua, la cual parece que fue construida con la piedra del antiquísimo castillo de Elósua, uno de los que se entregaron en 1200 al rey D. Alfonso VIII». V. Gorosabel: Diccionario... “Vergara”, pág. 594).

Etxean nitzala ezagutu nun S. Kruz. Alako batean, Zumarragatik kolumna erten da ta esan zigun:

–Begira dezazute Azkoitira joaten diran.

Mendi gañean giñan begira, ta gure atzetik tiro otsa entzun genun. Zer ote da? S. Kruzek zentinelak jarrita zekazkien. Elurra ari zan. Zentinelata batek, elurrak gezur egin begietan ta iduritu zaio kolumna aruntz zetorrela. Tiro egin zun. S. Kruzen mutillak izutu dira, pertzak-eta laga ta guztiak alde egin zuten.

Guk menditik ikusten genun kolumna Azkoitira nola zijoan, ta apaizari esatera etxeratu giñanean, iñor ere arkitu ez,

Emezortzi urte osatu nitunean (Spt. 1875), deitu ninduten Billafrankara joateko. Jun giñan nere aita zana ta ni. Dorronsorori esan zion aitak guda asieran ainbeste lan egin eta kartzelan egon zala,... ni batalloiz kanpora jarriko nindun. Dorronsorok, ezin zeikiela. Aitak berriz... Negar ere egin zun...

Noizbait ere D. Agustin Jauregi (Azpeitiko abadea) arkitu. Guda gaxo zaitzalle zan (Jefe de Sanidad Militar). D. Agustiñek esan zion:

–Begira: ni oraintxe naiz “asistente” (guda lagun) bearra. Geratu dedilla nerekin zure semea.

Alaxe egin ere, eta an izan nitzan bost illabete, guda bukatu arte... Aitak mando bat erosi zidan. Amar ontzurre eman zitun. Gañera mantak-eta.

–Zeintzuk ziñaten Billafrankan?

–Diputazioko konpañia ta gu.

–Zer ematen zizuten?

–Eguneko lau erreal. Iru lagun bizi giñan etxe batean, ta bakoitzak eguneko iru erreal ematen genitun. Berara joaten nitzan mando (ta gurditxoekin) gaxo etxeetarako bear ziranak artzera; osagaiak, olioak... Beratik, batean Loiolara, bestean Gabirira (atsa zutenak ziran an). Andoañara ere noizbait.

Azkeneko egunetan, Prantzi aldera. Muga ondoetan giñala, amaika guda nagusi Prantzira zijoala ikusi genun! Dorronsoro igaro zanean, norrebaitek esan zun:

–Or zijoaztik Probintziko diruak.

Zaldia ezin Prantzira sartu zitezkeen. Asistenteak-eta beren nagusien zaldia 500 errealean-eta saltzen ari ziran.

Gu amalau mutil mandodun bildu giñan. Bat-batean beltzak etorri dira ta mandoak kendu zizkiguten. Guk esan genien gero- nek erosiak zirala, bañan alperrik. Papertxo bat eman ziguten ta etxera.

1927. Maestro de Elósua. Le escribí el 23 de Octubre, diciendo que tenía que hablar con él. Hoy, día 28, se me ha presentado.

–Cuando empezó la guerra, yo era muy joven. Mi padre trabajó mucho adquiriendo armas en Plasencia y Eibar y llevándolas al castillo de Elósua.

–¿Qué es ese castillo?

–Una gran peña. Tiene alrededor unos viejos muros. Pero ningún edificio. Las guardaban en los agujeros y matorrales del entorno. Allá venían a por armas Zebaiko y otros muchos.

(«San Andrés de Elósua, la cual parece que fue construida con la piedra del antiquísimo castillo de Elósua, uno de los que se entregaron en 1200 al rey D. Alfonso VIII». V. Gorosabel: Diccionario... "Vergara", pág. 594).

Yo conocí a Santa Cruz estando en casa. En una de éstas, salió de Zumárraga una columna y nos dijo:

–Mirad a ver si se dirigen a Azcoitia.

Estábamos mirando desde lo alto del monte, cuando oímos un disparo a nuestra espalda. ¿Qué es eso? Santa Cruz había colocado centinelas. Estaba nevando. A uno de los centinelas le deslumbró la nieve los ojos y le pareció que la columna se dirigía hacia allá. Disparó. Los muchachos de Santa Cruz se atemorizaron y huyeron todos, dejando las calderas y demás.

Nosotros veíamos desde el monte que la columna se dirigía a Azcoitia, y cuando nos fuimos a casa para decírselo al cura, no encontramos a nadie.

Cuando cumplí dieciocho años (Septiembre, 1875), me llamaron. Que me presentara en Villafranca. Fuimos mi difunto padre y yo. Le dijo mi padre a Dorronsoro que ya que él había trabajado tanto al comienzo de la guerra y que incluso había estado en la cárcel, a ver si me dejaba fuera de los batallones. Dorronsoro (le respondió) que no podía ser. Mi padre insistió. Hasta lloró.

Encontramos, por fin, a D. Agustín Jáuregui, cura de Azpeitia. Trabajaba cuidando a los heridos de guerra. Jefe de Sanidad Militar. D. Agustín le dijo:

–Mire: yo necesito ahora un asistente. Que su hijo se quede conmigo.

Así lo hicimos y eso es lo que fui durante cinco meses, hasta que terminó la guerra. Mi padre me compró un mulo. Dio por él diez onzas de oro. Aparte de eso, mantas y demás.

–¿Quiénes estaban ustedes en Villafranca?

-La Compañía de la Diputación y nosotros.

-¿Qué les daban?

-Cuatro reales al día. Tres compañeros vivíamos en una casa, y cada uno aportaba tres reales al día. A Bera iba yo con mulos y carritos, a por las cosas que se necesitaban para los hospitales: medicinas, aceites... De Bera, una vez a Loyola, otra a Gabiria... Estaban allí los enfermos de sarna. También a Andoain alguna vez.

En los últimos días, a Francia. Estando cerca de la frontera, vimos a muchos jefes que se largaban a Francia. Cuando pasó Dorronsoro, alguno dijo:

-Ahí van los dineros de la Provincia.

Los caballos no podían ser introducidos en Francia. Los asistentes y demás vendían los caballos de sus superiores a quinientos reales.

Nosotros nos juntamos catorce chicos con mulo. Vinieron de repente los liberales y nos los quitaron. Les dijimos que los habíamos comprado nosotros, pero en vano. Nos dieron un papelito y a casa.

## D. Nicolás Zubizarreta

---

Ataundarra, Médico en S. S. (Lo es de nuestra Residencia).  
Recuerda varios cantares antiguos.

31 Oct. 1927. Bidali gero kanta salla bat. (Mándeme una serie de cantares).

31 Julio 1928. Bidali zizkidan. (Me los envió).

# D<sup>a</sup>. Leandra Aizpúrua

---

Príncipe 1, S. S.

31 Oct. 1927. Fondista, hija del brigadier Juan José A. Viven 2 hermanas y un hermano, que fue colegial nuestro en el colegio de S. S. y después ayudante de su padre (con Esteban Lasquibar, jesuita, † hace pocos años).

Al oír mis deseos, lamentaciones: que aquello ya se pasó; los trabajos que han pasado por trastorno en los negocios...

–Yo conocí a D. Juan, siendo yo colegial de Orduña, cuando estaban VV. en La Muera de Orduña.

(Biografía: “Diario de S. S.”, 23 Enero 1874. En una colección de “Álbum de Personajes Carlistas”, tomo q. me falta).

–Estábamos en los Baños de Escoriaza al empezar la guerra.

–¿Cuando las armas de Azpeitia?

–No; se trasladó a Bilbao por seguridad.

–¿En el levantamiento de Abril del 21?

–No recuerdo. Parece que sí. Algún tiempo estuvimos nosotros en Ciboure. Un día de gran temporal, contemplábamos un vapor que se acercaba al puerto, pero q. ya se hundía ya subía con las olas. Allí venía nuestro padre, todo mareado.

(Esto no pudo ser al fin del 76, ni tampoco el 70, en q. parece que no salió; sería, por consiguiente, después de Mañaria. Mayo 72).

Se presentó en Peña Plata y, según la biografía impresa, en Junio del 73.

(El que no saliese el 70 (Escodada) se explica, pues estaba en Escoriaza y los de Bergara no salieron por oportuno aviso de Dorronsoro, que supo el fracaso de Escoda.

¿Por qué no salió en la 3<sup>a</sup>. y definitiva salida de Enero de 1873? No lo sé. Pero parece claro que no participó de los azares

de la época de las partidas, ni Eraul, ni Udabe. Acaso por esto quedó algo retrasado en empleos).

—¿Conservan VV. algo de su padre?

—Puede decirse que nada, pues al ir a Francia desde Azpeitia, llevamos en un baúl su uniforme con los de sus dos ayudantes, pero se extravió el baúl y fueron inútiles las reclamaciones.

Un retrato hecho en Francia. Miraré si algo aparece.

En Arichulegui, donde a principios de Julio se hizo cargo de los mozos de S<sup>a</sup>. Cruz, fundando el 2<sup>o</sup>. de G.

«Aritxulegiko zakurra» esaten zion Lomak. «El perro de Arichulegui» le decía Loma.

Línea de Tolosa. Herido en Belabieta, 9 de Nv., un mes antes de la batalla de ese nombre. Le llevaron hasta Berástegui en su caballo. Se curó en Leiza.

Línea de Somorrostro y Muñecas. V. Recondo y I. Echániz.

Línea de Andoain. Un día se le presentaron unos emisarios de S. S., ofreciéndole no sé qué cantidad, tan sólo porque dejase aquello y fuese a Fr. La respuesta fue llamar a sus ayudantes y decirles:

—Eraman zazkizute gizon abek gure mendeko tokiz kanpora. Llevad a estos hombres fuera de nuestro territorio.

Buruntza. Cuando en Febrero subió Oviedo.

Retirada. Nos hallábamos en Azp. Buscamos un coche. Nos lo proporcionó Arregui, q. nos llevó hasta Andoain. Desde aquí fuimos a caballo, acompañadas de los ayudantes de mi padre, que eran mi hermano y Esteban Lasquíbar.

El fajín. Lo conservamos hasta que hace algunos años Zubizarreta nos lo pidió para remitirlo a Venecia. Cuando llegó el fajín, había muerto ya Don Carlos.

Mi padre tuvo siete heridas.

## D. Juan Olazábal Rameri

---

1927. Caballero donostiarra. Vive en su finca de Mundaiz con su anciana madre, D<sup>a</sup>. Prudencia Rameri, anciana de 84 años, su hermana D<sup>a</sup>. Caya, soltera, y Encarnación, casada con D. Juan Sánchez Guardamino.

Mundaiz es el alcázar del integrismo. Olazábal, a la muerte de Nocedal, heredó la jefatura. Periódico “La Constancia”.

No fue O. carlista militante (¿nacido en 1863?), pero se ha dedicado esta temporada a escribir sobre el cura S<sup>a</sup>. Cruz; ha hablado con cuantos supervivientes ha podido.

Le proporcioné:

a: un retrato de Lizarraga.

b: un manifiesto de Dorronsoro contra el cura (lo poseo incompleto).

c: el relato de D. Luis Zurbano acerca de lo de Asteasu.

d: la relación acerca del mismo asunto del Cuartel Real.

e: relación de algunos: D. Roque Alday, el de las Ventas de Irún, Hermenegildo Zubeldia, Juan José Recondo.

Me proporciona:

a: un retrato de Aniceto Indart, a quien yo creía muerto hace tiempo y resulta vive en Bilbao, carpintero de hacer escaleras. Es hermano de Esteban, fusilado por Monserrat junto al puente de Ormaiztegui.

Uno y otro fueron jardineros de Lasala. Ambos llevaban el sobrenombre de “Corneta”. Siendo jardineros, solían ots egin (llamarse) a distancia, sirviéndose de la boca metálica de la manga de riego, y Lasala tuvo la humorada de comprarles una corneta, que fue la ocasión del mote.

Aniceto tiene los dos dedos índices rígidos, anquilosados, desde sus aventuras con el cura. Era por Febrero de 1874 cuando hubieron de refugiarse en Araoz. Fue tan terrible el frío que

hubieron de soportar que les quedaron yertas las manos, y los dos dedos índices de Aniceto no hubo manera de volverlos al movimiento por más friegas que les dieron, operación en que intervino el mismo cura.

## En "El Pensamiento Navarro"

---

Diciembre 1927.

Publica D. Salustiano varias relaciones orales que transcribe su hijo D. Fermín (presbítero).

Dato importante relativo a la formación de los batallones 5º. y 6º.:

«Los jefes de partida Jáuregui, Muñagorri, Vicuña, Badiola hermanos, Arámburu, engrosadas las filas carlistas con la juventud, el 30 de Junio salieron para Lesaca, remontando el Aralar, a Baraibar, de Baraibar a Leiza el día 2, de aquí a Erasun (día 3), el 4 a Yanci y el 5 a Lesaca.

Aquí el día 6 se organizaron el segundo, el de Lizarraga, formado por gente de Azp. y Azk.; el tercero, las partidas de Tolosa; el cuarto, las partidas de Bergara».

## D. Saturnino Rementería

---

Deva. Su hijo, D. José M<sup>a</sup>., joven médico operador, Madrid, Hospital Obrero de S. Francisco de Paula, Fuencarral 45. Le conocí siendo él estudiante en Valladolid.

Día de Reyes, 1928. Ha venido a Loyola a amputar la pierna a su pariente P. Basabe.

1872-garreneko Jorraillaren azkeneko egunetan erten nitzan Debatik. Seme bakarra ta nere aita zarra zan; 70 urte bazitun. Itziarren arkitu nun Txanton partida atera berriekin.

Andik Berriatura, ta an guda lege ta arazoak (instruzioa) ikasten ari izan giñan.

Mañarira. Ulibarri, naparra, bañan Bizkaiko guda-nagusi. Bazun zaldizko eskolta ere. Zaldi gañean mutillak abarkekin, espuelarik ezin eraman zezaketela. Eskuetan, gatzain makil luzeak, goiko muturrean zapi puska bat lotuta. Abek ziran lenengo “lanzeroak”. Ogei ta bost-edo baziran.

–Mañarian, surtan egiteko, zer pusil zenuten: jiratorioak?

–Bai; bañan baziran trabuko motza zutenak ere. Kañoi ordez, burnizko tuboak, su-autsez bete, zugatzaren ondoan jarri ta zer-edo-zer botatzen zuten. Ez, noski, txit urruti.

Aramaiotik Mondragoera, Oñatira... Gipuzkoan sartu ezkerro, gu, gipuzkoarrak, aurretik, Txanton buru genula.

Zubillagan, etsaiak bat-batean aurrez-aurrez arkitu genituean, buru ziran guztiak naspillatu ziran, ta baita Txanton ere.

En los últimos días de Abril de 1872 salí de Deva. Hijo único y mi padre era viejo; ya tenía setenta años. Encontré en Iciar a Txanton, con las partidas recién levantadas.

De allí a Berriatúa, y allí estuvimos aprendiendo la instrucción militar.

A Mañaria. Ulibarri, navarro, pero jefe militar de Vizcaya. Tenía incluso una escolta de a caballo. Los chicos, a caballo y con abarcas, sin que pudieran llevar espuelas. En las manos, unos palos largos de castaño, con un trozo de tela atado en la punta de arriba. Esos fueron los primeros lanceros. Eran unos veinticinco.

—En Mañaria, para hacer fuego, ¿qué fusiles tenían ustedes: giratorios?

—Sí; pero también había quienes tenían un trabuco corto. En vez de cañón, tubos de hierro; se llenaban de pólvora, se apoyaban en un árbol y algo sí que disparaban. Claro que no muy lejos.

De Aramayona a Mondragón, a Oñate... Entrando en Guipúzcoa, nosotros, los guipuzcoanos, por delante, teniendo en cabeza a Txanton.

En Zubillaga, cuando de repente nos encontramos cara a cara con el enemigo, todos los que tenían mando se azoraron, incluso Txanton.

## **Asteasukoa**

## **Lo de Asteasu**

Billabonan nitzan, 2-garrenean. Ni Santa Kruzen ondoan jarri ta, aren ondotik erten gabe, jun nitzan Asteasu bekora. Lokatz aundia zan bidean.

Asteasuko udal-etxekeo balkoiean bi guda-nagusi zeuden: Roke Etxeberria, kapitana, ta Benantzio, Lasartekoa, tenientea. Abek, Sorabillan konpañiarekin zirala, gau batean, konpañitik alde egin ta, Sorabilla ta Aduna bitarteko neska txoro batzuekin egon zirala ta, kastiguz Asteasun giltzapean zeukazkiten.

Santa Kruzek esan zien:

—Zer egiten dezute or?

Erantzun zuten (erderaz):

—Arrestados por abandonar el puesto frente al enemigo.

Apaizak esan zien:

–Ondo zaudete, ondo zaudete or. Egon, egon.

Asteasu goikora abiatu zan, bañan bide erdirakoan Txapel-lerdi etorri ta belarrira ixil-ixil zer-edo-zer esan ta apaiza atzera jetxi zan.

Yo estaba en Billabona, en el segundo. Me puse junto a Santa Cruz y, sin apartarme de su lado, fui a Asteasu el de abajo. Había mucho barro en el camino.

En el balcón del ayuntamiento de Asteasu estaban dos jefes militares: Roque Echeverría, capitán y Venancio, de Lasarte, teniente. A estos, porque hallándose con la compañía en Sorabilla, habían abandonado una noche la compañía y habían estado con unas chicas casquivanas de entre Sorabilla y Aduna, los tenían castigados en Asteasu bajo llave.

Santa Cruz les dijo:

–¿Qué hacéis ahí?

Le respondieron (en castellano):

–Arrestados por abandonar el puesto frente al enemigo.

El cura les dijo:

–Bien estáis, bien estáis ahí. Estáos, estáos.

Se encaminó hacia Asteasu el de arriba; pero a la mitad de camino se encontró con Txapelardi, quien a la oreja y muy callandito le dijo algo, y el cura se volvió para abajo.

# Enetereagatar Frantzisko

Francisco Enetereaga

---

Naparra da, Baraibarkoa. Donostin bizi. Es navarro, de Báraibar. Vive en San Sebastián.

1º. Febrero 1928

1873. Otsailan izango zan; ni Ataunen S<sup>a</sup>. Kruzi aurkeztu. Amazazpi urte nitun. Bañan bi egun bakarrik egin nitun apaiza-rekin. Bereala Muñagorriren “partida volante”-ra aldatu.

–Zenbat mutil ziñaten?

–Berrogeiren bat.

–Guztiak pusillekin?

–Ez asieran; geroago bai.

–Nun ibiltzen ziñaten?

–Astigarretatik Ataungo Aiara bitartean.

1873. Sería en Febrero; me presenté en Ataun a Santa Cruz. Tenía diecisiete años. Pero no pasé con el cura más que dos días. Cambié enseguida a la partida volante de Muñagorri.

–¿Cuántos chicos eran ustedes?

–Unos cuarenta.

–¿Todos con fusil?

–Al principio no; más tarde sí.

–¿Dónde andaban ustedes?

–Desde Astigarreta hasta Aya de Ataun.

Amezketan. Ostiral Santu ote zan nago. Bada Amezketan Larraitz ermita bat. An zegon Lizarraga. Gu, “a retaguardia”.

Mandubia. Pazkoa astelenean, ekin zion Lomak gora, ta Lizarraga bere mutillekin Aizpurutxo... Gu Astigarretan geratu giñan. Baita Beasaingo Beltza ta Jose Martin Aramakoa ere.

Batalloi berrian. Gu 3-garrenean. Errege sartu zanean, an giñan.

Elgoibar artzera, Azkarate gora. Gure atzetik Loma zeterren; bañan gu Elgoibarren giñala jakin zunean, Azkoititik atzera jun zan. (V. Badiolatar Tomas).

En Amézqueta. Creo que era Viernes Santo. Hay en Amézqueta una ermita (llamada) de Larraiz. Allí estaba Lizarraga. Nosotros, a retaguardia.

Mandubia. El lunes de Pascua Loma echó para arriba, y Lizarraga con sus chicos a Aizpurucho... Nosotros nos quedamos en Astigarreta. Y también Beltza ("El Negro"), de Beasain y José Martín, de Arama.

En el nuevo batallón. Nosotros en el tercero. Cuando entró el rey, allí estábamos.

A tomar Elgóibar, cuesta arriba en Azcárate. Detrás de nosotros venía Loma; pero cuando se enteró de que nosotros estábamos en Elgóibar, se echó para atrás desde Azcoitia. (V. Tomás Badiola).

## **Tolosa aurrean**

## **Delante de Tolosa**

–Nun ziñaten?

–Zizurkillen. Bada an Urkamendi egia, Billabona gañean; an egin genitun guda-orma batzuk.

S<sup>a</sup>. Kruzen zalapartakoan, an Zizurkillen geldirik. Aruntz etorri zitzaigun apaiza bereekin Asteasutik. Burruka koskor bat ere izan zan. Gure kapitana, Karrera, amezketarra, S<sup>a</sup>. Kruzek emandako paloak artua zala ta bildurrez zegon; bañan apaizak aurrera ekin zion eta ez zan ezer izan.

–¿Dónde estaban ustedes?

–En Zizúrquil. Hay allí un sitio (llamado) Urkamendi, encima de Billabona; hicimos allí unos parapetos.

Cuando el follón de Santa Cruz, quietos allí en Zizúrquil. Allí se nos presentó el cura con los suyos, desde Asteasu. Nuestro capitán, Carrera, natural de Amézqueta, que ya había recibido una ración de palos por orden de Santa Cruz y tenía miedo; pero el cura siguió para adelante y no pasó nada.

## **Belabietakoan**

## **En lo de Belabieta**

Gu Zizurkildik Ernio aldera. Iya Zelatunen giñala, aitz-zuloan sartu nitzan. Uste nun lotuta (prisionero) bear nula, etsaiak an zebiltzan ta; bañan ez ziran Zelatundik aurrera jun. Alkizatik Tolosa aldera jetxi ziran. Zulotik, sokaz artuta atera ninduten nere lagunak.

Lizarraga Bidanin.

Gero. D. Manuel Barrenak artu nindun ta geroztik “Ambulancias de la Caridad”-en, zauri eta gaxoak zaitzen, ibilli nitzan, guda bukaera arte.

Ataque de Lumbier. «¡Arriba Almansa, que S. Quintín no puede!».

Nosotros (fuimos) de Zizúrquil hacia el monte Ernio. Cuando ya casi estábamos en Zelatun, caí en el agujero de una roca. Creía que me harían prisionero, porque los enemigos andaban allí; pero no siguieron de Zelatun para adelante. Desde Alquiza bajaron a la parte de Tolosa. Los compañeros me sacaron del agujero sujetándome con una soga.

Lizarraga en Bidania.

Luego me tomó D. Manuel Barrena, y desde entonces anduve en las “Ambulancias de la Caridad”, cuidando heridos y enfermos, hasta el fin de la guerra.

Ataque de Lumbier. «¡Arriba Almansa, que S. Quintín no puede!».

# Fray José Mari

---

Donostiko kaputxinoetan sakristau da. Azkoitiarra, Lete baserrikoa, Kukuerrin. Bere guda lagunak «Lete» esan oi zioten.

–Noiz erten ziñan?

–Ni? Iru erten aldietan. Lenbizikoan, amabost urte nitula. Zortzi egun ibilli giñan gora ta bera, ta azkenean Oñatin armak utzi ta etxera.

Bigarren aldiz, 1872-ko udaraberrian. Mañari ta...

Irugarren aldiz, 1873-garreneko S. Martiñetan. Etxaustan. Aranbarri apaiza an zan; ta jeneralaren mutil izateko Azkoitiko Estradakoekin; baietz...

Es sacristán en los capuchinos de San Sebastián. Azcoitiano, del caserío Lete, en (el barrio de) Kukuerrin. Sus compañeros de campaña le llamaban Lete.

–¿Cuándo salió usted?

–¿Yo? En los tres levantamientos. En el primero, con quince años. Anduvimos durante ocho días arriba y abajo, y al final entregamos las armas en Oñate y a casa.

La segunda vez, en la primavera de 1872. Mañaria y...

La tercera, en los días de San Martín de 1873. En Echausta. Allí estaba el cura Aranbarri; y que fuera asistente del general con los de Estrada de Azcoitia; que sí...

**Kandelari eguna.**  
**Lizarraga gaxo**

**Día de la Candelaria.**  
**Lizarraga enfermo**

–Elgoibarren giñan. Pulmonia zala ta Elgoibarko Gaxo-etxean ixil-ixilik sartu zuten.

–Arekin al ziñan?

–Ez; nik ez nun ezertxo ere jakin. Mutil bat kamillan artuta zeramaten mutillak. Elgetara joan bear gendula ta abiatu gera aldapa gora. Guk ez genekigula, Eibartarrak gure zai. Bat-batean bota ziguten zaparkada ederra. Bala nere belarri ondoan jun zan.

–Txistu egin zizun?

–Urrean gero; baita belarria berotu ere. Orduan, gezurrezko gaxoak salto egin ta laxterka egin zun aldapa gora.

–Nos hallábamos en Elgóibar. Que se trataba de pulmonía y con todo sigilo ingresaron (a Lizarraga) en el hospital de Elgóibar.

–¿Estaba usted con él?

–No; yo no me enteré de nada. Unos chicos llevaban a otro chico en una camilla. Que teníamos que ir a Elgueta y tomamos cuesta arriba. Sin saberlo nosotros, los eibarreses nos esperaban. De pronto nos obsequiaron con una buena descarga. Una bala pasó junto a mi oreja.

–¿Con silbido?

–Y muy cercano; hasta me calentó la oreja. Entonces, el enfermo de mentirijillas saltó y echó a correr cuesta arriba.

## **Ostiral Santu eguna      El día de Viernes Santo** **Abaltzisketan              en Abalcisqueta**

Amezketatik gora, Abaltzisketara joan giñan. Larraitz ermita ondoan giñala, goizeko amarrak izango ziran, etsaiak agertu zitzaizkigun, mikeleteak aurretik zirala.

(Larraitz ermita onetan arrapatu omen zuten<sup>1</sup>, 1849-garrenean, Oñatiar Alzaa gizagajoa. Idiazabalen ill.)

–Betikan gora al zetozten?

–Ez; gure paretik; Alegitik-edo Aralar mendira igo ziran. Gure berri bazuten noski.

<sup>1</sup>Ez Larraitzko ermita ondoan, baizik-eta Aralar mendiaren barruan, Baiarrate izeneko tokian. Eta etzuten Idiazabalen il, Zaldibin baizik. (Argitatzailerean oarra).

Lizarragak: «¡Guías del Rey!» deadar egin zun. Konpañi onetakoak, erdaldunak geienak, aurrean jarri ziran, ta gure gañean genitun mikelete eta aben ondorengoak geratu erazi zituzten.

Bitartean, gu tontortxo batean jarri giñun, ta orduan “Guías del Rey”-koak guregana ekarri ta su egin genun. Ez ziran beltzak aurrera etorri.

De Amézqueta para arriba, fuimos a Abalcisqueta. Estando junto a la ermita de Larraitz, serían las diez de la mañana, se nos presentó el enemigo, con los miqueletes en vanguardia.

(En esta ermita de Larraitz es donde fue apresado<sup>1</sup>, en 1849, el desafortunado general Alzáa, natural de Oñate. Lo fusilaron en Idiazábal).

—¿Venían de abajo arriba?

—No; a nuestra misma altura. Subieron de Alegi, o de donde fuera, hacia la sierra de Aralar. Desde luego que tenían información sobre nosotros.

Lizarraga gritó:

—¡Guías del rey!

Los de esta compañía, casi todos de habla castellana, se pusieron en primera línea, e hicieron detenerse a los miqueletes, que se nos echaban ya encima, y a los que seguían a estos.

Entre tanto, nos situó a nosotros en un altozano, y entonces trajo a los de “Guías del Rey” e hicimos fuego. Los liberales no siguieron para adelante.

## **Pazkoa bigarrenean,                      El segundo día de Pascua, Mandubitik Aizpurutxora      de Mandubia a Aizpurucho**

Astigarretan geunden. Egoardian, bazkaldondoan, jeneralai-ta kafea neramakiela, agertu zan konfidentea.


—Gañean dirala! —zion.

---

<sup>1</sup> No junto a la ermita de Larraitz, sino en Bayarrate, en el interior de la sierra de Aralar. Y no lo pasaron por las armas en Idiazábal, sino en Zaldibia. (Nota del editor).

Beasaindik erten ta Salbatore gora zetozten. Lizarragak, maiekoak utzi ta “llamada a la carrera” jo erazi zun. Ekin genion aldapa gora. Etsaiak, kañoiak jarri, su egin ta granada gure buru gañetik txistuka. Gora, mutillak! Etsaiak, kañoiak bildu, mando gañetan jaso ta gure atzetik.

Kizkitza ondotik, Izazpi mendi aurrera. Noiz edo noiz, berriz ere kañoi burrunbada ta granada txistua entzuten genun; bañan aurrera. Pagotxeta mendi beste aldera artu genun. Bost ordu laxterka larrian giñala. Pagotxetatik jetxitako sakonari Artetxe erreka esan oi diote.



Ara jeixten asi giñan, bada, ta gure aurrean, ezker aldera, tontortxo gañean, guda gizon pilla beltza.

–Ori bear geniken! Zeintzuk dira?

Etsaiak, Zumarragatik etorriak. Orduan naspillatu giñan danak. Nola edo ala jetxi giñan Aizpurtxora, ta an zeuden Eibartarrak gure zai. Ango naspilla! Ango larria!

–Noruntz joko diagu?

Atzera ezin; ezta Zumarraga aldera ere. Batzuk aurreko mendi gora, Elosu aldera. Abek danak Eibartarren eskuetan preso. Habanara eraman zituzten. Jenaro, kotxe zaitzallea, oraindik bizi da. Lizurume, azpeitiarra, an il zan. Gure diruzai Aizpuruk diruak Aizpurutxo zubi azpian utzi zitun.

Beste pilla batek Azkoiti aldera, bide bera, artu genun. Aizpurrutxotik Azkoitira legoa t'erdiya (8 kilometro). Jenerala gurekin.

–Ez al zizuten zuei ezer egin?

–Ez. Eibartarrak eizean bezela zebiltzan. Gure atzetik, bost ordu bide laxterka-laxterka etorri ziranak, neke ler zeuden ta ez zuten geiago guri jarrai nai.

Bagoaz, bada, Azkoiti aldera. Ni lenengoetan gertatu. Lagunai esan nien:

–Mutillak, gaizki giatzik. Azkoitin karabineroak zioztik, ta aien eskuetara giatzik. Artu dezagun eskuiko mendi gora.

Ala, bada, ibaia igaro ta mendi gora Martiri aldera artu genun. Azkoitiko torrea ikusten genula io giñan. Atzetik zetoztenak, guri iñork agindu izan bezela, gure ondoren etorri ziran, ta gaba baserri aietan egin genun.

Estábamos en Astigarreta. Al mediodía, después de comer, cuando les llevaba yo el café al general y demás, se presentó un confidente.

–¡Que los tenéis encima! –dijo.

Habían salido de Beasain y venían de Salvatore para arriba. Lizarraga dejó a los comensales e hizo tocar “llamada a la carrera”. Echamos cuesta arriba. El enemigo emplazó los cañones, hizo fuego y la granada pasó por encima de nuestras cabezas silbando. ¡Arriba, muchachos! El enemigo recogió los cañones, los cargó sobre los mulos y venía tras nosotros.

Por al lado de (la ermita de) Kizkitza, monte Izazpi adelante. De vez en cuando, volvíamos a oír el estampido del cañón y el silbido de las granadas; pero adelante. Tomamos hacia el otro lado del monte Pagocheta. Cinco horas de carrera acelerada. A la hondonada a la que se baja desde Pagocheta se le llama arroyo de Arteche.

Comenzamos, pues, a bajar hacia allá y delante de nosotros, sobre un altozano, una negra masa de soldados.

–¡No faltaba sino esto! ¿Quiénes son?

Enemigos, venidos de Zumárraga. Entonces nos hicimos todos un lío. De un modo u otro, bajamos a Aizpurucho, y allí estaban esperándonos los eibarreses. ¡Qué follón! ¡Qué apuro!

—¿Hacia dónde nos dirigimos?

Para atrás no podía ser; ni tampoco hacia Zumárraga. Algunos tomaron monte arriba, hacia Elósua. Todos estos cayeron prisioneros en manos de los eibarreses. Los llevaron a La Habana. Jenaro, cochero, todavía vive. Lizurume, azpeitiano, murió allí. Aizpúrua, nuestro tesorero, dejó el dinero debajo del puente de Aizpurucho.

Otro grupo tomamos hacia Azcoitia, camino abajo. De Aizpurucho a Azcoitia hay legua y media, ocho kilómetros. El general (venía) con nosotros.

—¿No les hostigaron?

—No. Los eibarreses andaban como en una partida de caza. Los que vinieron tras nosotros, cinco horas de carrera, estaban rendidos de fatiga y no quisieron perseguirnos más.

Íbamos, pues, hacia Azcoitia. Yo me hallaba entre los primeros. Les dije a los compañeros:

—Muchachos, vamos mal. En Azcoitia están los carabineros y vamos a caer en sus manos. Tomemos por el monte de la derecha arriba.

Así, pues, pasamos el río y enfilamos monte arriba hacia (el barrio de) los Mártires. Subimos teniendo la torre de Azcoitia a la vista. Los que venían tras nosotros nos siguieron como si alguien nos hubiera dado una orden, y la noche la pasamos en aquellos caseríos.

## **Naparroara, San Bizente    A Navarra, Arana ta...                    San Vicente de Arana, etc.**

Naparroan Dorregarai-ren mendean ibilli giñan. An ere amaika jun-etorri egin genun. Beti etsaiak gañean. Atzera begiratzen genun guztietan, beltz-beltz ageri zan.

- Eraul? Bizkaira?
- Aztu zaizkit abek.
- Tolosa aurrean?
- Ni Asteasun beti, edo Bidanin.
- Gabonetan?

-Azpeitian. Kartutxo pabrika-ta jarri zitun Lizarragak, ta egun aietan urtu zuten lenengo kañoia. Iturberen etxean, Emparan kalean, bizi giñan.

En Navarra anduvimos a las órdenes de Dorregaray. Muchas andanzas de ida y vuelta hicimos también allí. A los enemigos los teníamos siempre encima. Cuantas veces mirábamos para atrás, lo veíamos todo negro.

- ¿Eraul? ¿A Vizcaya?
- Eso se me ha olvidado.
- ¿Delante de Tolosa?
- Yo siempre en Asteasu; y, si no, en Bidania.
- ¿En las Navidades?

-En Azpeitia. Lizarraga instaló allí fábricas de cartuchos y demás, y en aquellos días fundieron el primer cañón. Vivíamos en casa de Iturbe, en la Calle Emparan.

## **Bizkaira**

## **A Vizcaya**

- Noiz?

-Lenengo burruka gogorra, Moriones-ena, Otsaillaren 24-an izan zan. Bada egun ortan-edo eldu giñan gu alderdi aietara. Sopusertan egon nitzan luzaro, bi illabete edo.

- ¿Cuándo?

-La primera batalla fuerte, la de Moriones, se libró el 24 de Febrero. Pues en ese día, poco más o menos, llegábamos nosotros a aquellos andurriales. En Sopusuerta estuve largo tiempo, unos dos meses.

## Sopuertan

## En Sopuerta

–Nagusia goian, Somorrostro gañetan, egon oi zan. Ni gora ta bera. Egunero, artsaldetan, zaldiz Balmasedara, jan-gaiak-eta eroatera. Atzera Sopuertara. Goizean goiz jeiki ta bazkaria egin ta gora. Ordu ta erdi bear nitun gero.

–Lizarragak bai al zun agintzarik?

–Ez, ez zun agintzen. Andetxaga ill zutenean, Lizarraga Eliorekin-ta an zan. Illa zekartela ikusi nun.

–El jefe solía estar arriba, en los altos de Somorrostro. Yo, para arriba y para abajo. Todos los días, por las tardes, a caballo a Balmaseda, a comprar víveres y demás. Vuelta a Sopuerta. Me levantaba temprano, preparaba la comida y arriba. Necesitaba hora y media.

–¿Lizarraga tenía mando?

–No; no mandaba. Cuando mataron a Andéchaga, Lizarraga estaba allí con Elío y otros. Vi cómo traían al muerto.

## Aragoira

## A Aragón

Lizarraga ara zijoala ta goazen. Sanguesan, Korpus egunean. Navascués. Agur ta agur. Urrengo egunean, San Antonio, Lizarragaren eguna zala.

Amabost eguneko gure etxeetara. Azkoitin nitzala, S. Pedro egunean, kanpaiak joka.

–Zer da?

–Concha ill dutela gureak.

Que Lizarraga marchaba para allá, pues vamos. En Sangüesa, el día de Corpus. Navascués. Adiós y adiós. Que el día siguiente, San Antonio, era el santo de Lizarraga.

A nuestras casas para quince días. Encontrándome en Azcoitia, el día de San Pedro empezaron a sonar las campanas.

-¿Qué pasa?

-Que a Concha lo han matado los nuestros.

## **Andoaiñera**

## **A Andoain**

4-garren batallaira. Paulino Serra komandanteak eskribiente artu nindun. Galarrako okiñaren etxean bizi giñan. P. Serra, kastiguz-edo, Araotzera bidali zuten ta ara joan nitzan ni ere.

Ernanikoan nun nitzan? San Martiñetan? Urnietakoan?

Ez zait gogoratzen. Pauliñorekin izango nitzan.

Al cuarto batallón. El comandante Paulino Serra me tomó como escribiente. Vivíamos en la casa del panadero de Galarra. A P. Serra, por castigo o por lo que fuera, lo enviaron a Araoz, y también yo fui para allá.

¿Que dónde estaba cuando lo de Hernani? ¿Por los días de San Martín? ¿Cuando lo de Urnieta?

No lo recuerdo. Estaría con Paulino.

## **Naparroara**

## **A Navarra**

Noiz jun giñan ez dakit, bañan Otsailleko lenengoetan an giñala bai. Karraskal dioten mendietan izugarritzko guda lanak egin ziran. En genun uste beltzak an barruan sartu leitezkienik. Bañan asko baiziran ta gu ezker-eskubitik inguratu giñuzten ta guri atzera egiteko agindu ziguten.

Ura zan karlotarren asarrea! Kastillanoak, amorro-amorroz, armak lurrera bota ta ea orretara etorri ziran. Faltsia zala... Erregek berak, legun-legun itz egiñaz, armak artu erazi, ikusiko zutela ez zegola dana galdurik eta...

Kandelari egun zala. Urrengoan bagoaz Lakar aurrera. An bildu giñan nik dakit zenbat batalloi.

Bazan gurekin apaiz italitar bat. Burruka gogorretan Santo Kristoarekin ibiltzen zan. Asi zan Santo Kristoari muñ egin erazten ta guk esaten genun:

–Au orrela asten danean, zer edo zer izango dek

Guk bañon geiago zekien nunbait. An etorri ziran zaldizkoak, kañoiak... Aurrera Lakarrera! Gu erdian. Naparrak gure ezker. Arabatarrak gure eskubira.

–¿Cuatro en fondo?

–Ez; zabal-zabal. Lakar bañon lentxeago eliza da. Aren atzetik geratu giñan puska bat. Aurrera berriz. Erritik tiratzen zizkiguten balak, lurrean jo ta alako autsa jasotzen zuten. Erriko sarreran bazan orma bat, ta aren babesean geldi eta ez giñan aurrerago jun.

No sé cuándo fuimos, pero sí que a principios de Febrero estábamos allí. En los montes que llaman el Carrascal se habían hecho magníficas fortificaciones. No creíamos que los liberales pudieran entrar allí. Pero eran muchos, nos rodearon por la derecha y por la izquierda y nos dieron orden de retroceder.

¡Qué rabia la de los carlistas! Los castellanos, enfurecidos, tiraban las armas al suelo y (preguntaban) a ver si habían venido para eso. Que era una traición. El rey, hablándoles con toda suavidad, les convenció a tomar otra vez las armas; que ya verían cómo no se había perdido todo...

Era el día de la Candelaria. Al otro, estábamos delante de Lácar. ¿Quién sabe cuántos batallones nos reunimos allí?

Había con nosotros un sacerdote italiano. En las batallas recias solía andar con un Santo Cristo. Empezó a hacernos besar el Santo Cristo y nosotros decíamos:

–Cuando éste ha empezado de esta manera, es que va a ocurrir algo.

Sabía, por lo visto, más que nosotros. Allí vino la caballería, la artillería... ¡Adelante a Lácar! Nosotros en el centro, los navarros a nuestra izquierda, los alaveses a nuestra derecha.

–¿Cuatro en fondo?

–No; bien desplegados. Un poco antes de Lácar hay una iglesia. Detrás de ella nos detuvimos un rato. Otra vez para

adelante. Las balas que nos disparaban desde el pueblo pegaban en tierra y levantaban polvo. A la entrada del pueblo había una pared, y al amparo de ella nos paramos y no seguimos más adelante.



Karlistak *partida* edo talde berri bat osatzen.  
Carlistas completando un nuevo grupo o *partida*.  
(Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

1928-garreneko Otsaillaren 19-an, Iñauteri eguna.

A 19 de Febrero de 1928, día de Carnaval.

Ni 1873-garreneko Azaroan erten ta Agustín Txikiren partidand ibilli nitzan.

–Tolosa aurrean nun egon ziñan?

–Iñon ere ez. Agustínekín batera ta bestera gerbak (*sic*) bilzen-ta... noski.

–S. Kruz agertu zanean?

–Aren atzetik gu. Mendaro, Elgoibar (Elgoibarko plazan Agustín zaldi gañetik ari zan: «Biba Lizarraga! Puera Ernialde!»). Au esaterakoan, zaldi ta gizon lurrera erori ziran). Arantzazura... Zapatatik ikusi genitun, bañan ez guk surik egin nai.

–Somorrostrora?

–Ezta ere. Ernanikoan ere ez. Noizbait ere 5-garren bata-lloira.

–Naparroara?

–Bai; Concha il ta laster. Soroetan gariak zapalduta ikusi genitun. Concha-k omen zion:

–Gaur goizean Lorkan gosalduta ta Estellan bazkalduta diagu.

Iru illabete egin genitun. Done egunean, Oiartzunen Meza ikusi ta bereala S. Markosera. Ez giñan geiago probintzitik erten.

Yo salí en Noviembre de 1873 y anduve en la partida de Agustín Txiki (el Pequeño).

–¿Dónde estuvo usted delante de Tolosa?

–En ningún sitio. Con Agustín de un lado para otro, recaudando las contribuciones...

–¿Al presentarse Santa Cruz?

–Tras él. Mendaro, Elgóibar (en la plaza de Elgóibar, Agustín desde el caballo gritaba: «¡Viva Lizarraga! ¡Fuera Erialde!»). Al decir esto, caballo y jinete cayeron por tierra). A Aránzazu... Los vimos desde Zapata, pero no quisimos hacer fuego.

–¿A Somorrostro?

–Tampoco. En lo de Hernani tampoco. Al fin, nos enrolaron en el quinto batallón.

–¿A Navarra?

–Sí; al poco de morir Concha. Los trigos los vimos aplastados en los campos. Dicen que Concha decía:

–Hoy por la mañana desayunaremos en Lorca y comemos en Estella.

Pasamos tres meses. El día de San . . . . . a Oyarzun. Oímos misa y enseguida a San Marcos. No volvimos a salir de la provincia.

## **S. Martiñetako**

## **Lo de San Martín**

Txoritokietan giñan, bada. Bazetozten etsaiak, baztar guztiak betetzen zituztela. Mikeleteak aurretik. Gure azpiko belardi agirian jarri ziran. Guk su egiten genien ta aiek lurrean etzan ziran. Orrela, etorri zitzaien Fernandez (Azpeitin il zan gudaz gero) ta asi zan deadarka:

–¡Cobardes!...

Ezpatarekin mutillak joka. Guk ikusten genun ta ea berari. Tiro bat ta uts. Bigarrena ta uts. Irugarrena ta uts. Laugarrena ta uts ere. Bostgarrena ta gizona lurrera. Iztarrean jo genun.

Bazetorren etsai salla aundia:

–¡Frente de batalla a la derecha! ¡Frente de batalla a la izquierda! –asi ziran.

Inguratu giñuzten ta gu atzera. Gure atzetik, Munuaundin, Txakurtxulo 3-garrengoekin. Abek ere alde egin bear izan zuten. Aben ondoren joan zan Amante mikeletea.

Estábamos, pues, en Choritoquieta. Se acercaba el enemigo, llenándolo todo. Los miqueletes en vanguardia. Se situaron en el prado descubierto que había debajo de nosotros. Nosotros les hacíamos fuego y ellos se tendieron en tierra. Estando así, vino Fernández, que murió en Azpeitia después de la guerra, y empezó a dar gritos:

—¡Cobardes!...

Y a pegar con la espada a los chicos. Nosotros lo veíamos y ¡hala a él! Un tiro y fallo. El segundo y fallo. El tercero y fallo. El cuarto y también fallo. El quinto y el hombre a tierra. Le acertamos en el muslo.

Se acercaba una gran masa de enemigos. Comenzaron:

—¡Frente de batalla a la derecha! ¡Frente de batalla a la izquierda!

Ya nos rodeaban y retrocedimos. Detrás de nosotros, en Munuaundi, Chacurchulo con los del tercero. También estos tuvieron que recular. Tras ellos fue el miquelete Amante.

## Orion

## En Orio

An zeuden Azpeitiko beltzak, Zelaia medikua kapitan. Erten dira urez; inguruko baserrietan olo lapurka-ta ari zirala, guk ekin genien tiroka ta ibai aldera itzuli. Txalupa an zeukaten ta sartu dira bear baño geiago. Guk tira ta tira; noizbait ere txalupa jo degu ta ontziaren beste aldera, izututa, danak jarri ziran ta irauli. Larri ibilli ziran.

Allí estaban los liberales de Azpeitia, con Zelaya el médico como capitán. Salieron cruzando el río y, estando robando gallinas y demás en los caseríos del contorno, nosotros la emprendimos a tiros contra ellos, y huyeron hacia el río. Tenían allí la chalupa y embarcaron más de los debidos. Nosotros no parábamos de disparar; acertamos, por fin, a la chalupa y todos, de miedo, se corrieron hacia el otro lado de la embarcación y la volcaron. Anduvieron muy apurados.

## Amantte

Mikeletea, andoaindarra. Bere etxea erritik Billabona aldera joaterakoan. Mutil artoa. Berak eta beste mikelete batek Azpeitin pelotan erriko biri egin zien. «Berak karlistai ez ziola bildurrik» eta orrela ibiltzen zan.

Munuaundi gora, irugarrengoen atzetik zijoala, bidean lau karlista zauritu arkitu ta bere ezpatarekin ill omen zitun. Gero berak Iturriozko tabernan esan zitula eta tabernariak karlistai agertu.

–Gure eskuetan eroritzen baaiz, ez aiz orratik luzaro biziko –zioten karlistak.

Bederatzi illabetez gero izan zan Txoritokietako burruka gogorra. Amaika mikelete mendi mallatan erori zan. Bai Amantte ere. Aitz zuloan gorde zan, bañan alperrik. Zakurrak usaitu ta salatu ta:

–Emen zer edo zer badek.

Antxen arkitu ta an bertan il genun.

–Urnietakoan?

–Ezta ere. Mendizorrotzen giñan.

Miquelete, natural de Andoain. Su casa, según se va del pueblo hacia Billabona. Un chico fanfarrón. Él y otro miquelete jugaron en Azpeitia a la pelota contra dos del pueblo. «Que él no les tenía miedo a los carlistas», y así se comportaba.

A la subida a Munuaundi, yendo tras de los del tercero, dicen que encontró a cuatro carlistas heridos y que los mató con su sable. Luego, él mismo lo dijo en la taberna de Iturrioz y el tabernero se lo contó a los carlistas.

–Si caes en nuestras manos, no vivirás mucho tiempo –dijeron los carlistas.

Nueve meses más tarde se libró el recio combate de Choritoquieta. Muchos miqueletes cayeron en las laderas del monte. Entre ellos, Amantte. Se escondió en un agujero de las peñas, pero en vano. Los perros le olieron y lo delataron.

–Aquí hay algo.

Allí lo encontramos y allí mismo lo matamos.

–¿En lo de Urnieta?

–Tampoco. Estábamos en Mendizorroz.

## **Bordatxon**

## **En Bordacho**

6-garrengo konpañi ta erdi giñan. Nagusi Treku, Debatarra, teniente, bañan kapitan ordekoa. Urrengo, Mitxelena, oizartzuarrara.

Asi ziran etsaiak su ta aurrera, su ta aurrera. Guk gudetxetik erantzuten genien, bañan alperrik. Gure kartutxoak gutxituaz zijoazten. Nik zazpi besterik gabe negon.

–Galduak gaituk –zioten batzuk.

Trekuk baioneta muturrean zapitxo zuria ipiñi ta:

–¡Alto el fuego!

Galdetu genien:

–¿Hay cuartel?

Ezetz; danak ill bear genula.

Mitxelenak, etsaien mendean bere burua ikusi bañon ill naiago zula. Bi besoak zabaldu ta:

–Emaizkidazute lau tiro! –zion.

–Il bañon lenago al deguna egin dezagun.

Gudetxetik erten ta “a cuchillo” egitea erabaki genun.

(7-garrengo konpañi guri laguntzera etorri zan, bañan “a cuchillo” erten baño len edo geroago ez zait gogoratzen).

Erten giñan, bada, gerrilletan zabaldua. Biñaka. Aguro atzeratu ziran; batzuk Orio aldera ta besteak bestera.

–Ez al zizuen iñork ere gogor egin?

–Bai; nere aurrean geratu zan bat, nik pusilla utsik neukala. Bere pusilla lenbizi neri zuzendu ziran; gero nere lagunari. Tira ta saiatsean jo ta an utzi zun. Nik bitartean kartutxoa sartu ta tira

ta bai jo ere. Zintzurretik sartu ta burutik atera. Mutil musugorri ederra zan.

Beltzak 72 (irurogei ta amabi) gizon lurrean utzi ta guk, gañera, 96 fusil bildu.

Éramos compañía y media del sexto. Como jefe, Trecu, natural de Deba, que era teniente, pero sustituía al capitán. El siguiente en el mando, Michelena, natural de Oyarzun.

Comenzó el enemigo: tiro y adelante, tiro y adelante. Nosotros les respondíamos desde nuestro fortín, pero en vano. Nuestros cartuchos iban agotándose. A mí no me quedaban más que siete.

–Estamos perdidos –decían algunos.

Trecu puso un trapo blanco en la punta de la bayoneta y:

–¡Alto el fuego!

Les preguntamos:

–¿Hay cuartel?

Que no; que teníamos que morir todos.

Michelena (decía) que prefería morir antes que caer en manos del enemigo. Extendió los dos brazos y dijo:

–¡Pegadme cuatro tiros!

–¡Antes de morir hagamos lo que podamos!

Decidimos salir del fortín y lanzarnos “a cuchillo”.

(Una compañía del séptimo vino a ayudarnos, pero no recuerdo si antes de salir “a cuchillo” o después).

Salimos, pues, desplegados en guerrillas. De dos en dos. Pronto recularon; unos hacia Orio y los otros hacia otro lado.

–¿Nadie os plantó cara?

–Sí. Delante de mí se paró uno, teniendo yo descargado el fusil. Primero me apuntó a mí con su fusil; luego a mi compañero. Disparó y le pegó en el costado, y allí lo dejó. Yo, entre tanto, metí el cartucho, disparé y le acerté. Le entró por la garganta y le salió por la cabeza. Era un guapo chico de cara sonrosada.

Los liberales dejaron en tierra a setenta y dos hombres, y nosotros, recogimos, además, noventa y seis fusiles.



Oñati aldeko karlista bat.

Un carlista de Oñate.

(La Ilustración Española y Americana, 1872, Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

# Martin Azurmendi

---

Donostian, Amarako geltokian. Plazaolako gurdien kristalak garbitzen aritzen da. S<sup>a</sup>. Kruzeekin ibillia da.

En San Sebastián, en la estación de Amara. Trabaja limpiando los cristales de los vagones del Plazaola. Anduvo con Santa Cruz.

–Nungoa zera?

–Ni? Ataundarra. Astigarretan nitzan morroi, S<sup>a</sup>. Kruz mutil batzuekin an izan zanean, ta beraien artean sartu nitzan. Amasei urte nitun. Apaizak “Martintxo” esan oi zidan. Partidan emereztigarrena izan nitzan.

–Zer egiten zenuten?

–Ibilli, asko gero.

–Armak eramana?

–Ez; ezkutatuta zeuden armak azaldu ta mutillak bildu. Apaizak esaten zidan:

–Bañan gaztetxo onek nola segitu lezazke gure martxak?

–¿De dónde es usted?

–¿Yo? Natural de Ataun. Estaba de criado en Astigarreta, cuando Santa Cruz se presentó allí con unos cuantos chicos, y yo me uní a ellos. Tenía dieciséis años. El cura me llamaba Martincho. Era el décimonoveno en la partida.

–¿Qué hacían ustedes?

–Caminar, y mucho.

–¿Llevando armas?

–No; sacar las armas que estaban ocultas y reclutar chicos. El cura me decía:

–Pero este jovencito ¿cómo puede seguir nuestras marchas?

## Usurbilko San Esteban-en

## En San Esteban de Usúrbil

(Pirala: T. VI, pg. 184)

Ilbelta zan. S. Sebastian eguna. Usurbillara joan giñanean, bagenitun zortzi mutil-edo armarik gabe; bañan an, erri ondoko baserri batean, baziran gordetako batzuk.

–Zenbat ziñaten?

–Irurogeiren bat. Gutxi giñala, bañan gorrotu ziguten. Ziotenez, S<sup>a</sup>. Kruz bizirik eramaten zuenari, 8 milla duro eskeñiak omen ziran: il ta burua eramaten zuenari, 6 milla duro; ta ill zala berri ona bakarrik zeramanari, 4 milla.

Bazetoztela Donostitik etsaiak ta gu S. Estebanera. Gañean 20-ren mutil jarri zitun. Berago besteak, ta antxe apaiza bera.

–Badatoz. Ara: Usurbiltik erten dituk. Zubian aurrera, gora asi dira.

Apaizak goikoai su egiteko agindu zien; guri ez. Asi ziran goikoak; bai beltzak ere erantzun. Bateko ta besteko balak gure buru gañetatik. Beltzak su ta gora, su ta gora.

Oso urrean genitula, bat-batean guk danok batean su egin diegu. Arritu ta izaturik geratu ziran. Beren nagusi, Osta koronela, bota degu ta beste danak naspillan abiatu dira goitik bera. Guk ekin atzetik. Apaizak esaten zien:

–Atozte, atozte! Emen ziok 8 milla duroko gizona!

Zubian bete-betean zijoaztela, batzuk ibaira erori ta baita ito ere.

Era Enero. Día de San Sebastián. Cuando fuimos a Usúrbil, teníamos unos ocho chicos sin armas. Pero en un caserío próximo al pueblo había guardadas algunas.

–¿Cuántos eran ustedes?

–Unos sesenta. Que éramos pocos, pero nos odiaban. Según decían, habían prometido ocho mil duros a quien entre-

gara vivo a Santa Cruz; seis mil al que llevara su cabeza; y cuatro mil, al que anunciara la buena nueva de su muerte.

Que se acercaba el enemigo desde San Sebastián, y nosotros a San Esteban. Colocó en lo alto a unos veinte chicos. A los demás más abajo, y el cura con ellos.

—Ya vienen. Mira: ya han salido de Usúrbil. Han pasado el puente y empiezan a subir.

El cura les ordenó a los de arriba que hicieran fuego; a nosotros no. Comenzaron los de arriba; y también los liberales a responder. Las balas de unos y de otros pasaban por encima de nuestras cabezas. Los liberales disparaban y seguían para arriba; disparaban y seguían para arriba.

Cuando los tuvimos muy cerca, les disparamos de repente todos a una. Les pilló de sorpresa y se acobardaron. Derribamos a su jefe, el coronel Osta. Los demás echaron a correr de arriba abajo en gran desorden. Nosotros les atacamos por la espalda. El cura les decía:

—¡Venid, venid! ¡Aquí está el hombre de los ocho mil duros!

Cuando iban apelotonados por el puente, algunos cayeron al río y varios se ahogaron.

## **Iturriotzera**

## **A Iturrioz**

Ernioko Iturriotzara jun ta egun batzuk an egin genitun.

—Maite zenuten apaiza?

—Guk apaiza maite? Ara: txakurra bere jabearen aurrean ari begira isatsa batera ta bestera erabilliz pozez dagonean bezela egoten giñan gu apaizaren aurrean.

Iturriotzen giñala, jakiten genitun beltzen ibilliak. Jakin genun Bitoriako kapitan jenerala, Gonzalez, Bitoriatik Iruña aldera zijoala; gero, Iruñatik Donosti aldera jo zula. S<sup>a</sup>. Kruzek esaten zun:

–Etorriko aiz, etorriko aiz onuntz!


Donostitik erten ta Oriotik Azpeitira zetorrela.

–Ikusten dezute? Bazetorrek.

Azpeititik Errezillara.

–Emen degu.

Errezillen bi egun egon zan. Kanpotik zetozten gizonai sar-  
tzen uzten zien, bañan ertetzen iñoi're ez.



Noizbait ere abiatu dira Iturriotz aldera. Egun argi bañon lenago, kornetarik-eta jo gabe, guk ez entzuteatik noski. Zelatu-  
nen ezker, gerrillak-eta zabaldu dituzte ezker-eskubi, mikele-  
teak aurrean zirala.

Goiz artan lañu illuna zan, ta gure “konfidenteak” ez zioten  
nola zetozten igartzen. S<sup>a</sup>. Kruz kezka betarik zegon, ta abiatu  
da bakarrik Zelatu aldera. Aurrera ta aurrera, illunpean.

Alako batean, aizek lañuan zirritu bat egin dio ta gure  
apaiza beltzen aurreko artean agertu da. Igesi ezin egin. Larri  
estu ortan beraietara jun zan.

Zein zan galdetu diote. Nora zijoan. Apaizak, alegia erderaz  
ez zekiela, bizkarrak jasotzen zitun.

–No entender –esan zun.

Artu ta jeneralarengana badaramate. Jeneralak esan zun:

–¿No hay entre mis soldados algún vasco?

Napar bat etorri zan. Galdetu dio euskeraz zein zan, ta apai-  
zak: nekazaria zala, bere anaia errira irin billa bidali zula ta ez  
zeturrela, ta aren billa erten zala.

–Sí. Su hermano será alguno de los que hemos dejado ence-  
rrados en Régil –jeneralak.

Ta galdetzeko an karlistarik bazebillen; ta baietz: banakako  
batzuk bazirala. Kalterik egiten zioten.

–Ezetz. Ardua ta aragia ematen digute.

–Ta dirurik?

–Ez; dirurik ez.

Ain motel ta gizagajo ikusita, jeneralak esan omen zun:

–Si todos los carlistas fuesen como éste, no tendríamos que  
andar como andamos. Que pase al pueblo ese pobre hombre.

Bazijoan, bada, Errezil aldera. Jeneralak esan omen zun:

–Karlistak ardo ta ogia ematen omen diete. Bada guk dirua  
eman bear diogu. Datorrela.

Deadar egin diote:

–Etortzeko!

Orduan bere artean esan omen zun:

–Oraingoan nereak egin dik.

Etsi zun. Aurkeztu zan, bada, jeneralari; ta, dirua artu  
zunean, txapela kendu ta alako esker ta agurrak eginta, danak par  
egiten ziotela, aurrera jun da.

Baita guda gizon errenkada igaro zunean, Errezilko bidea  
laga ta mendiz laxterka-laxterka Iturriotzera berriz.

Ituan zetorren. Txamarraz, basarritar elastika bat, lokarri  
borladunak, zun.

–Ea, mutillak, bazetoztik eta ez da denbora galtzerik.

Iturriotz etxea sakon xamar dago. Ez zitzaion leku egokia  
irudi ta Aia alderago Pago-bi dioten zelaira eramán giñun. Leku  
garbia da, ta aurrez ta alboetan orma txikiak (Ataunen murkoak).  
Iru salletan jarri gindun, batzuk erdin ta besteak alboetan.

Badatoz noizbait ere. Mikeleteak aurrean. Gu egon ta ixilik. Alako batean agindu digu ta su egin degu. Jenerala, ezpata gora zula:

–¡Adelante!

Bigarren aldiz guk su batean, ta bazetoztela, bañan oraindik irugarren deskarga bota genien, ta jenerala lurrera. Orduan ere, Usurbillen bezela naspillatu dira. (Pirala T. IV, XLVI, pg. 189).

Noizbait ere aurreratu dira erditik; gu, erdikoak, atzera-xiago. Ardua eran, ogia jan ta su egin; ta mikeleteak ta aurrean zetoztenak gure ezker-eskubikoen su tartean jarri ziran. Abei eraso ta atzeraxeago, ta orduan guk, erdikoak, su. Ardoa eran ta ekin su. Gure kartutxoak gutxituaz zijoazten ta alde, mutillak!

Fuimos a Iturrioz, en el monte Ernio, y pasamos allí unos días.

–¿Le querían ustedes al cura?

–¿Quererle nosotros al cura? Mire: como el perro que, delante de su amo y mirándole, meneaba el rabo, cuando está contento, así solíamos estar nosotros ante el cura.

Estando en Iturrioz, nos enterábamos de los movimientos de los liberales. Supimos que el capitán general de Vitoria, González, se dirigía de Vitoria a Pamplona. Luego, que había tomado de Pamplona hacia San Sebastián. Santa Cruz decía:

–Ya vendrás, ya vendrás para aquí.

Que había salido de San Sebastián y que venía de Orio a Azpeitia.

–¿Lo veis? Ya viene.

De Azpeitia a Régil.

–Aquí lo tenemos.

Estuvo en Régil dos días. A los hombres que venían de fuera les permitían entrar; pero salir, a ninguno.

Se pusieron, por fin, en marcha hacia Iturrioz. Antes de aclarar el día, sin toques de corneta ni nada de eso, para que

nosotros no lo oyéramos. Una vez en Zelatun, se desplegaron en guerrillas por la mano derecha y por la izquierda, con los miqueletes en vanguardia.

Aquella mañana había una niebla cerrada, y nuestros confidentes no barruntaban cómo venían. Santa Cruz estaba muy inquieto, y se puso en marcha, él solo, hacia Zelatun. Adelante y adelante, en la cerrazón (de la niebla).

En esto, el aire abre un resquicio en la niebla y nuestro cura se ve entre los liberales de vanguardia. Imposible huir. En aquel apuro, se fue a ellos.

Le preguntaron quién era, a dónde iba. El cura, haciendo como que no sabía castellano, levantaba los hombros.

–No entender –dijo.

Lo llevaron al general, y éste dijo:

–¿No hay entre mis soldados algún vasco?

Vino un navarro. Le preguntó en vascuence quién era, y el cura: que era un labrador, que había enviado a su hermano al pueblo a por harina, pero que no venía, y había salido a buscarlo.

–Sí. Su hermano será alguno de los que hemos dejado encerrados en Régil –dijo el general.

Y que le preguntaran si andaban por allí carlistas; y que sí, que alguno que otro se veía. A ver si les causaban daño.

–No. Nos dan vino y carne.

–Y ¿dinero?

–No; dinero no.

Dicen que el general, viéndole tan torpe e infeliz, comentó:

–Si todos los carlistas fuesen como éste, no tendríamos que andar como andamos. Que pase al pueblo ese pobre hombre.

Siguió, pues, hacia Régil. Dicen que el general dijo:

–Los carlistas dice que le dan vino y pan. Pues nosotros le daremos dinero. Que venga.

Le vocearon:

–¡Que venga!

Entonces dice que comentó para sus adentros:

–Mi suerte está ya echada.

Se pensó lo peor. Se presentó, pues, al general; y, cuando recibió el dinero, se quitó la boina e hizo tales zalemas de agradecimiento y saludo, que siguió para adelante entre las risas de todos.

Pero en cuanto dejó atrás la línea de los soldados, abandonó el camino de Régil y, por monte y a toda prisa, otra vez a Iturrioz.

Llegó que se ahogaba. Como zamarra vestía una elástica de casero, de cintas con borlas.

–¡Ea, muchachos, ya vienen y no se puede perder tiempo!

La casa de Iturrioz está un poco en hondo. No le pareció buen sitio y nos llevó a un llano que le dicen Pago-bi (Dos Hayas), más hacia Aya. Es un lugar despejado, que tiene delante y a los costados unas paredes bajas (llamadas en Ataún “murkoak”). Nos distribuyó en tres grupos: unos en el centro y otros a los lados.

Ya vienen, por fin. Los miqueletes en cabeza. Nosotros quietos y en silencio. En esto, nos da la orden y hacemos fuego. El general, con el sable en alto:

–¡Adelante!

Por segunda vez nosotros hacemos fuego todos a una; y que ya vienen, pero todavía nos da tiempo para hacerles otra descarga, y el general a tierra. También entonces, lo mismo que en Usúrbil, se desordenaron.

Avanzaron, al fin, por el centro; nosotros, los del centro, (estábamos) un poco más atrás. Bebíamos vino, comíamos pan y disparábamos; y los que venían de frente se vieron entre el fuego de los de nuestra derecha y nuestra izquierda. Atacaron a estos y (quedaron) un poco más atrás, y entonces nosotros, los del centro, hicimos fuego. Bebíamos vino y dis-

parábamos. Nuestros cartuchos iban escaseando y ¡a largarse, muchachos!

## Aritxulegui

–An Prasku Zarra egoten zan, gaxoekin-ta.

–Zarra al zan?

–Bai; irurogeiren bat urte.

–Mikeleteak ez al ziran arañu juten?

–Bai zera! Baso aundiak, biderik ez.

–Allí solía estar Prasku “el Viejo”, con los enfermos y demás.

–¿Es que era viejo?

–Sí; unos sesenta años.

–¿Los miqueletes no solían ir hasta allá?

–¡Qué va! Grandes bosques y ausencia de caminos.

## Azpirozko Bentan

## En la Venta de Azpiroz

S<sup>a</sup>. Kruzek Azpirozko Bentan jarri nindun; an aduana zan, Napparroako ardoai-ta zergak artzeko. Guk artu ezkeru, ez zioten gero Lizartzan artzen. Lau mutillekin nengon; 20 egunean-edo egon nitzan. Baita 7.000 erreal bildu ere.

Alako batean, Beasaingo Beltzak artu gindun. Aramako Jose Martiñekin zetorren.

Gau artan, bere partidako mutillak alojatuta, ni bere etxera eramán nindun. Aparitan ederki eman, ardoa ugari eran erazi, pattarra ere bai... Mozkortu egin nai nindun, bañan ez ni mozkortu. Atzenean, noizbait ere, esan zidan:

–Ik dirua izango dek.

–Bai; zer edo zer badet.

–Eman bearko diak, bada.

–Ez; nere nagusiaren agindurik gabe ez dizut emango.

Baietz ta ezetz. Apusillatuko nindula ta... Azkenean esan nion:

–Erreziboa eman bearko diazu; bestela ez.

Ez zun nai, bañan baietz esan zun. Berak eskribitzen ez zekien, bañan Aramakoa zun eskribiente. Egin zun, bada, Jose Martiñek erreziboa ta firmatzeko eman nion.

–Arraioa! Ez al dakik nik firmatzen ez dakitala?

–Gurutze egin zak, bada.

Egin zun ta azpian Aramakoak «P. O.....» ipiñi zun. Orduan diruak eman nizkion ta papera gorde.

Gero Lizarragarengana bidali nindun «por insubordinado». Geroztik azpeitiarren batalloiean ibilli nitzan, Eraulen ta...

Maiatzaren 3-an Peñacerrada-n.

Orduñan artsaldeko lauretan.

Urrengo egunean etsaiak gure mutil batzuk (rezagados) artu zizkiguten.

Santa Cruz me puso en la Venta de Azpiroz; había allí una aduana para cobrar impuestos al vino de Navarra y demás. Si lo cobrábamos nosotros, después en Lizarza no lo hacían. Estaba con cuatro chicos y pasé unos veinte días. Y rejunte siete mil reales.

En esto, nos tomó por su cuenta Beltza ("el Negro"), de Beasáin. Venía con José Martín, de Arama.

Aquella noche, una vez alojados los chicos de su partida, me llevó a mí a su casa. Me dio bien de cenar y me hizo beber abundante vino, y también licor... Quería emborracharme, pero no lo consiguió. A lo último, por fin, me dijo:

–Tú tendrás dinero...

–Sí; algo tengo.

–Pues me lo habrás de dar.

–No; sin orden de mi jefe no se lo daré.

Que sí y que no. Que me iba a fusilar... Al final le dije:

–Me tendrá que dar usted un recibo; si no, no.

No quería, pero dijo que sí. Él no sabía escribir; pero tenía como escribiente al de Arama. Redactó, pues, José Martín el recibo y se lo alargué para que firmara.

–¡Rayos! ¿No sabes que no sé firmar?

–Pues haz una cruz.

La hizo y el de Arama puso debajo: «P. O...». Le entregué entonces el dinero y guardé el papel.

Me envió luego a donde Lizarraga «por insubordinado». Desde entonces anduve en el batallón de los azpeitianos, en Eraul y otros sitios.

El 3 de Mayo en Peñacerrada.

A las cuatro de la tarde en Orduña.

Al día siguiente, el enemigo apresó a algunos de nuestros muchachos que se habían rezagado.

## **Berriz apaizarekin**

## **De nuevo con el cura**

Erauldik berriz Naparroara<sup>1</sup>. Lekunberrin, erriko sarreran, apaiza ta mutillak formatuta. Lizarragaren aurrean esan zun apaizak:

–¡Firmes!

Ta pasa zanean:

–¡En su lugar descansen!

Lizarragarekin itz egiñ ta bazijoan apaiza erriz kanpora, ta orduan aldatu nitzan nere nagusiaren ondora. Esan nizkion apai-zari Beltzarekin-ta gertatutakoak. Baita erreziboa ere...

–Bai –esan zidan–. A zer depensoreak ditun Errelijioak!

---

<sup>1</sup> Erauldik Naparroara pasa zirala ez dago ondo esanda, erri ori erreinu zaarren barruan da eta. (Argitatzailaren oarra).

De Eraul, otra vez a Navarra<sup>1</sup>. En Lecumberri, a la entrada del pueblo, estaba el cura con los chicos formados. Delante de Lizarraga dijo el cura:

–¡Firmes!

Y cuando pasó:

–¡En su lugar descansen!

Tras hablar con Lizarraga iba ya el cura a salir del pueblo, y entonces cambié de lugar para ir con mi amo. Le dije al cura lo que me había pasado con Beltza ("el Negro"). También lo del recibo.

–Sí –me dijo–. ¡Qué defensores tiene la religión!

## Beran

## En Bera

Valdespina-k an artu zun apaiza. Arrondo pelotariaren etxean sartu. Nere anaia Valdespina-rekin zan, ta ni apaizarekin.

–Ta apaiza jun zanean, zer egin zenun?

Ni ta beste iru lagun Prantzira pasa giñan. An jendarme bik ikusi giñuzten. Batek euskeraz bazekin. Armak uzteko esan ziguten. Guk ezetz; ez genitula utziko. Fronteraz aruntz joan bearko genula. Ori baietz.

Zugarramurditik sartzerakoan, bi benta dituzu: goikoa ta bekoa. Goikoan zegon Lizarraga gaxo. Bekoa karreteran. Etxe bi; bat, gu gentozala eskuikoa, Prantzikoa; ta bestea, Españikoa. Nik ez nekin ta Prantzikoan sartu nitzan, ta berriz jendarmeak etorri zitzaizkidan.

Goikoan zegon Inozentzio Dorronsoro, Lizarragaren aiudantea. Frantzesez ere bazekin, jendarmeai itz egin ta neri papertxo bat eman ziran Berara joateko.

---

<sup>1</sup>No es correcto decir que pasaron de Eraul a Navarra, pues ese pueblo está dentro del viejo reino. (Nota del editor).

Allí apresó Valdespina al cura. Lo metió en la casa del pelotari Arrondo. Mi hermano iba con Valdespina, y yo con el cura.

–Y cuando el cura se fue, ¿qué hizo usted?

–Tres amigos y yo pasamos a Francia. Allí nos vieron dos gendarmes. Uno de ellos sabía vascuence. Nos dijeron que dejáramos las armas. Nosotros que no; que no las dejaríamos. Pues que tendríamos que cruzar la frontera. Que eso sí.

Al entrar por Zugarramurdi, te encuentras con dos ventas: la de arriba y la de abajo. En la de arriba estaba Lizarraga, enfermo. La de abajo, en la carretera. Dos casas; una, según veníamos a mano derecha, es de Francia; la otra, de España. Yo no lo sabía y entré en la de Francia, y de nuevo se me presentaron los gendarmes.

En la de arriba estaba Inocencio Dorronsoro, ayudante de Lizarraga. Sabía también francés, habló con los gendarmes y me dio a mí una hojita para que fuera a Bera.

## **Bigarren batalloira      Al segundo batallón**

Berriz azpeitiar artera, Iturberen mendean.

–Etorri dek Lekunberrin iges egin ziguna.

Otra vez entre azpeitianos, bajo el mando de Iturbe.

–Ya ha vuelto el que se nos escapó en Lecumberri.

## **Somorrostrora      Hacia Somorrostro**

–Bigarrengoak ez ziran an izan.

–Ni bai, ordea.

–Nola bada?

–Orain esango diot. Azpeitian giñala, agertu ziran Gipuzkoan aragoitarrak. Brigadier: D. Pascual Gamundi. Koronel: D. Francisco Cavero. Armak, izugarri zatarrak: trabuko ta laban aundiak eta... Zumarraga. Eibarrera arma on billa. Ez zuten

armaren ipurdia bizkarrean jartzen, saiatsean baizik, trabukozalien oituraz. Ez ziran arma berriak danentzat adiña izan; batzuk (200 edo?) lengo trabuko zarrekin geratu ziran oraindik.

Gure nagusiak, aragoitarrak mendi bideretako-ta euskaldun bearra zutela-ta, gure batalloiko batzuk aietara aldatzeko erabaki zuten.

Azpeitian giñan. Egun batean, Iturbek bildu gindun Artetxe aurrean, zer egin bear zan agertu zigun ta aragoitar artera jun nai zutenak pauso bat aurrera egiteko. *Tatari* jo zuten ta amaseiren bat aurreratu ziran.

Iturbek gutxiegi zirala ta danoen artean txotx egin bear zala. Txotx egin ta besterekin batean ni gertatu nitzan.

–Zenbat ziñaten guztiak?

–Ez dakit. Aragoitarren billa bagoaz ta Amorebietan arkitu genitun. Asko ziran; 1.500 (milla ta bosteun) jangai eskatu omen zituzten ta oraindik falta izan zala zioten.

–Los del segundo no estuvieron allí.

–Pero yo sí.

–Pues ¿cómo?

–Ahora se lo diré. Estábamos en Azpeitia, cuando aparecieron en Guipúzcoa los aragoneses. Brigadier: D. Pascual Gamundi. Coronel: D. Francisco Caveró. Las armas muy malas: trabucos y grandes navajas... Zumárraga. A Eibar, a por buenas armas. No apoyaban la culata del arma en el hombro, sino en el costado, al estilo de los de trabuco. No hubo suficientes armas nuevas para todos; algunos, unos doscientos, quedaron aún con los viejos trabucos de antes.

Nuestros jefes, que los aragoneses para andar por los montes y demás necesitaban algunos vascos y dediciaron destinar a ellos a algunos de nuestro batallón.

Estábamos en Azpeitia. Un día, Iturbe hizo que nos reuniéramos delante de Arteche, nos explicó qué es lo que había que hacer y pidió que los que quisieran ir con los aragoneses

dieran una paso al frente. Tocarón la corneta y se adelantaron unos dieciséis.

Iturbe (dijo) que eran pocos y que había que echar a suerte entre todos. Sortearon y me tocó a mí, junto con otros.

—¿Cuántos eran ustedes en total?

—No lo sé. Fuimos en busca de los aragoneses y los encontramos en Amorebieta. Eran muchos. Dice que habían pedido mil quinientas raciones y que no habían sido suficientes.

## Somorrostron

## En Somorrostro

Udara berria zan. Kortés gañean jarri giñuzten, karlotar errenkadaren ezker-ezkerreanean.

—Ez al ziran an bertan Gipuzkoako lenengo batallókoak?

—Bai, jauna; gure aurrean. Gipuzkoarrak gaizki asi ziran, abiatu giñan aietara, bañan berandu. Amar minutuz lenago jetxi izan bagiña, ez zuten lubakia galduko. Ori Martxoaren 23-an zan, burruka lenengo egunean.

Urrengo goiz-goizean bat-batean sartu gera Kortésko etxetara. Egun sentia zan. “A cuchillo”, ta ez baionetaz, labanaz baizik sartu ziran. Ni sarjento batekin burrukan; lurreratu nun. Beren arteko ofizial batek ezpata jasota nere burura zekarrela, nik burua atzeratu ta sudurrean jo nindun. Ara emen oraindik zauri-aztarna. Laburu, Aita Labururen aitak, sendatu zidan.

Maiatzan, besteak bezela, atzera, ta ez ara jun giñan ainbeste mutil, gutxiago baizik. Durangon 800 (zortzireun) jangai eskatu ta sobra izan omen ziran.

—Era la primavera. Nos situaron encima de Las Cortes, en el extremo del flanco izquierdo de la línea carlista.

—¿No estaban allí mismo los del primer batallón de Guipúzcoa?

–Sí, señor. Delante de nosotros. Cuando los guipuzcoanos se vieron en apuros, nos dirigimos hacia ellos, pero tarde. Si hubiéramos bajado diez minutos antes, no habrían perdido la trinchera. Eso sucedió el 23 de marzo, el primer día de la batalla.

A la mañana siguiente entramos de repente a las casas de Las Cortes. Era al amanecer. “A cuchillo” y no a la bayoneta, a navaja entraron. Yo (me vi) peleando con un sargento; lo derribé. Un oficial de los de ellos traía la espada en alto para (golpear) mi cabeza, pero yo la eché para atrás y me dio en la nariz. He aquí todavía la cicatriz. Laburu, el padre del padre Laburu, me curó.

Volvimos para atrás en mayo, como los demás, y no tantos chicos como habíamos ido para allá, sino menos. En Durango se pidieron ochocientas raciones y dicen que sobraron.

N. B. Me figuro que esta refriega: no fue en Las Cortes; b: sino al otro lado del monte, en la casa de Mendicute, que aún subsiste en medio del vallecito “El Manzanar”.

a: me fundo en que nada me dijo Aspiazu.

b: entre las noticias recogidas por mí, la de la reconquista de Mendicute (por los aragoneses, si mal no recuerdo).

## **Aragoira**

## **A Aragón**

–Ara ere bai?

–Baita ere. Somorrostroko burrukatean, Lizarraga Aragoiko buru egin zuten, ara zijoan ta gu ere arekin abiatu giñan.

Puente la Reina, Monreal (Asentzio eguna). Aragoiko konpañi bi sartu dira Aragoien. Berdun. Gaizki ibili ziran, alkateak jangairik eman nai ez ta. Jakatik badatoz etsaiak ta Sanguesara. Gero, batalloi osoa Berdunera.

–Ta jangairik?

–Eman bearako. Berriz Jakatik etsaiak; ta gu Naparroara. Nabaskues, Lumbier aurrean. Lizarraga Tolosara. Prantzitik Ara-goira zijoala, paisano jantzita.

Berdunen gure zaldientzat ere jangaiak eskatu genizken, ta esan zuten garagarrik ez zutela ta garia emango zigutela.

–Bota bada!

Zaldiak garia jan ta gero ura eranta, danak lertuta il ziran; amasei-edo izango ziran.

Nabaskuesen (napar euskaldunak) aurreraxeago Aragoien sartu ta an utzi gendun Lizarraga, ta gu atzera probintzira.

S. Juanetan Tolosan.

–Ez ziñan, bez, Estellakoan izan?

–Ez; zortzi egun gure etxeetara juteko eman zizkiguten, ta etxera jun nitzan. ta gero Tolosara.

–Egña jenerala zan nagusi? Zer batalloitara?

–Nik bigarrenera (neria) nai, edo 3-ga. (Santa Kruzta asko ziran an). Ezetz.

Tolosan billatu nun Anduiza, Legazpiarra. S. Juan eguna zan. Mezetatik irten ta eliz aurrean.

–Kaxo, Martin ta...!

Anduiza 6-garreanean zebillen, D. Cipriano López Blanco t. koronelaren aiudantea. Blanco-k ezagutzen nindun, Somorrostrora jun bañon lenagotik.

–Nerekin etorri nai al dek?

Baietz. Sorabillara, Andoaiñara. D. Zipriano, orain Caja de Ahorros dagon etxe aundian bizi zan.

San Pedro eguna. Lasarten pestak. Blanco-ri gogoratu zitzaion gure mutillak gud-etxeetatik armarik gabe dantzara jetxiko zirala ta konpañi birekin Oriara jun zan. Ernaniko inguruetara.

Anduizak:

–Somorrostron-ta ez al dek medallarik-edo irabazi?

–Bai; illean 60 errealekoa, bañan ez diat oraindik ardipat ere artu.

Danak ekarri zizkidan; baita atzeratuak ordaindu ere.

–¿Allá también?

–También. Durante la batalla de Somorrostro, nombraron a Lizarraga jefe de Aragón, allá iba y también nosotros nos pusimos en camino con él.

Puente la Reina; Monreal, día de la Ascensión. Dos compañías de aragoneses entraron en Aragón. Berdún. Anduvieron a malas con el alcalde, que no quería darles raciones. Viene de Jaca el enemigo, y a Sangüesa. Luego, todo el batallón fue a Berdún.

–¿Y las raciones?

–Tuvieron que darlas. Otra vez viene de Jaca el enemigo; nosotros a Navarra. Navascués, delante de Lumbier. Lizarraga a Tolosa y, según marchaba por Francia a Aragón, (iba) vestido de paisano.

En Berdún pedimos también pienso para nuestros caballos, y dijeron que no tenían cebada y que nos darían trigo.

–¡Venga, pues!

Los caballos comieron trigo y bebieron después agua, y murieron todos reventados; serían unos dieciséis.

En Navascués (navarros de habla vasca); algo más adelante, entramos en Aragón, dejamos allí a Lizarraga y nosotros volvimos a la Provincia.

Por San Juan, en Tolosa.

–¿O sea que no estuvo usted en lo de Estella?

–No; nos dieron ocho días para ir a nuestras casas, y yo fui a la mía, y después a Tolosa.

–¿Era el general Egaña quien mandaba? ¿A qué batallón?

–Yo quería al segundo, el mío, o al tercero. Había en él muchos santacrucistas. Que no.

En Tolosa me encontré con Anduiza, natural de Legazpia. Era el día de San Juan. A la salida de misa, delante de la iglesia.

—¡Hola, Martín!

Anduiza militaba en el sexto, como ayudante del teniente coronel D. Cipriano López Blanco. Blanco me conocía, desde antes de ir a Somorrostro.

—¿Quieres venirte conmigo?

Que sí. A Sorabilla, a Andoain. Vivía D. Cipriano en la casa grande donde ahora está la Caja de Ahorros.

Día de San Pedro. Fiestas en Lasarte. A Blanco le vino a la cabeza que los chicos bajarían sin armas de sus cuarteles para bailar; y él se fue con dos compañías a Oria; a las inmediaciones de Hernani.

Anduiza:

—¿En Somorrostro y demás no has ganado alguna medalla o lo que sea?

—Sí; sesenta reales al mes; pero todavía no he visto ni un ardite.

Me los trajo todos, y me pagó hasta los retrasos.

## Seigarrenean

## En el sexto

—Ez al ziñaten emendik beñere irten?

—Bai; Naparroara jun giñan. Matsa denbora zan. Mutil batek matsa mordoren (bat) artu zulako, Karpentier koronelak “paloak” eman bear zitzaiozkala. Blanco t. k.-ak ezetz. Ala ere preso sartu zun. Granadero batek goardi egin bear ta ez zula egingo. Gu, berriz, danak murmuren asi giñan, ta atzenean aske utzi zuten.

—Nun izan zan ori?

—Arronitzen.

—¿No salisteis de aquí nunca?

–Sí; fuimos a Navarra. Era el tiempo de la uva. Porque un chico cogió un racimo, el coronel Carpentier dijo que había que darle una tanda de palos. El teniente coronel Blanco, que no. Así y todo, mandó detenerlo. Tenía que hacer la guardia un granadero, pero se negó. Todos nosotros empezamos a murmurar y al final lo dejaron libre.

–¿Dónde fue eso?

–En Arróniz.

## **Mendizorrotz. Zarauzko Gorriya**

## **Mendizorroz. El Rojo de Zarauz**

Hilario S<sup>a</sup>. Kruzen kapitan zala, Z. G. morroi zun. Hilario Lizartzan il zutenean, 17 milla erreal zeramazkien ta Z. G-ak artu ote zizkion. Gero, Mugertzaren partidán.

Beltzak Zelaiaundi aldera zijoaztela, Mugertza zan aurrean; bañan ainbeste etsai zetorkiola ta atzeratu egin zan. Urrestitik Lukaikategi Bidartera atzeraka.

–Gorri, mutil piña aizela ta gaur ikusiko diagu.

–Bai; nik ez det faltako.

Bidarten bertan edo urrean ezkutun geratu zan, «Gaur bat edo bat garbitu bear diat» esanaz.

Etsai abanzadako opizialea Gorria ezkutatuta zegon aurrean gertatu zanean, ertetzen da ta lepotik eutsi dio, bañan an urrean zetorren sarjentoak tiro bota ta il zun. Bidarte (errearen) atarian.

Ni nere eskuadrarekin Arrikarten nitzan. Zelaiaundira joateko. Atzobakarren mutxilak utzi, bagenekigun asaltora gijoa-zela ta. Irrusetatik Zelaiaundira.

Lenengo, beltzak, batzuk Oriamenditik, besteak Antiguatik. Barkaiztegi zarra, gero errea, artu zuten.

Guk artsaldeko bostetan ekin genien, su egin gabe. Etsaiak atzera. Barkaiztegitik aurrera jun giñan, bañan Bidarte ez genun artu. Bidarte aldean salla aundia baizuten, ta berriz atzeratu erazi giñuzten; ta Barkaiztegin geratu ziran. Gu gañean, Zelaiaundin.

Siendo Hilario capitán de Santa Cruz, tenía como subordinado a “el Rojo” de Zarauz. Cuando mataron a Hilario en Lizarza, llevaba consigo diecisiete mil reales; y que si se los había cogido “el Rojo” de Zarauz. Luego (se enroló) en la partida de Muguerza.

Cuando los liberales avanzaban hacia Zelayaundi, Muguerza estaba en primera línea. Pero al ver que se le venía encima tal masa de enemigos, echó para atrás, de Urresti a Lukaika-tegi y Bidarte.

–Rojo, dice que eres un muchacho fino y hoy lo veremos.

–Sí; yo no fallaré.

Se quedó escondido en Bidarte o muy cerca, diciendo:

–Hoy tengo que cargarme a alguno.

Cuando el oficial de la avanzada liberal se encontraba delante de donde estaba oculto “el Rojo”, éste salió y le agarró del cuello; pero un sargento que venía cerca le disparó un tiro y lo mató. Eso fue delante del caserío quemado de Bidarte.

Yo estaba con mi escuadra en Arrikarte. Que fuéramos a Zelayaundi. Dejamos las mochilas en Atzobakar, pues sabíamos que íbamos a dar un ataque. De Irruseta a Zelayaundi.

Primeramente, los liberales, unos desde Oriamendi y otros desde el Antiguo. Tomaron (el caserío de) Barcáiztegui, el viejo, que después fue quemado.

Nosotros atacamos a las cinco de la tarde, sin hacer fuego. El enemigo reculó. Dejamos atrás Barcáiztegui, pero no tomamos Bidarte. Es que junto a Bidarte había una gran masa, y nos hicieron retroceder. Ellos quedaron en Barcáiztegui; y nosotros arriba, en Zelayaundi.

## **López Blanco Zelaiaundin**

## **López Blanco en Zelayaundi**

–Zaldi gañean al zan (López Blanco)?

–Ez; oñez.

–¡Azurmendi, más a la izquierda, que eso está malo! –de-  
dar egin zidan.

Bularretan jo zuten: bala saiatsetik bizkarrera. Nere besoe-  
tan artu nun.

–¿Estaba a caballo (López Blanco)?

–No; a pie. Me gritó:

–¡Azurmendi, más a la izquierda, que eso está malo!

Le dieron en el pecho; la bala (le traspasó) del costado al  
hombro. Lo tomé en mis brazos.


# Oiar-te-ko Luis –II–

## Luis de Oyarte

---

(Apalategik Luis Oiarteren bi kontaera idatzi zituan. Leenengo, bigarren kuadernoaren 112 orrialdean; bigarrena, kuaderno beraren 318 orrialdean. Onako au bigarrena da).

(Apalategui transcribió dos relatos de Luis Oyarte. El primero, en el segundo cuaderno, página 112; y el segundo, en la página 318 del mismo cuaderno. Éste es el segundo).



–Zeñekin ibilli ziñan?

–Lendabizi Basterrikarekin; ta gero, Alkortarekin.

–Batalloiak egin ziranean?

–Lenbizikoan, Alkorta beraren konpañian.

–S<sup>a</sup>. Kruz Berrobin agertu zanean...?

–Gu Asteasun izaten giñan, bañan bezperan Zaratera bidali giñuzten, ta antxe egon.

–Burruka gogorra izan zan bada...

–Bai; gu Billabona gañeko Urkamendin, ta beltzak Tolosa aldera jo zutenean, berriz Asteasura.

–¿Con quién anduvo usted?

–Primero con Basterrica; y luego, con Alcorta.

–¿Cuando se formaron los batallones?

–En el primero, en la compañía del mismo Alcorta.

–¿Cuando Santa Cruz apareció en Berrobi...?

–Nosotros solíamos estar en Asteasu, pero la víspera nos enviaron a (la venta de) Zárate, y allí estábamos.

–Pues debió de ser un recio combate...

–Sí; nosotros estábamos en Urkamendi, encima de Billabona; y cuando los liberales tomaron hacia Tolosa, nosotros otra vez a Asteasu.

## Somorrostrora

## A Somorrostro

Martxoko Andra Mari bezperan, granada gure artean lertu. Esan ziguten «a tierra» etzateko, bañan amar mutill purrukatu: bost ill ta bost eritu.

Lubakian. Etsaiak mendi gora. Aurretik mikeleteak, nagusi Azkoitiko Badiola zutela.

–Ez diot orrelakorik iñoiri entzun.

(V. Tomás Badiola; pone el caso el 3<sup>er</sup>. día. ¿En Murietas?)

Illarratzu komandanteak:

–Nadie haga fuego hasta que estén a 40 pasos.

Guk egin nai genun, ta nerauk lenbizikoa tira ta danak bereala. Guk su egin ta Badiola azkoitiarra bota; berak (etsaiak) ta

Alkorta azkoitiarra bota ziguten. Lubakitik kanpora anka botatzerakoan:

–Nereak egin dik –esan zun–. Esaiozute nere emaztiari nola il naizen.

Gero...

Goiago sutan ari giñala, 46 mutil giñan lubakian ta 45 kartutxorekin gertatu giñan. Arabatarrak alboan; aiek erreminton zuten; bada auen kartutxoak gure berdanetan sartu ta ederki.

–Ernanin?

–Ez.

–Estellara?

–Bai. Eritu billa, Azkoitiko Otaño medikua, 21 kotxe bilduta. Altsasun billatu genitun.

La víspera de la Virgen de Marzo una granada explotó entre nosotros. Nos ordenaron «cuerpo a tierra», pero destrozó a diez chicos: cinco muertos y cinco heridos.

En la trinchera. El enemigo subía monte arriba. En cabeza, los miqueletes, mandados por Badiola, de Azcoitia.

–Eso no se lo he oído a nadie.

(V. Tomás Badiola; pone el caso el 3<sup>er</sup>. día. ¿En Murietas?)

El comandante Illarazu:

–Nadie haga fuego hasta que estén a 40 pasos.

Nosotros queríamos hacerlo, y yo disparé el primero y enseguida todos los demás. Nosotros disparamos y derribamos a Badiola, azcoitiano; ellos, los enemigos, nos derribaron a Alcorta, azcoitiano. Al poner el pie fuera de la trinchera:

–Lo mío se acabó –dijo–. Decidle a mi mujer cómo he muerto.

Después...

Mientras hacíamos fuego más arriba, estábamos en la trinchera cuarenta y seis chicos, y nos quedamos con cuarenta y cinco cartuchos. Estaban al lado los alaveses; ellos tenían fusi-

les remingtones; pues sus cartuchos los metimos en nuestros fusiles berdán, y muy bien.

-¿En Hernani?

-No.

-¿A Estella?

-Sí. A por heridos habiendo reunido el médico Otaño, de Azcoitia, veintiún coches. Los encontramos en Alsasua.

# Beltzak Alfonso XII errege egin zutenean egindako bertsoak

## Estrofas compuestas cuando los liberales proclamaron rey a Alfonso XII

---

(Apalategik ez du esaten bertso aukerak nundik dituan. Ziur aski, norbaiten aotik jasoa dira. Zazpi bertso eskeintzen dizkigu; baiña berez amalau dira, eskuz idatzitako orri xaar batean arkitu genituan bezala beintzat. Ikus: Antonio Zavala: *Karlisten bigarren gerrateko bertsoak*, Sendoa, 1997. Baiña noizkoak diran gaizki erabakitzen du Apalategik. Ez dira Alfonso XII errege egin zutenekoak. Ori 1874-ko abenduaren 29-an gertatu zan. Bertso aukerak 1868-koak dira, Isabel II erregiña bota zutenean moldatuak. A. Z.)

(Apalategi no anotó la procedencia de estas estrofas. Las recogería, seguramente, de boca de alguien. Nos ofrece siete estrofas, pero son de suyo catorce, según consta en una vieja hoja manuscrita. Cfr.: Antonio Zavala: *Estrofas de la segunda guerra carlista*, Sendoa, 1997. Pero Apalategi los data equivocadamente. No son de cuando Alfonso XII fue proclamado rey, lo que ocurrió a 29 de diciembre de 1874, sino de 1868, cuando fue destronada Isabel II. A. Z.)

1. Irureun urte pasatu dira  
(eskribiturik badakit)  
gobierno au para zanean (sortu?)  
protestanteen mendetik.  
Orduan ere kosta zitzaigun  
euskaldunai galanki  
belar gaizto au ateratzea  
Españiako lurretik.

(Trescientos años han pasado –lo sé de fuente escrita– que este gobierno fue instaurado bajo la tutela de los protestantes. También entonces nos costó mucho a los vascos desarraigar de las tierras de España esta mala hierba).



Zer adierazi nai du bertsolariak? Eziñ asmatu det. Irureun urtez lenago asi ziran protestanteak. Alaxen da. Oraingo gobierno liberalen jaiotetxea protestanteen etxea dala, ta oraingo udak iturri artakoak dirala esan naiko zun noski.

¿Qué quiere decir el bersolari? No puedo barruntarlo. Que los protestantes empezaron trescientos años antes. Así es. Querría expresar que la casa de los gobiernos liberales se asienta en el solar de los protestantes, y que estas aguas vienen de aquella fuente.

2. Aita Santuak eskribitu du  
Espaniara gorantzi,  
Santiagoren erregalioz  
ez dezagula gaitzetsi.  
Relijioa nai eztuena  
irten dedilla igesi,  
gure erreñoan ez da tokatzen  
libertaderik nagusi.

El Santo Padre ha enviado por escrito saludos para España: que no renunciemos al legado de Santiago. El que no quiera la religión, que salga huyendo; en nuestro reino no está bien que domine el libertinaje.

3. Judu, ereje, protestantiak  
beti dabilta artean,  
Jesukristoren religioa  
supritu ezin pakean.  
Gurutzeko bat eskribiturik  
parako zaie atean,  
a(g)interik gabe izan ditezen  
katolikoek oin pean.

Los judíos, herejes y protestantes siempre se nos entrometen; no pueden dejar en paz la religión de Jesucristo. Se les marcará una cruz en la puerta, para que queden sin mando ninguno a los pies de los católicos.

4. Liberal buru gogorrekoak,  
laga zazute kolera,  
umildadean para zaitezte  
katolikoek legera.  
Guztiok alkar artu dezagun  
atozte arrazoiera,

tokatzen zaion gizon justua  
besterik baño obe da.

Liberales, hombres de cabeza dura, aplacád la cólera. Someteos con humildad a la ley de los católicos. Para que nos entendamos los unos a los otros ateneos a razones: el hombre justo a quien le corresponde (la corona) es mejor que ningún otro.

5. Ara D. Karlos azaldu zaigu,  
bazegon emen negarra,  
illun gaudenok alaitutzeko  
Orienteko izarra.  
Nundik nora dan deskubritoa  
soka faltsoen amarra,<sup>1</sup>  
sokarik milla puskatutzeko  
ez zaio falta indarra.

He aquí que se ha presentado D. Carlos –mucho llanto había aquí–, estrella del Oriente para alegrar a los que estamos tristes. Habiendo descubierto de dónde a dónde va la atadura de las falsas amarras, no le falta fuerza para romper mil ligaduras.

6. Ama Birjina Pillarekoa,  
arturik gu zure anparo,  
soka ori milla puska egiteko  
indar eskasik ez dago.  
Aita ta seme irtengo gera  
Karlos Borbonen soldado,  
bandera beltzak jarri ez gaitezán  
lege zikiñen esklabo.

---

<sup>1</sup> Amarra, amarratu, lotu. (Apalategiren oarra).

<sup>1</sup> Amarra, amarrar, atar. (Nota de Apalategui).

Madre Virgen del Pilar, contando con vuestro amparo, no faltará fuerza para romper esa atadura en mil pedazos. Padres e hijos saldremos como soldados de Carlos de Borbón, para que la bandera liberal no nos haga esclavos de sucias leyes.

7. Ea, lagunak, uni gaitezen  
kruzaturikan besoak,  
berantetsiak bageunden bañan  
kunplitu de(d)illa plazoa.

Ea, compañeros, unámonos cruzando nuestros brazos; nos parecía que tardaba, pero que se cumpla el plazo.

Bertsolari au oiartzuarra omen zan. Gudatean ill. Karlotar alde bertsoak egiteatik, mikeleteak Tolosara lotuta eraman ta giltza pean bi illabeten eduki zuten.

Gero askatu zuten, bañan bertsolari orrek: «papera emateko, gaizki egin gabe itxian eduki zutela agertzeko».

Ez ziotela emango; ta berak, berriz, ez zala agiri ori gabe ertengo. Orrela, beste illabete osoa egon zan.

Dicen que este bersolari era de Oyarzun. Murió en la guerra. Por haber compuesto estrofas a favor de los carlistas, los miqueletes lo llevaron esposado a Tolosa y allí lo tuvieron bajo llave dos meses.

Luego lo liberaron; pero el bersolari dijo que le dieran un escrito en que constara que lo habían tenido encerrado sin haber hecho ningún mal.

Que no se lo darían; y él, que no saldría de allí sin ese documento. De ese modo, permaneció (en prisión) otro mes entero.

# Arantzatsu

## Aránzazu

---

13 Dc. 1926. Ha estado aquí, entre otros varios PP. franciscanos, el Guardián de Aránzazu, P. Deogracias, nacido en el mismo Aránzazu. El motivo de la reunión ha sido la velada que en honor de S. Francisco de Asís han tenido los estudiantes, por el centenario de la canonización. (Profesor: P. Estefanía).

–P. Guardián, ¿no conservan en el convento tradiciones alusivas a las guerras carlistas? Por ejemplo, del incendio del C. por Rodil. He oído estaban allí los eibarreses.

–Sí, así es; y a propósito de aquel triste suceso, he oído a los q. eran viejos, cuando yo joven, lo siguiente: había en el convento un fraile encarcelado.

–¿En cárcel civil?

–No; del convento. Era un fraile eibarrés. Un día, en pleno coro, acometió al Guardián cuchillo en mano. Llegó a pinchar al Guardián. Se abalanzó sobre aquel insensato otro fraile, Urrestarazu, que era de Idiazábal. Tan fuertemente se abrazó con el eibarrés, que, aun después que entre muchos sujetaron a éste, no podía Urrestarazu soltar las manos.

El eibarrés debió ser un loco completo. Decían los frailes que del pan que le servían ¡¡consagraba!!, por lo cual determinaron no servirle más pan de trigo, sino de maíz. A las veces se dedicaba a cantar en la prisión.

Sucedió, pues, q. por aquellos (días) llegaron los de Rodil, que libertaron al encarcelado y éste, viéndose entre eibarreses, se fue con ellos.

## De la segunda guerra

Era yo chico y vivía en mi casa, en el mismo Aránzazu. Mochón (ez-izena, Azp.; izengoitia, Donostia.; gaizkizen, Goie-

rri) (*apodo*). Su nombre era Emeterio Kortabitarte. Zapatero de Oñate, q. trabajó mucho para el 1<sup>er</sup>. levantamiento del 72 y salió junto al jefe Ayastuy, que parecía M. un comandante del . . . . .

Después se quedó en su casa sin probar más aventuras. El día que estuvo S<sup>a</sup>. Cruz con su gente en Aránzazu (V. el periódico *La Constancia*, 8 de Dc. 1926) (17 de Mayo), al salir la tropa de la iglesia estaba Mochón a la ventana de su casa (donde hoy se expenden medallas...).

S<sup>a</sup>. Cruz le hizo seña de que bajase; bajó. No sé qué cuentas retrasadas se traían; es el caso que junto al Cristo (calzada vieja, no existía la carretera), le propinó una paliza.

M. se presentó a Lizarraga, quien le hizo comandante de armas de Aránzazu, donde residía, con 4 soldados a sus órdenes.

Oñatiko zapatari  
Motxon deritzana,  
diruak artu eta  
aberastu zana.  
Araozko etxe batean  
urreak kontatu;  
mutillai bat ere eman ez,  
danak berak artu.

El zapatero de Oñate llamado Mochón, que se embolsó el dinero y se enriqueció. En una casa de Araoz contó las monedas de oro; a los chicos no les dió nada, todo se lo guardó para sí.

# Extractos del "Diario de San Sebastián"

Periódico liberal de la capital de Guipúzcoa

---

Enero 9, 1873: Detalla la asignación de los miqueletes: 8 rs. diarios, más un plus de campaña, más dos en operaciones.

Enero 1873: Batallón de Voluntarios. Comandantes: D. Nemesio Aurrecochea, D. José de Brunet. Capitanes: D. Joaquín de Arizteguieta, D. Fidel Múgica (litógrafo, Narrica 24), D. Fructuoso Gogorza, D. José Artola.

17 Marzo: se presenta en Astigarraga una partida carlista. Era de Egozcue, el Jabonero de la Brecha, y de S<sup>a</sup>. Cruz. V. relato de D. Hermenegildo Zubeldía de este cuaderno.

19 Marzo: salen de Pamplona los oficiales: Ortigosa, Woroski y Borbón, Mogrovejo (hijo), Barroso (alférez). V. General Brul, cuad. 1<sup>o</sup>.

21 Marzo: insiste en lo de Astigarraga. Atribuye al "Tuerto", aserrador de Aya, la muerte del padre de "Corchos". Lizarraga, repuesto de la enfermedad, se reincorpora en Astigarreta.

28 Marzo: votaciones para capitanes de la 7<sup>a</sup>. y 8<sup>a</sup>. compañía de Voluntarios. En la 7<sup>a</sup>. compañía obtuvo D. Dionisio Arruti 75 votos; D. Juan Pedro Barcelona, 66 votos.

(¿Será que votaban las dos compañías juntas? Un total de 141 votos son excesivos para una sola).

29 Marzo: lista de tenientes y sargentos.

30 Marzo: anuncia la formación de dos batallones de voluntarios movilizados en Madrid, y se titulan Tiradores de Pierrad y Nouvillas.

Abril (principios): se forman la 9 y 10 compañías de Voluntarios. Una compañía separada de "Voluntarios de la República". Pasan de 100 los q. se alistan para movilizados.

Abril 8: muerte, en Elgueta, del teniente de miqueletes Higinio Sarasola y prisión de Osta. (V. Relatos impresos de S<sup>a</sup>. Cruz: “Fusilamiento de Osta”). Habla de Elósegui, maestro de Ibarra, exsecretario de S<sup>a</sup>. Cruz.

Abril 14: El general lib. Morales ataca a Lizarraga en Abal-cisqueta.

Abril 17 (?): Loma, después de una incesante persecución por Lesaca y Beasain, alcanza a Lizarraga en Mandubia y le per-sigue hasta los Mártires (Aizpurucho), de Azcoitia. Intervienen las 1, 2 y 3 de Eibar. (V. en apuntes generales: “Pazkoa bigarre-nean”).

Abril 16: Habla de la acometida de los carlistas a Oñate. El mismo día, 2<sup>o</sup>. de Pascua de Resurrección, que la carrera Man-dubi-Aizpurucho.

Abril 19: Voluntarios móviles, ¿Debe referirse a la 4 parts. de distrito sostenidas por la Diputn.? Visten blusa de paño azul turquí oscuro, cuello y bocamangas encarnadas, pantalón de paño gris con vivo encarnado. La 1<sup>a</sup>. compañía: cp. D. Ramón Arceluz, en Astigarraga. La 2<sup>a</sup>. compañía, cp. D. Gregorio Arce-luz, en Zarauz. La 3<sup>a</sup>. compañía: cap. D. Juan Cantillo. La 4<sup>a</sup>. Compañía: cap. Sastria, en Escoriaza y Billabona.

Abril 29: Aparece el cadáver de Egozcue.

–Bai orixen. Nik esango diot nola izan zan. Gure inprenta Diputazioarena zan. Ta Dorronsoro Oñatira etorri zanean, deitu egin zigun, ta orregatik jun zan, inprenta ta guzi, gure aita zana. Langillerik ez baitzan karlistetan –inprenta lana kastillano gauzak artzen zan–, ta gure anaia eraman zuten, ta gero aizpa zarrenak.

–Ta nun izan ziñaten?

–Araotzen, apaiz etxean. Gure aita egunero jexten zan Oñatira (zaldi gañean), Dorronsorori probak erakustera.

Gerra bukaeran, inprenta guztia kajetan sartu ta Naparroara, Endarlatzara. An liberalak artuko zutela ta mutillak berak bota zituzten kajak ibaira.

–Modesta, dice que fueron ustedes los de la imprenta de Dorronsoro.

–Sí, por cierto. Le diré cómo sucedió. Nuestra imprenta era de la Diputación. Y cuando Dorronsoro vino a Oñate, nos llamó, y por eso marchó, con la imprenta y todo lo demás, nuestro difunto padre. No había trabajadores (de imprenta) entre los carlistas –el trabajo de imprenta se consideraba cosa de castellanos–, y se llevaron a nuestro hermano, y luego a las hermanas mayores.

–Y ¿dónde se instalaron ustedes?

–En Araoz, en la casa del cura. Nuestro padre bajaba todos los días a Oñate, a caballo, a enseñarle las pruebas a Dorronsoro.

Al final de la guerra, metieron toda la imprenta en cajas y a Navarra, a Endarlaza. Allí, (no fuera) que los liberales se apoderaran de ella, los mismos chicos arrojaron las cajas al río.

## D. Segundo Picabea y Oteiza

---

Julio 10?, 1928

Aduanas, consignaciones, agentes de toda clase de...

Rambla Sta. Mónica 15-17, Barcelona

Ondarrabitarra da. Bartzelonan ezkondu ta an bizi.

–Nere aita, D. José de Picabea y Arrieta, comisionado por la Diputación (carlista) para pertrechos de guerra.

Guda asieran Beran bizi giñan. Andik Prantzira atzera ta aurrera ibiltzen zan nere aita.

Ni, oso gaztea nitzala, etxetik igesi irten ta Soroeta oiarzuarren partidari sartu nitzan.

–Zenbat ziñaten?

–80-ren bat.

–S<sup>a</sup>. Kruzen mendean al ziñaten?

–Ez giñan. Apaizak partida guztiak bere mendean nai zitun, bañan Soroeta bere buruaren jabe izan zan beti.

–Arekin al ziñan il zutenean?

–Bai; antxe nitzan.

(Pirala, T. IV, LXXIV, pg. 316: «Sacaron los carlistas mozos de Isasondo y pueblos inmediatos, y saliendo en este día (23 Marzo, según Picabea) Fontela con un batallón de la Constitución desde Oyarzun hacia Lesaca, por los montes de Arichulegui, halló a la partida de Soroeta...».)

Aritxulegi mendietan beltzak aldapa gora ta gu atzeraka, su egiñaz. Orduan ill ziguten. Gero, liberalak atzeraka asi ziranean, gu aien atzetik su ta su, Oiartzunen sartu arteraño.

Gero, nere aitak, gazteegia nitzala-ta, etxera eraman nindun. Noizbait ere baimena eman eta kadeteetan sartu eta an ibilli nitzan, “Batallón del Rey” egin zanean ta baita batallioi au sakabanatu zanean ere.

–Urnietan?

–Bai. Ama Birjin egunean Amasa ta Billabonan giñan. An meza entzun, morralak an bertan utzi ta sartu giñan “a la carga”, lau konpañi karreteratik, ta beste lauak ezkerretik.

Urnietako etxeetan ere sartu giñan, ta baita aurrerago ere, Ernaniko arkua ikusteraño.

–Lakarren?

–Baita ere. Gu Grozin-en geunden ta andik jun giñan Laka-rrera.

Es natural de Fuenterrabía. Se casó en Barcelona y allí vive.

–Mi padre, D. José de Picabea y Arrieta, comisionado por la Diputación (carlista) para pertrechos de guerra.

Al comienzo de la guerra vivíamos en Bera. De allí, mi padre continuamente iba a Francia y volvía.

Yo, siendo muy joven, me escapé de casa y me enrolé en la partida de Soroeta, natural de Oyarzun.

–¿Cuántos eran ustedes?

–Unos ochenta.

–¿Estaban bajo el mando de Santa Cruz?

–No lo estábamos. El cura quería tener todas las partidas bajo su mando, pero Soroeta fue siempre independiente.

–¿Estaba usted con él cuando lo mataron?

–Sí; allí estaba,

(Pirala, T. IV, LXXIV, pg. 316: «Sacaron los carlistas mozos de Isasondo y pueblos inmediatos, y saliendo en este día (23 Marzo, según Picabea) Fontela con un batallón de la Constitución desde Oyarzun hacia Lesaca, por los montes de Arichulegui, halló a la partida de Soroeta...».)

En los montes de Arichulegui, los liberales cuesta arriba y nosotros para atrás, haciendo fuego. Entonces nos lo mataron. Luego, cuando los liberales empezaron a recular, nosotros tras ellos, sin parar de hacer fuego, hasta que se refugiaron en Oyarzun.

Más tarde, mi padre, que yo era demasiado joven y me llevó a casa. Al fin, me dio permiso, entré en los cadetes y al formarse "el Batallón del Rey" en él anduve y también cuando se dispersó.

—¿En Urnieta?

—Sí. El día de la Virgen estábamos en Amasa y Billabona. Oímos allí misa, dejamos allí mismo los morrales y entramos a la carga, cuatro compañías por la carretera y las otras cuatro por la izquierda.

Entramos también en las casas de Urnieta, y aun más adelante, hasta dar vista al arco de Hernani.

—¿En Lácar?

—También. Nosotros estábamos en Grocin y desde allí nos dirigimos a Lácar.

## D. Francisco Garmendia

---

Industrial bilbaíno (Fundición de Abando), que veranea en Burgos con su señora azkoitiarra.

Lazkautarra naiz. Etxetik irten ta Peña Platara jun giñan. An Dorronsorok iru konpañi zitun, ta ni bigarreanean, Zataraintar Piorekin, ibilli giñan gora ta bera.

–Su egiñ zenuten?

–Ez; ezta asmorik ere. Sei kartutxo bakarrik genitula ibiltzen giñan.

Gero 6-garrena, D. Cipriano López Blanco nagusi.

–S<sup>a</sup>. Cruzen zalaparta izan zanean? Larraulen?

–Gau artan bertan Billabonan izan giñan. Goiz-goizetik Larraulera abiatu. Gu erritik irten ta apaiza sartu; gure atzetik etorri ziran aldapa gora S. Cruz ta berak jasotako mutillak. Gure-tako mutil batzuk, atzean geratutakoak, arrapatu zizkiguten.

Egun aietan Zaraten gertatu giñan. Otz gogorak ziran ta guk iru lagunentzat manta bakarra genun.

–Iru zati egin bearko zenuten.

–Ez orixen: iru lagunak alkar-alkar egin eta manta bakarra iruren gañean.

Gañera, iru egun eduki giñuzten bazkari gairik gabe, S. Cruzek kendu zizkigula ta...

Soy natural de Lazcano. Salimos de casa y nos fuimos a Peña Plata. Dorronsoro tenía allí tres compañías, y yo en la segunda, con Pío Zatarain, anduvimos para arriba y para abajo.

–¿Hicieron ustedes fuego?

– No; ni se nos pasó por la cabeza. Solíamos andar con sólo seis cartuchos.

Luego al sexto, mandado por Cipriano López Blanco.

–Cuando el zafarrancho de Santa Cruz, ¿en Larraul?

–Aquella misma noche estuvimos en Billabona. Muy de mañana nos encaminamos a Larraul. Nosotros salíamos del pueblo y entraba el cura. Venían detras de nosotros Santa Cruz y los muchachos que había reunido. Echaron mano a varios chicos nuestros que se habían rezagado.

Durante aquellos días nos hallábamnos en Zárate. Hacía grandes fríos y nosotros teníamos una sola manta para tres compañeros.

–Tendrían ustedes que dividirla en tres.

–Eso no. Los tres compañeros nos apretujábamnos y la manta por encima de los tres.

Además, nos tuvieron tres días sin suministro de víveres, (diciendo que) nos los había quitado Santa Cruz...

## **Azpeitiko gud-oletara**

## **A las industrias de guerra de Azpeitia**

Alako batean, batallioia formatuta zegola, esan zigun nagusiak:

–Opizioa dakitenak pauso bi aurrera.

Ni fundidore ta metal lanetakoa nitzan, ta beste batzukin batean bi pausoak egin nitun.

Azpeitira eraman giñuzten; an jarri baitzan gud-ola (maestranza).

220 (berreun ta ogei) langille bildu giñan. An egiten ziran kañoien kureña ta gurdiak, abereen tresnak, kartutxoak ta baita granaden muturreko *espoleta* diotena. Ni onetan ari nitzan.

–Ta orrenbesterentzat lanik sortzen al zan?

–Bai orixen: goizeko seiretatik gabeko amarrak arte. Orretarako, bazkari-gai ta erdi ta eguneko lau erreal ematen zizkiguten.

(Azpeitiko Agiñagak (c. iz.) dionez: «egunero 45 (berrogei ta bost) milla kartutxo betetzen ziran, erdiak berriak ta beste erdiak zarrak.

Neskak betetzen zituzten, su-auts zorroak (*saquetes*) kañoiai aotik sartzeko).

–Granadarik egiten al zenuten?

–Ez; oiek Beran ta Bakaikoan. Guk granada muturreko espoletak. Batean 27 kañoi ekarri zizkiguten. Berriak ere egin genitun eliz kanpanekin, bañan txarrak, kobrea falta zuten ta. Bizkaian egindakoak, berriz, kobre geiegi zuten. Bilbao setioko morteroak ekarri zizkiguten, aoko ertzak urratuta.

En esto, hallándose el batallón formado, nos dijo el mando:

–Los que sepan oficio, dos pasos al frente.

Yo era fundidor y metalúrgico, y a una con algunos otros di los dos pasos.

Nos llevaron a Azpeitia, porque se había instalado allí la industria de guerra (maestranza).

Nos juntamos doscientos veinte trabajadores. Se hacían allí las cureñas y los rodamientos de los cañones, los atalajes de los animales de tiro, los cartuchos y también lo que llaman espoleta, del extremo de las granadas. Yo me ocupaba en esto.

–Y ¿había trabajo para tantos?

–Vaya que sí, desde las seis de la mañana hasta las diez de la noche. Para eso, nos daban ración y media y cuatro reales al día.

(Según dice Aguinaga, de Azpeitia, se llenaban al día cuarenta y cinco mil cartuchos, la mitad nuevos y la otra mitad viejos.

Las chicas llenaban los saquetes de pólvora, para meterlos por la boca del cañón).

–¿Hacían ustedes granadas?

–No. Ésas, en Bera y Bacaicoa. Nosotros, las espoletas del extremo de las granadas. Una vez nos trajeron 27 cañones. Hicimos también nuevos con las campanas de las iglesias, pero malos, por falta de cobre. Los que hacían en Vizcaya, en cambio, tenían demasiado cobre. Los morteros del sitio de Bilbao nos los trajeron, con los bordes de la boca rotos.

## D. Luis Veriztain y D. Ramón Veriztain

---

D. Luis Veriztain, médico de Motrico, y su hijo D. Ramón Veriztain, joven abogado (Deusto).

Pasan una temporada en su caserío Berrezueta-goikoa, (donde viven los Gogorza).

25 Oct. 1928.

1873-garreneko udaran, Gasteiz (Bitori)-an negon, *bachiller* egiteko. Amazazpi urte nitun.

Orduñara jetxi nitzan. Velasco jeneralari aurkeztu ta laster, nik ezer uste ez nula, nere aita etorri ta jeneralari itz egin zion, ta neri ere esan zizkidan aula nitzala, asnasa larria nula ta abar, ta etxera Motrikura.

Laster erten nitzan berriz ta kadeteetan sartu Oñatin; gero Azpeitira ere aldatu giñan.

–Zenbat ziñaten?

–Eunen bat.

(La contraseña de la corneta era la misma que la del batallón liberal de Segorbe. Cuando este batallón se entregó en Portugalete, un corneta se quedó con los carlistas y fue quien impuso la contraseña).

–¿Somorrostron izan al ziñan?

–Ez. Sasoi artan (Motrikun?) nitzan, 9-garrenekoai guda legea erakusten.

Maiatzan-edo Arlabanen giñan. Andik ikusi genitun beltzak Estella aldera zijoaztela.

Noizbait ere batalloietara jun bear.

Andoainen zegon Inestrilla J. E. M. (Jefe del Estado Mayor). Onek neri eta nere aitari, berarekin geratzeko. Nik ezetz, batalloitara jun nai nula.

–Erosi zaiozu zaldia –esan zion Inestrillak nere aitari–; ta nerekin ederki egongo da.

Nik, alperrik ari zirala.

Azkenean esan zidan Inestrillak:

–Ezagutzen al dezu Zarate?

–Bai, nere laguna da ta.

–Bada zu bezela ari zan, jun bear zula ta jun zan, bañan bai aguro itzuli ere. Ementxe daukat berriz.

–Bada ni enaiz geiago etorriko.

Ala, zazpigarrenera bidali ninduten. Aian zegon. D. Karlos Folguera Lesarri nagusi.

En el verano de 1873 estaba yo en Gasteiz (Vitoria), haciendo el bachillerato. Tenía diecisiete años.

Bajé a Orduña. Me presenté al general Velasco y al poco, sin que yo lo supiera, vino mi padre y le habló al general, y también a mí me dijo que era débil, que jadeaba y otras cosas, y a casa a Motrico.

Pronto salí de nuevo y entré en los cadetes, en Oñate; luego nos trasladaron a Azpeitia.

–¿Cuántos erais?

–Unos cien.

(La contraseña de la corneta era la misma que la del batallón liberal de Segorbe. Cuando este batallón se entregó en Portugalete, un corneta se quedó con los carlistas y fue quien impuso la contraseña).

–¿Estuvo usted en Somorrostro?

–No. En esa temporada estaba (¿en Motrico?), enseñando a los del noveno la instrucción militar.

Creo que en Mayo estábamos en Arlabán. Desde allí vimos cómo se dirigían los liberales hacia Estella.

Por fin, tuvimos que integrarnos en los batallones.

Estaba en Andoain Inestrilla, jefe del estado Mayor. Él a mi padre y a mí, que me quedara con él. Yo, que no; que quería ir a los batallones.

–Cómprele un caballo –le dijo Inestrilla a mi padre– y conmigo estará muy bien.

Yo, que se empeñaban inútilmente.

A lo último, me dijo Inestrilla:

–¿Conoces a Zárate?

–Sí; es mi amigo.

–Pues se emperraba, como tú, en que quería irse y se fue, pero bien pronto volvió. Aquí lo tengo de nuevo.

–Pues yo no volveré.

Me enviaron así al séptimo. Estaba en Aya, bajo el mando de D. Carlos Folguera Lesarri.

## –Urnitán?

## ¿En Urnieta?

–Bai; Arrikarten. Andik jetxita ekin genien, Erregeren Bata-  
lloia “a cuchillo” sartu zanean.

Ara zer ikusi genun: Erregeren Batalloiko abek prisionero bat artu zuten, ta baita ill ere: kapitanak ikusi zun, bañan galerazi ez.

Gure Folguera kapitan arren aurka oso sutu zan. Kapitana zaragozatarra zan, ta Folguera guda ondoren Zaragozara jun zan bizitzera. Ez omen zion an ere beñere itzik egin, gizona iltzen utzi zulako.

–Sí; en Arrikarte. Bajamos de allí y atacamos, cuando el Batallón del Rey entró a cuchillo.

He aquí lo que vimos: estos del Batallón del Rey hicieron un prisionero y lo mataron; el capitán lo vio, pero no lo impidió.

Nuestro Folguera montó en cólera contra aquel capitán. El capitán era zaragozano, y después de la guerra Folguera marchó

a vivir a Zaragoza. Pues dice que tampoco allí le dirigió nunca la palabra, porque había permitido que mataran a un hombre.

## **-Meagetakoan?**

## **¿En lo de Meagas?**

Baita ere. Zumai aldetik. Iturbe zan Meaga gañean. Gu Ira-etara jetxi. Urrengo egunean, Arroako etxeetan.

Egoardi zan. Bazkalondoan, Folguera-ta kafea artzen ari zirala, Zumaiako apaiza beteurrekoaz (antejoekin) begira, «Badijoaz gora» esan zun.

-Zer da?

Artadi aldera gora zijoazten. Bereala Folguerak “llamada a la carrera”, ta Arroatik erten erazi ta Ibiñarrietan jarri gindun.

-Ez al ziran beltzak Artaditik Zumaiara jun?

-Ez. Ezin ere gu Ibiñarrietan giñala. Ibaia bitarte zuten. Ez zan Txikiardiko zubia besterik Oikiñako aurrean, ta emendik Zumaiara gure azpitik igaro bearrak ziran. Su egin genien.

-Buruntzan?

También. Por la parte de Zumaya. En el Alto de Meagas estaba Iturbe. Nosotros bajamos a Iraeta. Al día siguiente, en las casas de Arrona.

Era mediodía. En la sobremesa, estando Folguera y demás tomando café, el cura de Zumaya miraba con los prismáticos y dijo:

-Ya marchan para arriba.

-¿Qué pasa?


Iban para arriba, hacia Artadi. Folguera ordenó enseguida “llamada a la carrera”, y nos hizo salir de Arrona y nos situó en Ibiñarrieta.

-¿No fueron los liberales de Artadi a Zumaya?

-No. Ni podían, estando nosotros en Ibiñarrieta. Se les interponía el río. No había más puente que el de Txikiardi

delante de Oikina, y de aquí a Zumaya tenían que pasar por debajo de nosotros. Les disparamos.

—¿En el (monte) Burunza?



**—Ez al ziñaten  
Probintziatik irten?**

**—¿No salieron ustedes  
de la Provincia?**

—Bai. Bizkai aldera jun giñan, 1875-garreneko udara berrian. Valle de Mena-n ibilli giñan. Andik etorri giñan “a marchas forzadas”, Getariko asaltora, Maiatzaren 13 ta 14-an.

(Pirala: T. VI, LVI, pág. 330, donde se relata el doble asalto de los carlistas).

Eldu giñan, bada, ta asaltorako gertuta geunden, morralak-ta lagata... Azkenean, uts.

–Sí. Fuimos hacia Vizcaya, en la primavera de 1875. Anduvimos en el valle de Mena. De allí volvimos “a marchas forzadas”, al asalto de Guetaria, el 13 y 14 de Mayo

(Pirala: T. VI, LVI, pág. 330, donde se relata el doble asalto de los carlistas).

Llegamos, pues, y estábamos preparados para el asalto, descargados de los morrales y demás. Pero al final, nada.

## Urkabe

(Pirala: T. VI, LXVI, pág. 384 y nota 13).

An ere bururik gabe ibilli giñan. Irailla (Septiembre)-ren 15-an. Egun sentirako, bat-batean eta ixil-ixilik sartu zitzaizkigun etsaiak. Guk, zer edo zer bazala-ta, zer zan jakin orduko, mikeleteak Urkaben ziran.

(Egun aietan Probintziko guda-nagusi aldaketa: D. Eusebio Rodríguez etorri zan Egañaren ordezt).

Txoritokietan?

28 (Spt.) Irailla.

(Pirala: T. VI, LXVI, pág. 384 y nota 13).

También allí anduvimos sin cabeza. 15 de Septiembre. Al amanecer, se nos echó encima el enemigo de repente y con el mayor sigilo. Nosotros sentimos que pasaba algo, pero para cuando nos dimos cuenta, los miqueletes estaban en Urkabe.

(Por aquellos días hubo relevo de general en jefe de la Provincia: vino D. Eusebio Rodríguez en sustitución de Egaña).

¿En Choritoquieta? 28 de Septiembre.

# S. D. Fernando M<sup>a</sup>. Álvarez

---

Pres. coadjutor de S<sup>a</sup>. María (S. S.)

y D. Lucas, su hermano (itxua izana) (que fue ciego).

Alkizatarrak dira. Apaiz zarrak.

Alkizatarrak eta Álvarez abizena?

Bai; oien aita, bizargillea, Kastillatarra, ta an suertatu zan. Zarrena (Lukas), karlistetan ibillia. Bestea mutil koskorra zan artean.

1928, Azaroaren 14-an.

–Artsalde on.

–Ernialden 44 urte izan naiz abade.

–Santa Cruz-en urrengoa izan al ziñan?

–Ez; bitarteko bi edo iru izan ziran. Ni 1880-garrenean sartu. Alkizan, mutil koskor nitzala, ezagutu nun; ta, badakizu, entiarrotara-ta etortzen zan Ernialdetik, ta orrelakoetan meza lagundu izan nion.

Guda asi zanean, ni Arantzazun ikasle nitzan. S<sup>a</sup>. Cruz an agertu zan; Motxoni paloak eman zizkion; an giñan. Partidan beste nere lagun batekin sartu nai izan nun, bañan apaizak gazteegiak giñala ta berak ibiltaldi aundiak egin bear izaten zituztela, amabi ta amabost legua egun batean ta...

Son naturales de Alquiza. Sacerdotes ancianos.

¿De Alquiza y apellidados Álvarez?

Sí; su padre era barbero, castellano, y le tocó allí. El mayor, Lucas, anduvo con los carlistas. El otro era aún un muchacho.

1928, Noviembre 14.

–Buenas tardes.

–Fui cura de Ernialde durante cuarenta y cuatro años.

–¿Fue usted el siguiente a Santa Cruz?

–No; entre él y yo hubo dos o tres. Yo entré en 1880. Lo conocí en Alquiza, siendo yo muchacho. Ya sabe: en los entierros y ocasiones semejantes venía de Errialde, y en tales casos le ayudé alguna vez a misa.

Cuando empezó la guerra, yo era estudiante en Aránzazu. Allí apareció Santa Cruz; (ordenó) darle palos a Mochón; allí estábamos. Quise entrar en la partida con otro amigo mío; pero el cura (nos dijo) que éramos demasiado jóvenes; que ellos solían tener que hacer grandes caminatas, doce y quince leguas en un día...

### **–Alkizakoa izan zanean?**

–Ni Arantzazun.

–Ez al da Alkitzan gauz oien berri dakienik?

–Bai; Mari-Antonenen, eliz ondoan, bizi da. († 1928 udarran).

Gizon au S<sup>a</sup>. Kruzekin ibilli zan, ta Lizartzan (Garillaren 19-an) gertatu zan Ilarioekin. An il zuten, orma gañetik salto egiterakoan. 30.000 erreal zeramazkin berekin.

(V. Olazábal: *El cura Santa Cruz guerrillero*, XXIII, pág. 459).


Beltzek Ilarioenak erdian artu zituzten. Gure Alkizatar au bide alboan (*cuneta*) etzan egin zan, bañan bazetozten bide aurrera etsaiak, agintaria aurrean zaldi gañean zutela; ta, gañean zitula, bat-batean jaiki ta zaldi gañekoari fusilla aurrean jarri ta esan zion:

–¡Cuartel o matar!

–¡Hay cuartel! –erantzun zion, ta preso artu zuten.

Gero Zeutara eraman zuten, lan gogorretara (*a trabajos forzados*) ta ez zan geiago gudari izan.

–Yo (estaba) en Aránzazu.



—¿No hay en Alquiza quien sepa de aquellos sucesos?

—Sí; vive en Mari-Antonene, junto a la iglesia, († en el verano de 1928).

Este hombre anduvo con Santa Cruz, y coincidió con Hilario en Lizarza, el 19 de Junio. Allí lo mataron, al saltar de encima de una pared. Llevaba consigo 30.000 reales.

(V. Olazábal: *El cura Santa Cruz guerrillero*, XXIII, pág. 459).

Los liberales rodearon a los de Hilario. Este Alkizatarra se tumbó en la orilla del camino, en la cuneta, pero venía camino adelante el enemigo, con su jefe a caballo en primera fila; y cuando los tenía encima, se levantó de pronto y al que venía a caballo le puso el fusil delante y le dijo:

—¡Cuartel o matar!

—¡Hay cuartel! —le respondió, y le hicieron prisionero.

Después lo llevaron a Ceuta a trabajos forzados, y nunca más fue soldado.

## D. Pedro Guibelalde

–Ezagutu al zenun D. Pedro Gibelalde?

–Bai, ta asko ere.

–Askotan galdetu det nungoa zan ta ez dit iñork esaten.

–Ez da arritzekoa. Gibelalde Tolosako tornukoa zan, ta Amezketako Basarri-txulo diotenekoak artu ta azi zuten. 1849 urtekoa (gutxi gora-bera). Gaztetandik izan zan irakasi zalea.

Ni Arantzazun nitzala, Bergarara joaten giñan esamiñetara. Pralleak latiña-ta erakusten zituzten; bañan bestelakoetarako, fisika-ta, Gibelalde artu zuten.

Ez zun luzaro iraun. Ara zer gertatu zan. Arantzazun otz gogorrek egiten ditu ta an bizi giñan ikasleak, pralle ez giñanak, berotu nai genun ta batzuk sukaldera joaten asi ziran.

Sukaldari bi pralle zar ziran: bat oso erdalduna, euskeraz ez zekin, ta bestea, berriz, oso euskalduna. Alkarrekin lana nola egin zezateken nik ez dakit.

Alako batean, ikasle deabru batek esan dio erdaldunari:

–Ez dakizu beste orrek zutzaz zer esan ditun.

–Zer bada?

–Baratxuri zopa egiten ere ez dakizula.

Asarretu da ta ekin dio euskaldunen aurka. Onek, deadarrak-eta entzundakoan, galdetu die ikasleai zer zekarren. Ikasleak, berriz, gezur berria sortuaz, esan zioten:

–Zure aurka izugarria dago.

–Zer bada?

–Ara: arraultzak prejitzen ere ez dakizula, ta orrelakoetan ari da.

–Arraultzak prejitzen ere ez dakitela? Ta berak zer daki?

Orrela, euskaldunak ekin dio. Bat erderaz deadarka, ta bestea berdin euskeraz. Batek besteak zer zion aditzen ez zula. Ikasleak par lerrean.

Konbentuko nagusi frai Eliasek mutillak geiago sukaldera ez joateko erabaki du. Orduan, berriz, Gibelalde irakaslea, mutilen alde:

–Otzak ill bear dute, sukaldera joaten ez badira ta...

Nagusiak ezetz ta Gibelaldek baietz, ta atzenean konbentutik bota egin zuten.

–¿Conoció usted a D. Pedro Guibelalde?

–Sí, y mucho.

–Muchas veces he preguntado de dónde era y nadie me lo dice.

–No es de extrañar. Guibelalde era del torno de Tolosa y lo adoptaron y criaron los del caserío Basarri-txulo, de Amézqueta. Del año 1849, poco más o menos. Le gustó desde joven la enseñanza.

Estando yo en Aránzazu, íbamos a examinarnos a Bergara. Los frailes enseñaban latín y cosas así; pero para otras asignaturas, física y demás, tomaron a Guibelalde.

No duró mucho. He aquí lo que pasó. En Aránzazu hace mucho frío y los estudiantes que residíamos allí, los que no éramos frailes, queríamos calentarnos y algunos empezaron a ir a la cocina.

Eran cocineros dos frailes viejos, el uno castellano cerrado, que no sabía vascuence; y el otro, vasco cerrado. No sé cómo podían trabajar juntos.

En una de éstas, un diablo de estudiante le dijo al castellano:

–No sabes las cosas que ése ha dicho de ti.

–¿Qué ha dicho, pues?

–Que no sabes hacer ni siquiera una sopa de ajo.

Se enfada y la emprende contra el vasco a gritos. Éste al oírle, les pregunta a los estudiantes qué pasa. Y el estudiante, inventando una nueva mentira, le dice:

–Está terrible contra ti.

–Y ¿por qué?

–Mira: dice que no sabes ni freír huevos, y cosas parecidas.

–¿Que no sé ni freír huevos? Y él, ¿qué es lo que sabe?

De ese modo, acomete también el vasco. El uno gritaba en castellano y el otro en vascuence, sin que entendiera el uno lo que decía el otro. Los estudiantes se destornillaban de risa.

El P. Guardián del convento, fray Elías, dispuso que los chicos no fueran más a la cocina. Pero entonces el profesor Guibelalde salió a favor de los chicos:

–Se van a morir de frío, si no van a la cocina...

El Guardián que no y Guibelalde que sí, y al fin lo despidieron del convento.

## **Erastorbe (Mugertza)-ren partidariak**

## **En la partida de Erastorbe (Muguerza)**

Oñatiarra; 21<sup>1</sup> urteko mutil zangarra.

Oñatin burruka gogorra izan zanean (Pazkoa bigarrenean?), karlotar lau gaxotegian artu zituzten. Goardiak an zirala, Mugertzak, gabez, etxe atzetik ateratu zitun gaxoak. Orrekin asizan Mugertza ots egiñaz.

Natural de Oñate; un muchachote de 21<sup>1</sup> años.

Cuando el fuerte combate que se libró en Oñate (¿el segundo día de Pascua?), llevaron a cuatro carlistas al hospital. A pesar de los guardias que allí había, Muguerza sacó de noche a los hospitalizados, por detrás de la casa. Con eso empezó a sonar el nombre de Muguerza.

---

<sup>1</sup> Apalategiren esku-idatzian ez da ondo irakurtzen 21 ala 27 dion. (Argitaletzailearen oarra).

<sup>1</sup> No se entiende bien, en el manuscrito de Apalategui, si dice 21 o 27. (Nota del editor).

# Iruretar Simon

Simón Irure

---

Aizarna. Irure etxea.

Ni Tertzioetan ibilli nitzan. Nere ama alarguna baitzan ta. Nere anaia, berriz, Aizpuruekin.

Aizarna. Casa Irure.

Yo anduve en los Tercios. Es que mi madre era viuda. Mi hermano, en cambio, con Aizpuru.

## Tertzioa

## El Tercio

Zestuako D. Luis Etxaide (Gezalako ostatukoa) gendun kapitana. Igandero, ta baita jaietan ere, kalera etortzen giñan iñarkunetara. Gero pusillak etxera. Jiratorio zarrak.


-Ta guda jantzia zuen dirutik?

-Ez genun guda jantzirik.

-Nora ertetzen ziñaten?

-Zumaiara, Debara... Azkenean, berrogei ta amarreraño-koak sartu ziranean, ordekoa jarri genezaken. Amabost duro edo.

-Ez al zenuten beñere su egin?



–Bai; bein Meagetan. Beltzak Getari aurrera ekin ta Garate artu ta Meagetara jexita... Meaga aurrean, Indamendi aldera, bada kaxko bat (+). An zegon parapetoan bizkaitar konpañi bat. Larogeiren bat izango ziran. Su galanki egiten zuten. Aiei laguntzera bidali giñuzten gu, berrogei-edo. An ari giñan. Gure pusill jiratorioak bide gutxira botatzen zituzten balak, ta orregatik esan ziguten oso goruntz botatzeko. Bañan etsaiak Garate gañean kañoiak ipiñi ta granadak botatzen asi zitzaizkigun. Granadak, gure buru gañetik, Artzañora. Orduan alde egiteko ta Indamendi gora jun izan bear genuen.

Teníamos de capitán a D. Luis Echaide, de Cestona, de la Fonda Guezala. Todos los domingos, y también en las fiestas, veníamos al pueblo a hacer la instrucción. Luego los fusiles a casa. Unos giratorios viejos.

–¿Y el uniforme, por vuestra cuenta?

–No teníamos uniforme.

–¿A dónde salían ustedes?

–A Zumaya, a Deba... Al final, cuando entraron hasta cincuenta, podíamos poner un sustituto. Unos diez duros.

–¿No dispararon ustedes nunca?

–Sí. Una vez, en Meagas. Los liberales atacaron desde Guetaria, tomaron Gárate y bajaron a Meagas. Delante de Meagas, hacia el monte Inda, hay un cerro (+). Estaba allí parapetada una compañía vizcaína. Serían unos ochenta. Hacían un fuego muy intenso. A nosotros, unos cuarenta, nos enviaron a ayudarles. En ello estábamos. Nuestros fusiles giratorios disparaban las balas a poca distancia, y por eso nos avisaron que tiráramos muy alto. Pero el enemigo situó unos cañones en el alto de Gárate y empezó a lanzarnos granadas. Las granadas pasaban por encima de nuestras cabezas hacia Artzaño. Entonces nos dieron orden de retirada y tuvimos que ir monte Inda arriba.

## Gertaerak

## Anécdotas

Getariko semea zan Egaña jenerala. Getarin bada baserria, Muñozkoa izena. Egaña Muñozkoen oso adiskide zan. Alako batean, papertxo bat eman ta Oiartzunara Egañarengana joateko esan zidaten. Papertxoa artu ta jun nitzan, bada. Egañak papertxoa irakurri ta bereala amabi ontzurre egiñak ta beste ontzurre erdi bat eman zizkidan, Muñozkoai eramateko. Baita nik eraman ere.

El general Egaña era hijo de Guetaria. Hay en Guetaria un caserío llamado Muñozkoa. Egaña era muy amigo de los de Muñozkoa. En esto, me entregan un papel y me dicen que vaya a Oiartzun, a donde Egaña. Tomé el papel y marché. Egaña leyó el papel y me entregó enseguida doce onzas de oro, más una media onza, para llevárselas a los de Muñozkoa. Así lo hice.

## Nere anaia

## Mi hermano

Andoain aldean-ta zala, ama noiz edo noiz joaten zitzaion diru pixka bat-edo eramatera. Alako batean, nere anaiak eta beste zazpi mutillek etsaiaren idi gurdia jan gaiez betea arrapatu dute. Idiak-eta saldu ta erdia mutillentzat zala, ta bai eman ere. Orrelakoan ama joan zitzaion ta oraingoan semeak amari eman zion bost durokoa.

† 1929

Cuando estaba hacia la parte de Andoain, nuestra madre le visitaba de vez en cuando, para llevarle un poco de dinero o algo así. En cierta ocasión, mi hermano y otros siete muchachos se apoderaron de una carreta de bueyes del enemigo, llena de provisiones. Los bueyes y demás los vendieron y que la mitad era para los chicos y se la dieron. Estando así, la madre fue a verle y esta vez fue el hijo quien le dio a la madre cinco duros.


† 1929

# Excursión a la línea carlista de San Sebastián

---

10 Abril 1929.

El joven Cruz Urbistondo preparó la excursión enterándose del camino, de personas que pudieran informar, etc.



Saliendo por la carretera de Tolosa, frente al Asilo Matía, arrancaba en Zapatarri el antiguo camino de Usúrbil.

Zapatarriko gizon zarra, karlistetan ibillia. Gañera, Luis, Zeraingoa, “guarda de campo”, gizon prestua. Abek eraman giñuzten.

Donostitik Usurbillako bide zarra Zapataritik Bidartera. Orain karretera berria dagon zati batean; gero, bide zarra artu bear.

Mikeleteak-eta, Usurbil beren mendean izan zuten artean, emendik ibilli oi ziran. (Ez Añorgatik).

Bidarteko ondoan, bada, fuerte izandakoen aztarna; lubaki zuloa inguruan ederki igertzen zaio.




Aita Apalategi bere berri emale batzuekin.  
El padre Apalategui, con algunos de sus informadores.

Bidarten arkitu genduan gizon bikain bat. Gudatean 14 urte zitun, gizon argia. Orrek esan zigun:


—Oraingo Bidarte berria da. Zarra, an urrean dago. Beltzak erre zuten, karlistak emendik su egin zietelako-ta. Ara: emen, Bidarte zar aurrean, ementxe, etxe aurrean, il zuten Zarauzko Gorria. Ilbeltzaren 29-an. Nola izan zan gero ikusiko degu.

Goazen Usurbilko bide zar aurrera. Muño gañean, Elor. Lizasoaintarrak or izan dute beitegi aundia. Ezkerraxeago, Barkaiztegi zarra, (errea), ta beste pixka bat ezkerrerago, B. berria. Aurrerago, Zelaiaaundi; ta azpiko sakonean (?), eskura ageri dira Arizaleta ta Bordatxo ta... Mendizorrotzerañoko errenkada gutzia.

Zelaiaaundi azpiko sakonean dagon etxerañ, Donostiko ta Usurbilko muga-arriak inguru artan daude, sartu ziran beltzak, bañan andik gorakoan ixtilluak. Noiz edo noiz karlotarrak erten ta ekin ta botatzen zituzten beko etxe orretarañ. Iru aldiz egun artan.



El viejo morador de Zapatarí, que anduvo con los carlistas: Además, Luis, de Zerain, "guarda de campo", gran persona. Estos nos guiaron.



El camino viejo de San Sebastián a Usúrbil, (iba) de Zapartari a Bidarte. Ahora hay carretera en un trozo; luego hay que tomar el camino viejo.

Los miqueletes y demás, mientras tuvieron a Usúrbil bajo su poder, andaban por aquí. No por Añorga.

Junto a Bidarte se ven claramente los restos de lo que fue un fuerte; se aprecia muy bien una zanja o trinchera en torno.

En Bidarte encontramos una gran persona. Cuando la guerra tenía catorce años, un hombre inteligente. Éste nos dijo:

—El actual (caserío) Bidarte es nuevo. El viejo está allí cerca. Lo quemaron los liberales, con el pretexto de que los carlistas les habían disparado desde allí. Miren: aquí, delante del Bidarte viejo, aquí mismo, delante de la casa, mataron al Rojo de Zarauz. El 29 de Enero. Cómo sucedió lo veremos después.

Vayamos adelante por el camino de Usúrbil. Sobre la colina (el caserío de) Elor. Los Lizasoain han tenido ahí una gran vaquería. Un poco hacia la izquierda, Barkaiztegui el viejo, quemado; y algo más a la izquierda, Barkaiztegui el nuevo. Más adelante, Zelayaundi, y en la hondonada de abajo, a mano derecha, aparecen Arizaleta, Bordacho y... toda la línea hasta Mendizorrotz.

Hasta Zelaiaundi, la casa que está en el fondo de la vaguada, (por ahí están los mojones de San Sebastián y Usúrbil), llegaron los liberales, pero de ahí para arriba empezaban los problemas. De vez en cuando salían los carlistas, les atacaban y los echaban hasta esa casa de abajo. Por tres veces, en aquel día.

# “Pikoaga”, Azpeitiko uztargillea

“Pikoaga”, el yuguero (fabricante de yugos) de Azpeitia

---

Arzubian du bere lantegia. Gizon gordiña dago.

–Gure etxe atarian, Pikoagan, alkartu ziran Azpeiti ta Azkoitiarrak lenengo irtenaldian.

Nere etxean, Azkoitiko Pikoagan, bizi nitzan, emengo guda asmoak asi ziranean. Amasei urte nitun. Askotan Basterrika-ta partidarekin gure etxera etorri ta ni goardian jartzen ninduten.

–Ostegun gizen egunean?

–Oraindik etxean nitzan. Gure etxe ataritik ikusten genituan Elgoibartik beltzak zetoztela Aingeru Goardakoraño; andik, bizabala utzi, batzuek beintzat, eta ezkertera, kanposantura, artu zuten.

Noizbait ere, Basterrikarekin sartu nitzan. Ordurako nere anai zarragoa an zan.

Basterrika au, batalloiak egiterakoan, preso artu zuten, diru kontuak garbi ez zitula ta... bere mutillak bigarreneira.

Zarautzen giñan. Billafrankara. Estellaruntz. Billafrankatik Altsatsura abiatzerakoan, ogi bi artu nitun, nerea ta anaiarena. Biak jan nitun aldapa goran.

Estellan, S. Agustiñetan. Liberalen konbentua erre zen. Naparrak zaldizko asko zituzten. Oñezkuak, asko pusillik gabe. Esan ziguten guk pusillai ondo kontu egiteko, bestela naparrak ostu egingo zizkigutela ta. Baita lotarakoan ere, guk gure alboan pusilla beti (jiratorioa).

Plazentzira armak berritzera. Loiolan Jaunartzean. Tolos aurrera. Txoritokietan (Ernio pean). Laborda komandante (zarretakoa) Fraisoroko aurrean zan ariztegian, zauritu zuten (Laborda au) Morionesenak (Abenduan?). Kamillarik ez genula ta makil sendo bi, ta gerrikoa zutenek kenduta, jarri gendun, ta Alkizara.

Andik Ernio gora. Zuzen-zuzen, biderik gabe, zamabidean geraman, otak arpegian zulatzen zutela, bañan ez zun ezer esaten. Ia goian giñala, gure eskuira gizon salla. Laborda larritu zan.

–¿Zein ote dira?

Pixka bat geratu giñan, bañan gureak zirala igarri genien. Zelatun gañean, Lizarraga ta gu batean gertatu giñan. Agur onak alkarri egin ta Errexillera.

Aldapa bera onetan, gizona, Laborda, atsedean zijoan. Bildurra joan zitzaion noski, ta pollikixeago ibiltzeko zion. Aldapa gorakoan ez zun orrelakorik esaten.

–S<sup>a</sup>. Cruz. Belabitakoan?

Billabonara gabeko ordu bietan. Barrika gañean zutik zala, mutillai itzaldi egin.

–Estellara?

Bai. Iru egun lubaki zuloan egon giñan. Gure zaurituak Estellara zeramazkiten zubirañon, bañan andik Iratxera nork eraman ezin arkitu. Estellatarrak igesi joan ziran, liberalak erriyan sartuko ziralakoan. Andik erten ta Ziraukira joateko; bañan ezin ibilli giñan.

–Zer bada?

–Iru egun kuxkurtuta egon giñalako...

Eskintza mendin kañoiak jarri zituzten eta andik egiten ziguten kalterik aundiena.

–Ernanin?

–Ez.


–Irungoan?

–Gu Txoritokietan, goiko arkaitzetan. «Goazemak emendik, bakarrik gaotxik ta».

Urnietan?

–Bai. Goiburun.

Loma Getaritik Buruntzaraño. Ilbeltzaren azkenekoetan ta Otsaillaren lenengoetan.



Etsaiak itxasoz Getarira. Ortik Garate ta Meagak artu. Zarautzara jetxi.

Gu Iñurritzan (Zarauzko Sn. Pelaio), Agerretako atarian. Egun artan ollo bat geregianatu gendun ta jateko asmoan giñan. Goizeko amaika ta erdiak izango ziran. An etorri zitzaigun gure-tako opiziale bat zaldi gañean laxterka: andik alde egiteko len-bailen.

–Zer da bada?

–Atzetik datozkizue etsaiak ta gañean dituzute.

Alaxe zan ere. Guk ez genitun ikusten gure aurretik zeude-nak besterik; bañan besteak Oriotik zetozten.

Amasko-etxeberrira. Ara mikelete ta soldadu xarrak. Aiara. Atxokon iru egun.

Laster aldatu nitzan Diputazioko konpañira. Iru anai giñala guda mutil, ta irutik bat aske (libre) izan zeikiela ta...

Tiene su taller en Arzubia. Es un hombre bien conservado.

–A la puerta de nuestra casa, en Pikoaga, se juntaron los azpeitianos y los azcoitianos en el primer levantamiento.

Yo vivía en mi casa, en Pikoaga, de Azcoitia, cuando se empezaron a moverse para la guerra. Tenía dieciséis años. Muchas veces, Basterrica y demás venían con su partida a nuestra casa y me ponían a mí de centinela.

–¿El día de jueves lardero?



—Aún estaba yo en casa. Desde la puerta de nuestra casa veíamos que los liberales venían de Elgóibar a la ermita del Ángel de la Guarda. Desde allí, dejaron la carretera y, algunos al menos, tomaron hacia la izquierda, hacia el cementerio.

Me enrolé, al fin, con Basterrica. Mi hermano mayor estaba para entonces con él.

A este Basterrica lo detuvieron al formarse los batallones, alegando que las cuentas no las llevaba con limpieza, y... a sus muchachos los integraron en el segundo (batallón).

Estábamos en Zarauz. A Villafranca. Hacia Estella. Al ponernos en camino de Villafranca a Alsasua, tomé dos panes, el mío y el de mi hermano. Me los comí los dos en la cuesta arriba.

En Estella, por los días de San Agustín (28 de Agosto). Se quemó el convento (cuartel) de los liberales. Los navarros tenían muchos de a caballo. Muchos de los de infantería estaban sin fusil. Nos advirtieron que cuidáramos bien el fusil, porque de lo contrario nos lo robarían los navarros. Hasta para dormir, (teníamos) nosotros el fusil, de los giratorios, al lado.

A Plasencia, a renovar las armas. En Loyola en la Comunión. Delante de Tolosa. En Txoritokieta, debajo del (monte) Ernio. Al comandante Laborda, de los veteranos, lo hirieron los de Moriones en el robledal que había delante de Fraisoro (¿en Diciembre?). Que no teníamos camilla y se la improvisa-

mos con dos palos recios y quitándose el cinturón (o la faja) los que lo tuvieran, y a Alquiza.

De allí, (monte) Ernio arriba. Lo llevábamos derecho, sin camino, por una senda de carga, mientras las árgomas le pinchaban en la cara, pero él no decía nada. Cuando ya estábamos casi arriba, (divisamos) a nuestra derecha un tropel de hombres. Laborda se alarmó.

—¿Quiénes son?

Nos detuvimos un momento, pero nos dimos cuenta de que eran de los nuestros. En el collado de Zelatun, coincidimos Lizarraga y nosotros. Nos dirigimos buenos saludos y hacia Régil.

Bajando aquella cuesta, nuestro hombre, Laborda, iba relajado; claro, se le había pasado el miedo, y pedía que fuéramos más despacio. Cuando la cuesta arriba, no decía eso.

—Santa Cruz. ¿En lo de Belabieta?

—A Billabona, a las dos de la noche. De pie sobre una barrica, les dirigió una arenga a los chicos.

—¿A Estella?

—Sí. Estuvimos tres días en la zanja de la trinchera. Nuestros heridos los llevaban a Estella hasta el puente; pero no se podía encontrar quien los llevara de allí a Irache. Los estellese se habían largado, creyendo que los liberales entrarían en el pueblo. Que saliéramos de allí y marcháramos a Cirauqui; pero no podíamos andar.

—¿Por qué no?

—Porque nos habíamos pasado tres días acurrucados.

En el monte Esquinza emplazaron los cañones y el mayor daño nos lo hacían desde allí.

—¿En Hernani?

—No.

—¿En lo de Irún?

–Nosotros en Choritoquieta, en las rocas de la cima. «Vámonos, que nos hemos quedado solos».

–¿En Urnieta?

–Sí. En Goiburu.

(El general) Loma de Getaria a Burunza. A finales de Enero y comienzos de Febrero.

El enemigo por mar a Guetaria. De ahí, tomó Garate y Meagas, y bajó a Zarauz.

Nosotros en Iñurritza (en San Pelayo, de Zarauz), a las puertas de Aguerreta. Aquel día nos habíamos procurado una gallina y pensábamos comérmola. Serían las once y media de la mañana. Se nos presentó un oficial de los nuestros, montado en un caballo y a galope: que nos largáramos de allí cuanto antes.

–Pues ¿qué ocurre?

–Que el enemigo se os acerca por la espalda y lo tenéis encima.

Así era. Nosotros no veíamos más que a los que teníamos delante; pero los otros venían de Orio.

A Amasko-etxeberri. Allá venían los miqueletes y los soldados. A Aya. Tres días en Atxoko.

Me trasladé pronto a la Compañía de la Diputación. Que estábamos movilizados tres hermanos, y que uno de los tres podía quedar libre...

# Juan José Egaña


---

Arechabaleta. Barrio Galarza.

13 Junio 1929. Azkoitik aruntz, Altzibarren nebillela, ikusi nun bizar txuri gizon bat. Beste askori bezela, galdetu nion karlistetan ibillia zan. Baietz...

–Santa Kruzekin. Prantzira. Berriz etorri. Batalloien ez-ize-nak esan zizkidan:

- 1.- Noranai.
- 2.- Poco miedo.
- 3.- (bela batalloia) ez zitzaion gogoratu.
- 4.- Baezpada.
- 5.- Jan ta lo.
- 6.- Lapur batalloia.
- 7.- ?
- 8.- ?
- 9.- Negarrezkoa.



Mendizorrotz. Lenengo lubakia utzi gendun ta berak zuloan sartu ziran; bañan gure aldetik ez baitzun zotalik, eta agerian geratzen ziran.

Elgoibarren S. Iñazio egunean. Andik Lizarraga Markiñara abiatu zan.

Urrengo egunean goizeko lañua zan, ta Azkoititik Sánchez Bregua Elgoibarrara, iñork igarri gabe. Ia-ia Alkortaren partida arrapatu zun.

Libra bat aragi; libra t'erdi ogi; kuartillo bat ardo.

13 Junio 1929. De Azcoitia para allá, estando paseando en Alcibar, vi a un hombre de barba blanca. Como a tantos otros, le pregunté a ver si había andado con los carlistas. Que sí...

—Con Santa Cruz. A Francia. Vuelta otra vez. Me dijo los apodos de los batallones:

- 1.- A donde sea.
- 2.- Poco miedo.
- 3.- ( ? ) No le vino a la memoria.
- 4.- Por si acaso.
- 5.- Comer y dormir.
- 6.- El batallón de los ladrones.
- 7.- ?
- 8.- ?
- 9.- El de llorar.

Mendizorrotz. Abandonamos la primera trinchera y ellos se metieron en la zanja; pero como hacia nuestro lado no tenía tepes, quedaban al descubierto.

En Elgóibar, el día de San Ignacio. Lizarraga partió camino de Marquina.

Al día siguiente había niebla mañanera, y Sánchez Bregua de Azcoitia a Elgóibar, sin que nadie se diera cuenta. Casi le echa mano a la partida de Alcorta.

Una libra de carne; libra y media de pan; un cuartillo de vino.

# Orixekoa

## El de Oreja

---

S. Inaziotan Loiolara etorrira, ta itz egiteko aukera izan nun. 1929-garreneko S. Inazio egunean.

–Noiz sartu ziñan karlistetan?

–1873.

–Nun?

–Beasaingo Beltzaren partidán.

–Somorrostrora?

–Ez. Beasaingo Beltza ta Aramako Jose Martin, konpañi bi, Tolosa aurrean geratu. Gu sartu giñan Tolosan. Irugarren bata-lloia zetorrela, bidali giñuzten ta Durangon arkitu. Geroztik iru-garrenean.

–Estellara.

–San Juan egunean Salbatierran giñan. Urrengo egunean Altsatsura. 26-an goiz-goizetik erten ta artsaldeko ordu bietan Abarzuzan.

–Lubakirik bai al zan zuentzat?

–Utsa; orma txiki batzuk. Gabez etsaiak aurreko tontorrean (gure gain) ikusi genitun. Txakurtxulok konpañi bi bidali zitun, bañan alperrik. An ibili zan Txakurtxulo bere zaldi gañean gora ta bera. Balak mats onduetan ots.

–Urnietan?

–Bai; Goiburun (?).

–Lakarren.

–Gure ezker, naparrak; eskuira, kastillatarrak.

–¿Mendizorrotzen?

–Ez; gu Txoritokietan giñan.

Habiendo venido por la fiesta de San Ignacio a Loyola, tuve ocasión de hablar. El día de San Ignacio de 1929.

—¿Cuándo se alistó usted en los carlistas?

—En 1873.

—¿Dónde?

—En la partida de Beltza (El Negro), de Beasáin.

—¿A Somorrostro?

—No. Beltza, de Beasáin, y José Martín, de Amara, dos compañías, quedaron delante de Tolosa. Nosotros entramos en Tolosa. Que venía el tercer batallón, nos enviaron y lo encontramos en Durango. Desde entonces, en el tercero.

—A Estella.

—El día de San Juan estábamos en Salvatierra (de Álava). Al día siguiente, a Alsasua. El 26 salimos muy de mañana y a las dos de la tarde en Abárzuza.

—¿Había trincheras para ustedes?

—Nada; unas paredes bajitas. De noche vimos al enemigo en la colina de enfrente, dominándonos. Chacurchulo envió dos compañías, pero en vano. Allí anduvo Chacurchulo, sobre su caballo, para arriba y para abajo. Las balas hacían ruido en las vides.

—¿En Urnieta?

—Sí. En Goiburu (?).

—En Lácar.

—A nuestra izquierda, los navarros; a la derecha, los castellanos.

—¿En Mendizorrotz?

—No: nosotros estábamos en Txoritokieta.

# Maiordomokoa

## El de Mayordomo

---



Loiolako estazio gain-gañean.

Emengoa zan Uranga jenerala.

Encima de la estación de Loyola.

De aquí era el general Uranga.

20 años 1808: en Oviedo, con el general D. Nicolás May. Soldado distinguido.

1811: Oficial en el 1º. de Guipúzcoa, donde continuó hasta el fin.

1821: Pronunciamiento en Salvatierra de Álava.

1823: Coronel.

1830: Columna contra Mina. Acción en Arano, Artaza. Brigadier.

1833: 7 Octubre: proclama (Salvatierra) a Carlos V. 5 batallones.

1833, 15 Dc.: Decreto desde Portugal. Mariscal de Campo.

1833, 26 Dc.: Acciones de Nazar y Asarta.

1834, 16 Marzo: Frustrada acometida de Vitoria (con Zumalacarregui).

1834, 9 Julio: Entra D. Carlos. Ayudante de Campo. Proporciona a Z. armas (30.000), escuadrón de. . . .

1835: con Sagastibelza. Toma de S. Bartolomé (San Sebastián).

1837: Expedición Real. Capitanía Genl. de Navarra y Vascongadas.

1837, 28 Mayo: Toma de Lerín.

1837, 2 Junio: Ataca el flanco de Espartero, que perseguía a la Expn. Real.

1837, 18 Julio: Envía a Zaratiegui con 5 batallones y 150 caballos.

1837, Agosto: Peñacerrada.

1837, 14 Spt.: Andoain, Urnieta. Peralta, sitio de Lodosa.

1839, febrero: Expulsión a Francia.

Bitorian il zan, 2-garrena bañon lentxeago.

Zumalakarregirekin Billafranka aurrean zala, Azpeiti etsaien mendean zan, ta an bizi zitun emaztea ta semeak, Iberoren etxean.

Alako batean, 8 mutillekin etorri zan Azpeitira, gabez noski. Mutillak begiratu zituzten erri ondoko baztar ta Santutxoak ta, iñor ez zala jakiñez, sartu zan familia ikustatzera.

Seme bat, Elgetako abade nagusi.

Beste semea komandante, liberaletan! Ta onen semea, berriz, karlistetan.

Falleció en Vitoria, poco antes de la segunda (guerra).

Mientras estaba con Zumalacarregui delante de Villafranca, Azpeitia estaba en poder del enemigo, y allí vivían su esposa e hijos, en la casa de Ibero.

En esto, vino a Azpeitia con ocho chicos, de noche, claro. Los chicos inspeccionaron los rincones y ermitas próximas al pueblo y, habiendo comprobado que no había nadie, entró él a visitar a su familia.


Un hijo, párroco de Elgueta.

Otro hijo, comandante ¡en los liberales! Y el hijo de éste, en los carlistas.

# Epelarrekoa

El de Epelarre

---



Larogei urte baditu, bañan oraindik gizon gordiña.

-Noiz? Azkoitian, Ostegun Gizeneko zalapartan gertatu al ziñan?

-Ez; artean etxean nitzan. Oñaz aldekoa naiz, Ureta base-  
rrikoa.

-Ta Aizpurutxokoan?

-Ezta ere. Lizarraga-ta Pagotxetatik igesi zijoaztela jun  
giñan zer ote zan, ta mutill bat lurrean erituta geratua arkitu  
genun. Egarrri zala ta uda eskatu zigun, ta nere txapela udez  
beteta eraman niyon. Gogoz eran ere. Pazkoa bigarrena zan.

-Noiz sartu ziñan, bada?

-Laxter.

–Norekin? Alkorta edo Basterrikarekin, Uriakin?

–Ez. Kalatrarekin. Kalatras (D. Valentin Lizarraga) lengo gudako zaarretakoa zan. Billafranka aldeko paketeroa. Gurutzeta mendiko armak olaxen eman zizkigun ta aurrera!

–Zenbat ziñaten partidatan?

–Kalatras bera ta lau mutil.

–Zer egiten zenuten, bada, orren gutxik?

–Ibilli erriz erri, ta gudari izan nai zuten mutillak gereganatu.

–Partida geituko zenuten, bada, mutill oiekin.

–Ez; Kalatras S<sup>a</sup>. Kruzen aldekoa zan ta mutil berriak apai-zari Aritxulegira bialtzen zizkion.

Azpeitia artu gendunean, an geratu zan “comandante de armas”; ta gu bostgarren batalloira.

Tiene ya ochenta años, pero se conserva muy bien.

–¿Cuándo? ¿Se encontraba usted en Azcoitia, en el zafarrancho del Jueves Lardero?

–No; aún seguía en casa. Soy de la parte de Oñaz, del caserío Ureta.

–¿Y en lo de Aizpurucho?

–Tampoco. Cuando Lizarraga y demás marchaban huyendo por (el monte) Pagotxeta, fuimos a ver qué sucedía, y encontramos a un chico que había quedado herido en el suelo. Que estaba sediento y nos pidió agua, y yo le llevé mi boina llena de agua. La bebió con avidez. Era el segundo día de Pascua.

–¿Pues cuándo se alistó usted?

–Pronto.

–¿Con quién? ¿Con Alcorta, Basterrica o Uría?

–No. Con Calatras. Calatras (D. Valentín Lizarraga) era de los veteranos de la guerra anterior. Paquetero de la parte de Villafranca. Nos dio así las armas del monte Gurutzeta y jade-lante!

—¿Cuántos eran ustedes en la partida?

—El mismo Calatras y cuatro chicos.

—¿Pues qué hacían, tan pocos?

—Andar de pueblo en pueblo, y llevar con nosotros los muchachos que querían ser soldados.

—Pues aumentarían la partida con esos chicos.

—No; Calatras simpatizaba con Santa Cruz y los muchachos nuevos se los enviaba al cura, a Arichulegui.

Cuando tomamos Azpeitia, quedó allí como comandante de armas, y nosotros nos integramos en el quinto batallón.

## **Bosgarrenean**

## **En el quinto**

Lenengo nagusi Txakon; gero, berriz, Dabilla, (D. Casimiro Pérez Dávila).

Iru batalloi (2, 5 ta 6-garrenak) ta bi partida geratu giñan, bañan oso sakabanatuta. Gure konpañia, Tolosa gañean, Txoritokietan; bestea, Zaraten ta ala; alde batetik Getari aurrerañon ta bestetik Aritxulegiraño.

Ez zaizkit aztu negua gogortu zaneko otzak. Oraindik mantarik ez genu; ezta kapote gogorrik ere, blusa ariña baizik. Gabean, lo egingo bagenun, mutillak bata besteen gañean, alkar berotzeko.

Noizbait ere, beltzak Tolosatik ertetzeko asmo egin zuten; ta guk igesi joan bear zutenai kalterik ez egiteatik, bota ziguten mendi gora Zumetaren partida. Egun artan lurreratu genu ainbeste desapio egin zigun Zumeta.

Tolosa artu ezkerro, Andoaiñara aurreratu.

El primer jefe, Chacón; y luego Dabilla (D. Casimiro Pérez Dávila).

Quedamos tres batallones (el 2º, 5º y 6º) y dos partidas; pero muy desplegados. Nuestra compañía, sobre Tolosa, en

Choritoquieta; la otra, en Zárate y de ese modo; por un flanco, hasta delante de Guetaria; y por el otro, hasta Arichulegui.

No se me han olvidado los fríos de cuando apretó el invierno. Aún no teníamos mantas, ni tampoco capotes recios, sino blusas ligeras. A la noche, para poder dormir, los chicos nos amontonábamos unos sobre otros, para calentarnos mutuamente.

Por fin, los liberales se decidieron a salir de Tolosa; y, para que nosotros no causáramos daño a los que se retiraban, nos lanzaron monte arriba a la partida de Zumeta. Aquel día derribamos a Zumeta, que tanto nos había provocado.

Una vez tomado Tolosa, nos adelantamos a Andoain.

## **Ernani artzeko**

## **Para la toma de Hernani**

Somorrostrotik etorri dira batalloiak. Ez eraman ainbeste mutillekin. Maiatza zan. Ernani artu bear zala. Kañoiekin ekin genien. Donostitik bazetoztela Ernaniarraí laguntzera, ta andik zetoztenai gogor egiteko: gure 5-garrena Oriamendin (Donosti aldetik) Miramon palazioan jarri giñuzten. Baita su egin ere.

Han vuelto de Somorrostro los batallones. No con tantos muchachos como llevaron. Era Mayo. Que había que tomar Hernani. Empezamos con los cañones. Que venían de San Sebastián a socorrer a los de Hernani y que les hiciéramos frente a los que se acercaban: al quinto nos pusieron en Oriamendi, por la parte de San Sebastián, en el palacio de Miramón. Hicimos fuego.

## **Estellara**

## **A Estella**

San Juanak ziran. Estella aurrean burruka izugarria zan. Asieratik an ziran 1 ta 2-garrena. Gero, berriz, bigarren egun artsaldean, 3 ta 4-garrena. Gu, berriz, beranduegi, irugarrenean,

burruka amaitzerakoan. Ez gendun tirorik bota. Su egin zuten lau batalloiak Gipuzkoara berriz; ta gu (5 eta 6) an geratu giñan, udatzenera arte.

–Bai ederki, matsa aroa ta...

–Bai, bañan napariak artu giñun. 800 mutill batallioean bagiñan, 300 izango ziran naporiz gaxo izan ziranak... Zorritz bete...

Era por los días de San Juan. Delante de Estella se libraba una recia batalla. Desde el comienzo estuvieron allí el 1º y el 2º. Y luego, a la tarde del segundo día, el 3º y el 4º. Nosotros, en cambio, llegamos tarde, el día tercero, al fin de la batalla. No disparamos un tiro. Los cuatro batallones que habían hecho fuego volvieron a Guipúzcoa; y nosotros, el 5º y el 6º, nos quedamos allí, hasta el otoño.

–Mire qué bien, en la época de la uva...

–Sí; pero nos contagiamos de viruela. Si en el batallón éramos ochocientos chicos, serían trescientos los enfermos de viruela. Nos llenamos de piojos...

## **Irungoan**

## **En lo de Irún**

Donostitik beltzak etorri ziranean, gure batallioia inguratu egin zuten. Napor batalloi batek ala ikusi giñun ta baioneta kalatuz gera erazi ta irten giñan.

–Urnietakoan?

–Gu Irun aurrean.

Cuando vinieron de San Sebastián los liberales, coparon a nuestro batallón. Un batallón navarro vio cómo estábamos y con la bayoneta calada les hizo detenerse, y nosotros salimos.

–¿En lo de Urnieta?

–Nosotros (estábamos) delante de Irún.

## **Mendizorrotz**

Mendizorrotzen tontor goi-goenean 4 konpañi. Batzuek, puerte (gud-etxean); besteak ezker-eskuiko lubakietan.

Igeldotik etorri zitzaizkigun, musika joaz. Lendabizi Bordaxora jo zuten; gero gure tontorrera.

En Mendizorrotz, en lo más alto de la cumbre, cuatro compañías. Unos, en el fuerte; otros, en las trincheras de derecha e izquierda.

Vinieron a nosotros desde Igueldo, al son de la música. Atacaron primero Bordacho: luego nuestra cima.

## **Peñazerradako bertsoak**

## **Las estrofas de Peñacerrada**

Orra bertso berriak  
para Naparroan,  
Probintzian bezela  
euskera klaroan.  
Egun batzuek onak  
pasa arren orduan,  
ongi pagatu degu  
oraiñeko suan.

He aquí unas estrofas nuevas compuestas en Navarra, en claro vascuence, lo mismo que en la Provincia. Aunque entonces pasamos unos cuantos días buenos, lo hemos pagado bien en la última refriega.

Gau ta egun martxa triste  
juanagatikan,  
ez zegon guretzako  
barkaziorikan.

Señaladamente joan giñan  
Panplona aldetikan,  
arrantxoateko  
ez zan lekurikan.

Aunque fuimos día y noche en penosa marcha, no había perdón para nosotros. Fuimos precisamente desde la parte de Pamplona; no había tiempo para comer el rancho.

Ara allegatu giñanai  
emanik ardoa,  
arekin artu gendun  
pixka bat garboa.  
Ala ere ez gendun  
errazio osoa,  
bereala mandatua  
asi zala sua.

Habiendo repartido vino a los que llegamos allá, con eso nos animamos un poco. Así y todo no recibimos la ración completa; llegó enseguida el aviso de que se había roto el fuego.

Arabako bigarrena  
zan lendabizi asi,  
laxter igarri zion  
ez zala nagusi.  
Armak lurrera bota,  
laxterka igesi,  
orlako puntziorik  
ez du iñork ikusi.

Comenzó primero el segundo de Álava; pronto se dio cuenta de que no dominaba la situación. Arrojó al suelo las armas y se dio a la fuga; una función como ésa no la ha visto nadie.

Gero Probintzianoak  
eman geniyeu frente,  
an ikusiagatik  
makiña bat jente.  
Arma kalatuakin  
asi giñan fuerte,  
egun artan eutsi giñon  
gugandik aparte.

Luego les hicimos frente los provincianos, a pesar de ver allí mucha gente. La emprendimos con vigor con la bayoneta calada; aquel día los mantuvimos lejos de nosotros.

Gero kaballeria  
ziguten atera,  
arma baioneta ta  
gu aien aurrera;  
juntatu giñanean  
alkarren aldera,  
banaka jexten ziran  
zalditik lurrera.

Nos sacaron luego la caballería; calamos la bayoneta y nos enfrentamos a ellos. Cuando nos juntamos los unos con los otros, bajaban uno a uno del caballo a tierra.

Gero soro batean  
giñaden formatu,  
bi batalloiak iru  
giñan juntatu.<sup>1</sup>  
Ala ere gu len aña  
ezin aumentatu,  
arras ez giñanian  
guziak ondatu.

---

<sup>1</sup> Bi batalloi bakarrik giñan, bañan iru egin, etsaiak asko giñala uste zezaten. (Apalategiren oarra).

Luego nos formamos en un labrantío; de dos batallones hicimos tres<sup>1</sup>. A pesar de eso, no podíamos llegar a los que éramos antes; (contentos de que) no pereiéramos todos.

Gero mendietatik  
bota zuten brilla<sup>2</sup>,  
ain zan izugarria  
ango jende pilla.  
Ez ziran berdiñean  
gu bezin abilla,  
baña bakoitzarentzat  
bagenitun milla.

Luego nos lanzaron desde los montes la brilla<sup>2</sup>; tan enorme era aquella multitud de gente. En igualdad de condiciones no eran más que nosotros, pero éramos mil contra uno.

Gerrillak aurrean ta  
kolumna ori masan,  
Espartero jauna ta  
Martin Bari ziran.  
Aiei kontra egiteko  
jendea ere nun zan?  
Gu izaten gera be-  
tiko esperantzan.

Por delante las guerrillas y esa columna en masa; eran el señor Espartero y Martín Bari. ¿Dónde estaba la gente para hacerles frente? Nosotros vivimos siempre de esperanzas.

---

<sup>1</sup> Éramos sólo dos batallones, pero hicimos como (si fueran) tres, para que el enemigo creyera que éramos muchos. (Nota de Apalategui).

<sup>2</sup> Brilla bola jokua da; granadak edo metralla bota zigtela. (Apalategiren oarra).

<sup>2</sup> La brilla es término del juego de bolos; que nos lanzaron granadas o metralla. (Nota de Apalategui).

Ala ere ez zegon  
jendea pakean,  
iru egun osoetan  
beti atakean.  
Gerozko egun biyetan  
izan ez nitzean,  
zergatik jo ninduen  
balak beatzean.

Así y todo la gente no se quedaba quieta; durante tres días completos no cesaron los ataques. Pero en los dos días siguientes yo no tomé parte, porque una bala me hirió en un dedo.

Balak izanagatik  
aurrean ugari,  
burua sano daukat,  
beatzetik eri.  
Apuntatu zidaten  
beatzen erdira,  
oraindik señale det  
orduho erida.

Aunque delante de nosotros llovían las balas, conservo la cabeza intacta y me han herido en un dedo. Me acertaron en mitad del dedo; aún se me nota la herida de entonces.

Trago ori artuta  
ni ere erituta<sup>3</sup>,  
luzaro egon gabe  
atzera begira.

Pasado ese trago, yo también quedé herido<sup>3</sup>, sin quedarme mucho tiempo mirando atrás.

---

<sup>3</sup> Bearbada *erretira* esan bearko luke emen. (Argitatzaillearen oarra).

<sup>3</sup> Quizás debiera decir *erretira*, que entonces se traduciría: «Pasado ese trago, yo también me retiré, sin quedarme mucho tiempo mirando atrás». (Nota del editor).

Preziso bear gendun  
berriz bagajea,  
au're eskatutzeko  
nun zan korajea?  
Zaldi gorde eta ix-  
ten zuen atea,  
gizona serbitzeko  
ai zer parajea!

Necesitábamos recuperar el bagaje; pero ¿quién tenía coraje para reclamarlo? Guardaban los caballos y cerraban la puerta. ¡Qué tierra ésta para ayudar a la gente!

Probintziako mutillak  
Peñazerradara,  
zierto genekigula  
jun giñan gerrara.  
An eritu ta gero  
Salbatierrara,  
laugarren egunean  
joan giñan Bergara.

Los muchachos de la Provincia a Peñacerrada; fuimos a la guerra sabiendo lo que hacíamos. Allí me hirieron y luego (me llevaron) a Salvatierra; y al cuarto día, a Bergara.

Amaika amaren seme  
dolorez aziak,  
errematatu ditu  
oraingo auziak.  
Illak falta dira baña  
animo, biziak!  
Gerra irabaziko al degu  
lau probintziak.

A muchos hijos de madre, criados con tanto sacrificio, les ha dado la puntilla este pleito de ahora. Faltan los muertos, pero ¡ánimo, los vivos! ¡Que ganemos la guerra las cuatro provincias!

**Amasei bertsorekin  
nai det despeditu,  
gustatu nai dutenak  
kantatuko ditu.**

Quiero despedirme con dieciséis estrofas; aquél al que le hayan gustado las cantará.

# Miel Elotsukoa

Miguel de Elosu

---

Elosi aldekoa. De la parte de Elosi.<sup>1</sup>

1929. Domingo 25 de Agosto.

D. Justo Unanuek ekarri dit. Miel Azpeitian bizi da, Gaxotegitik Landetarontz bigarren etxean, *Sierva*-ren aurre-aurrean.

–Partidetan ibilli al ziñan?

–Ez, jauna. Ni Somorrostron zirala artu ninduten, eta ara eraman zuzenean. 8-garrenean sartu.

Otsaillan, ni sartu berria nintzala, Putxeta aldean. Gero. S. Pedro aurrean; eliza bañon beraxeago.

Iru egun surtan ari ta, gure aurrean beltzak zuten etxe tellatu zulotik tronpeta jo ta gureak erantzun, ta *parlamento* bear zala, illak lurperatzeko ta.

Beste illabete iraun gendun. Maiatza aurrera zijoala, gure etsaiek, tropak beste norabait eramanaz, gutxitzen ari zirala ikusten gendun. Aizpuruk, ori ikusiaz, esan zigun:

–Zortzi egun bañon lenago Bilbaon izango gaituk, an pasiatzen.

Liberalak gure aurretik guda sallak kendu, bañan gure ezkerre zeramazkiten, Muñekats dioten aldetik erasotzeko.

Ara joateko agindu ziguten, ta baita joan ere.

De la parte de Elosi<sup>1</sup>.

1929. Domingo 25 de Agosto.

Me lo ha presentado D. Justo Unanue. Miguel vive en Azpeitia, según vamos del Hospital hacia Landeta, en la segunda casa, enfrente de las Siervas.

---

<sup>1</sup> Izenburuan *Elotsu* eta gero *Elosi*. Ez dakigu nola bearko luken. (Argitatzai-learn oarra).

<sup>1</sup> En el título *Elotsu* y luego *Elosi*. No sabemos cómo debiera ser. (Nota del editor).

–¿Anduvo usted en las partidas?

–No, señor. A mí me alistaron cuando estaban en Somorro y me llevaron allá directamente. Me asignaron al octavo.

En Febrero, siendo yo recién llegado, en la parte de Pucheta. Después, delante de San Pedro, un poco más abajo que la iglesia.

Tras tres días de combate, los liberales tocaron la corneta por el agujero del tejado de una casa que estaba delante de nosotros, y los nuestros respondieron, y que hacía falta parlamentar, para enterrar los muertos y demás.

Continuamos otro mes. Cuando Mayo iba para adelante, veíamos que el enemigo iba disminuyendo de número, al llevar tropas a algún otro sitio. Aizpuru, viendo eso, nos dijo:

–Antes de ocho días estaremos paseando en Bilbao.

Los liberales retiraban tropas de delante de nosotros, pero las llevaban a nuestro flanco izquierdo, para atacar por la parte de Las Muñecas.

Nos ordenaron que fuéramos para allá, y así lo hicimos.

## **Azkoitira**

## **A Azcoitia**

S<sup>a</sup>. Kruz biaramonean. Ez giñan jun aña etorri. Junak: 1.060. Etorri: 350! Ez giñan geiago zutik.

Gutxitu ziranak, ez danak illak. Asko gaxotegitan, edo zauri edo gaxo. Asko berriz etorri ere.

Al día siguiente de la fiesta de la Santa Cruz. No volvimos tantos como los que habíamos ido. Los que fueron: 1.060. Los que volvieron: ¡350! No éramos más los que seguíamos de pie.

Las bajas no eran todas de muerte. Muchos estaban en los hospitales, o heridos o enfermos. Muchos de ellos volvieron.

–Berriz? Partidak asierakoak izan ziran; batallioiak egin artekoak.

–Bai gerozkoak ere. Somorrostrotik etorri berrian, Tolosan giñala, Donosti aurrerako-ta partidak egin bear zirala. Mokorra ta Mendizabal irundarrak agintari.

Gure batallotik, konpañi bakoitzako bi mutill artzeko esku-bidea zutela-ta, ni artu ninduten. 100 mutil partidan.

Billabonan ta Pagollagan illabete. Jan ta eran ederki, batallioikoak bañon obeto. Gero Irun aldera; Garintxuzketan lo geienan; ta, beltzak Urkabe ta Oiartzun artutakoan, atzeratu giñan. Ez nitzan geiago batallioietara biurtu.

–Zer egiten zenuten?

–Egunaz geienetan lo edo geldirik egon. Gabez irten ta ibilli “ronda” egiñaz. Bearbada, etsaiak gabez ixil-ixilik etorri zeitezken, Buruntzara joan ziranean bezela; ta orrelakorik gertatu ez zedin, gu ibiltzen giñan batera ta bestera. Ezer bazan, tiro egin, gureak zer edo zer bazala jakin zezaten.

–Noiz edo noiz su egingo zenuten?

–Bai; gu sartu giñan Azken Portun. An zeuden kabreristak fabrikan. Jun giñan, etxeari su emateko petroleo botellak eskuan genitula.

Mokorreak: su ez emateko; «barrura sartu ta eskuz il bear dizkiagu» –zion.

Lenengo bera sartu zan; urren sarjento bi (1 ta 2-garrena); laugarren ni. Mokorra antxe ill ziguten.

Etxeari su eman genion. Barrengoak etxe atzetik iges egin zuten; ta, noiz eroriko zan zai geundela, etorri ziran etsaiak ta guk alde egin genu.

Beste alako batean, Jaizkibelen bazuten gud-etxea. Beraxego, iturria. Ur billa ara jexten ziran.

–Ea norrebait arrapatzen diagun!

Zortzi mutil jun giñan egun sentian. Erbiak bezela, ota tar-tean etzanda. Otz egiten zun ta antxe dar-dar egon.

–Bazetoztik! Gu bañon gutxiago jexten badira, lasterka aie-tara. Geiago badira, su ta alde.

Zortzi jetxi ziran.

–¿Armarik gabe?

–Ez; arma ta guzti. Pitxarra itur muturrean jartzerakoan, su egin genien. Mendi gora abiatu ziran ta gu aietara. Bat arrapatu genun, bañan igas egin. Nik tiroa egin ta bota nun. Orregatik, kabo egin ninduten.

–¿De nuevo? Las partidas fueron cosa del comienzo; hasta que se formaron los batallones.

–Y también de después. Al poco de volver de Somorrostro, estando en Tolosa, (dijeron) que había que formar partidas, para que actuaran ante San Sebastián y demás. Como jefes, Mocerrea y Mendizábal, naturales de Irún.

Que tenían derecho a llevarse de cada batallón dos chicos por cada compañía, y me eligieron a mí. Cien chicos en la par-tida.

Un mes en Billabona y Pagollaga. Comíamos y bebíamos muy bien, mejor que los del batallón. Después, a la parte de Irún; las más de las veces dormíamos en Gainchurizqueta; y cuando los liberales tomaron (el monte) Urkabe y Oiartzun, nos fuimos para atrás. Nunca más volví a los batallones.

–¿Qué es lo que hacían ustedes?

–De día, la mayoría de las veces dormir o estarnos quietos. Salíamos de noche y hacíamos la “ronda”. Es que el enemigo podía a lo mejor venir de noche sigilosamente, como cuando marchó al monte Burunza; y para que no sucediera tal cosa, nos movíamos nosotros a un lado y a otro. Si había alguna novedad, disparábamos, para que los nuestros se apercibie-ran de que ocurría algo.

–Alguna vez harían ustedes fuego...

–Sí; entramos nosotros en Azken Portu. Los cabreristas estaban allí, en la fábrica. Fuimos con botellas de petróleo en la mano para darle fuego a la casa. Mocerrea decía:

–No le deis fuego. Tenemos que entrar adentro y liquidarlos a mano.

Él entró el primero: después, dos sargentos, primero y segundo; y el cuarto, yo. Allí nos mataron a Mocerrea.

Pegamos fuego a la casa. Los de dentro huyeron por la parte trasera. Y, mientras esperábamos a ver cuándo se caía, vino el enemigo y nosotros nos largamos.

Otra de las veces, (los liberales) tenían un fortín en el monte Jaizquíbel. Un poco más abajo, la fuente. Allá bajaban a por agua.

–¡A ver si le echamos mano a alguno!

Fuimos ocho chicos al amanecer. Como las liebres, tumbados entre las árgomas. Hacía frío y allí estuvimos dando diente con diente.

–¡Ya vienen! Si los que bajan son menos que nosotros, corremos a ellos. Si son más, hacemos fuego y nos largamos.

Bajaron ocho.

–¿Sin armas?

–No; con armas y toda la dotación. Al poner el cántaro en el chorro de la fuente, les disparamos. Tiraron monte arriba, y nosotros corrimos a ellos. Echamos mano a uno, pero se escapó. Yo le disparé y lo derribé. Me nombraron por eso cabo.

## **Azkenekoetan**

## **Las postrimerías**

Martínez Campos Naparro (Baztan) aldetik bazetorrela. Gure batalloiak Napar aldera (Berastegitik) zijoazela. Gu ere abiatu giñan. Oiartzungo liberalai lau bei kenduta jun giñan.

Beltzak aurrean ikusi genitun. Gu mendi goian, ta guregana zetozten. Su egin genien: iru deskarga. Bereala aldapa bera, Gipuzko aldera. Beltzak, gu len egon giñan mendi gañera io ziranean, ikusi giñuzten ta baita su egin ere, ta guretako mutil bat eritu.

Que el general Martínez Campos venía por la parte de Navarra, por el Baztán. Que nuestros batallones marchaban por Berástegui hacia Navarra. También nosotros nos pusimos en camino. Nos fuimos tras quitarles cuatro vacas a los liberales de Oyarzun.

Vimos a los liberales delante. Nosotros (estábamos) en lo alto del monte y venían hacia nosotros. Les hicimos fuego: tres descargas. Enseguida tomamos cuesta abajo, hacia Guipúzcoa. Los liberales, cuando subieron a lo alto del monte donde antes habíamos estado nosotros, nos vieron, y también nos hicieron fuego, e hirieron a un muchacho de los nuestros.

## **Zergak (kontribuzioak)**

## **Los impuestos (las contribuciones)**

Bai gogorrek ere. Txit gogorrek. Basarri bakoitzak bost duro illero!

–Oiek nagusiak ordainduko zitun.

–Ez; nere aita ez zan jabea ta eman bear izaten zitun. Zortzi arroako txerri iltzeagatik (kanporako) 8 pezta.

–Ezin ledike. Geiegikeria. Ikusiko dezu. Zenbat ematen zun nagusiak?

–Orduko errenta guzia: 75-en bat duro urtean.

–Illeko sei duro?  $3^{1/2}$  edo 4 kentzen bazizkion Diputazioak, kito, eta ez zan gutxi. Maizterrari nola kenduko zizkieten 5 duro? Jabeari bañon geiago? Maizterrak eta jabeak ematen zituztenekin osatuko ziran 5 duroak. Baita au ere geiegitxo deritzait.

Azpeitia: guda bukaeran “36.000 duros” zor, «por suministros de la permanencia liberal». Azillona alkate zala, esan zigun, ta errex osatu ziran.

Y también gravosas. Muy gravosas. Cada caserío, ¡cinco duros al mes!

–Eso lo pagaría el amo.

–No. Mi padre no era propietario y tenía que apencarlos. Por un cerdo de ocho arrobas que mataban para fuera, ocho pesetas.

–No puede ser. Es un exceso. Va usted a verlo. ¿Cuánto llevaba el amo?

–Toda la renta de entonces: unos setenta y cinco duros al año.

–¿Seis duros al mes? Si la Diputación le cobraba tres y medio o cuatro, quedaba pagado y no era poco. ¿Al inquilino cómo le iban a exigir cinco duros? ¿Más que al amo? Los cinco duros se completarían con lo que aportaban el inquilino y el amo. Y aun esto me parece un exceso.

Azpeitia. Al terminar la guerra, 36.000 duros de deuda, «por suministros de la permanencia liberal». Me lo dijo Azillona, siendo alcalde, y que los completaron fácilmente.

# P. Gaspar González Pintado

---

Noticias del general D. Eusebio Rodríguez.

Fue el último Comandante General de Guipúzcoa, Su biografía: V. Pirala, Tomo VI, pg. 385. Nombrado C. G. de G.: 21 Spt. 1875.

Diligentísimo en vigilar los puestos de la línea (Luis Zurbano).

Consulta sobre posibilidad del éxito de la guerra (P. Ramón Vinuesa).

Diálogo con el P. González Pintado. Ambos eran de Fuentecén, prov. de Burgos.

—¿Recuerda V. haber oído hablar de su paisano el general carlista D. E. Rz.?

—Sí recuerdo. Yo no le conocí, porque después de la guerra nunca volvió a su pueblo.

—¿Sabe V. si volvió a su antiguo empleo en el ejército?

—No; seguramente que no. Ingresó en Francia en un convento, creo que en calidad de donado y allí debió acabar sus días. Sus hermanos eran carpinteros y acaso al general se le alcanzase algo de ese oficio.

Desde Francia escribió al Sr. Párroco de Fuentecén, exhortándole a que estableciese una cofradía de S. José. El Sr. Párroco, excelente persona, pero poco inclinado a novedades, respondió que «antes era preciso arrancar las malas hierbas de la feligresía».

El devoto desterrado debió insistir, y aun entiendo mandó los diplomas y medallas. Además, se suscribió a una revista que se publicaba en Barcelona, dedicada a fomentar la devoción al Santo.

Recuerdo que yo mismo ingresé en la Cofradía, y el día 11 de cada mes me tocaba hacer la visita al altar del Santo.

Stp. 1929. Se encarga el P. Gz. P. de preguntar más detalles a Fuentecén.

Admirable carta escrita en el destierro, poniendo a disposición de la Diputación guipuzcoana, que ya no funcionaba, un remanente de 10.000 rs.


Poitiers, 18 Abril 1877.


Colección Dorronsoro, pg. 234.

# Getarikoak

Los (sucesos) de Guetaria

17, 18 Spt. 1929.





## Aldamar

Madrillen il ta onera gorputza ekarri zuten. Gogoratzen zait zenbat jende etorri zan. Kale Nagusia dana bete-betean elizarano.

Perla bat galdu zaio / Euskal Erriari,  
 balio aundikoa / gure Fueroari;  
 negar egiñarekin / billa al balegi,  
 nork begiak bustia / faltako ez legi.

Murió en Madrid y el cuerpo lo trajeron aquí. Me acuerdo de cuánta gende acudió. La Calle Mayor estaba toda llena hasta la iglesia.

Al País Vasco se le ha perdido una perla de gran valor para nuestros Fueros; si llorando se la pudiera encontrar, no faltaría quien mojara sus ojos.

## Joane Pico (Juan de la Higuera)

Erdi arrantzale, erdi baserritar, getariarra da. Lendabiziko-tik 7-garrenean, Somorrostron ta... Gero, berriz, Txulorekin ibilli zan ta Getariko muru ondoan berak jarri zun dinamita pillla. Beste lagunak izutu egin zirala ta berak berriz baietz, ta baita jun ere.

Gabez, dinamita pillla eskuan ta metxa piztuta kolkoan zula abiatu zan, ixil-ixilik, oinpean zapaltzen zitun marrakolen otsa besterik entzuten ez zuela. (Orrillaren 13-an).

(Karlottarrak atzenean ez ziran sartu. Beristaintar Luisek esan zidanez:

–Gu, zazpigarrengoak, sartzeko giñan artsaldeko lauretan. Getariko orman zuloa egiña zegoan. Mutil batzuk erori bearko zuten, jakiña! Bañan 4-garren ta 5-garrengoak esan zuten pixka bat itxogoteko, ta illunez berak sartuko zirala, mutillik galdu gabe. Bitartean barrengoak zuloa itxi zuten ondar zakuz, ta ezin sartu. Gero, berriz, etorri ziran Donostitik itxasoz gudari sallak ta... uts).

Mitad pescador y mitad labrador, es natural de Guetaria. Primero en el séptimo, en Somorrostro y demás. Luego anduvo con Chulo y colocó él, junto al muro de Guetaria, una carga de dinamita. Los otros compañeros se echaron para atrás, y él que para adelante, y desde luego que fue.

De noche, con la carga de dinamita en la mano y la mecha encendida en el seno, se puso en marcha con el mayor sigilo, sin que oyera nada más que el ruido de los caracoles que aplastaba bajo sus pies. (13 de Mayo).

(Los carlistas no entraron, al fin. Según me dijo Luis Beristain:

—Nosotros, los del séptimo, estábamos, a las cuatro de la tarde, preparados para entrar. Estaba hecho el boquete en la muralla de Guetaria. Como es natural, tendrían que caer algunos muchachos. Pero los del cuarto y los del quinto pidieron esperar un poco, y que ellos entrarían con la oscuridad, sin perder ningún chico. Entre tanto, los de dentro cerraron el boquete con sacos de arena y no se pudo entrar. Luego, además, vinieron por mar desde San Sebastián masas de soldados y fracasamos).

## **Txoritokietakoa**

## **Lo de Choritoquieta**

1875-garreneko Iraillaren 28-an.

28 de septiembre de 1873.

Beltz jende oiek atera ziran  
Ergobiatik aurrena,  
S. Markos alde Txoritokieta  
mikeleteak urrena;  
gero Oiartzundik sarrera berriz,  
baita soldadu zarrena,  
Errenterian errefuerzoa  
azkenerako zeukena.

Esos liberales salieron primeramente de Ergobia. A continuación, por San Marcos y Choritoquieta, los miqueletes. Luego, por Oiartzun, entraron también los soldados. Y, por fin, tenían refuerzos en Rentería.

Erdiak mozkortu zituzten eta  
oiuarekin karraxi,  
*trágala* joaz ekarri zuten  
indarrrik ainbat fantasi.  
Gero karlistak tiroka eta  
baionetarekin asi,  
guztiak ilko ez bazituzten  
laxter joan ziran igesi.

Emborracharon a la mitad y gritaban y chillaban. Tocando el *trágala*, trajeron tanta fantasía como fuerza. Luego los carlistas la emprendieron a tiros y a la bayoneta. Y todos, para que no los mataran, se largaron a escape.

**Mikeleteak arrabiz  
azkar joan ziran emendik.**

Los miqueletes, con rabia, se fueron de aquí rápidamente.

# Altamirako Jose

José de Altamira

---

Gure Etxaniz iru anaien aita.

(Isidro Uria eritu zuten Baldako ondoan. Badago burnizko gurutze antziñakoa. Aretxen inguruan. Ibeltzaren 27-an?).

–Noiz sartu ziñan karlistetan?

–Ibeltza zan (1873), Lizarraga-ta Etxaustetatik Elgoibarrera jun ziranean.

–Azpeitian ta Aian. Zarautz?

–Ez. Lizarraga gaxo zala.

–Toki oietatik Araotzera jun ziranean?

–Bai; an nintzan. Ollo ta naparrak an ziran, Araoztik Zapata aldera; bañan Oñatiko nazionalak an zirala ta...

(Elorriotik Elgetara gora gijoazela Lizarragaren orde, mutil bat kamillan. Nazionalak tiroka asi ziranean, salto egin ta...).


Ango txingorak ta izotzak! Elgean, Araban, naparrak aldendu ziran ta gu Gipuzkoara.

Elgean lo. S. Adrianen urrengo loa. Zegaman lo. S<sup>a</sup>. Ageda zan. Lukainka jateko eguna zala ta nundik edo andik ekarri zizkiguten lukainkak. Astigarretara; an gendun gure toki berezia. Berriz Araotzera. Berriz Largaratera, Urrestilla aldean.

Gure txokorik maiteena, Astigarreta, Mandubi aldean, Tolosatik Zumarragara arteko burnibide ta bizabalak ikusten genitula. Andik, berriz, naiz Azpeiti aldera naiz Naparroara edo Arabara juteko aukera. Mandubitik beste aldera, Largarate ta Kostortzu baserriak...

–Ostegun gizenekoak? (Otsaillaren 20-an).

–Ni Martiretako aldean, Zumarragako bidea zaitzen. Eskuadra bat.



- Padre de nuestros tres hermanos Echániz.
- (A Isidro Uría le hirieron junto a (la casa de) Balda. Hay una antigua cruz de hierro. Junto a ella. ¿27 de Enero?).
- ¿Cuándo se alistó usted en los carlistas?
  - Era Enero (1873), cuando (el general) Lizarraga y demás se dirigieron por Echausteta a Elgóibar.
  - En Azpeitia y Aya. ¿Zarauz?
  - No. Que estaba enfermo Lizarraga.
  - ¿Al pasar de esos parajes a Aroz?
  - Sí; allí estaba yo. (El general) Olo y los navarros allí se encontraban, de Aroz hacia Zapata; pero que los nacionales de Oñate estaban allí y...
- (Yendo cuesta arriba de Elorrio a Elgueta, a relevar a Lizarraga, un muchacho en camilla. Cuando los nacionales empezaron a disparar, pegó un brinco y...).

¡Qué granizadas y qué heladas! En Elguea, Álava, se fueron los navarros y nosotros a Guipúzcoa.

–Dormimos en Elguea. En San Adrián la siguiente dormida. Era Santa Águeda (5 de Febrero). Que era día de comer chorizo y nos lo trajeron de algún sitio. A Astigarreta; allí teníamos nuestro refugio particular. De nuevo a Araoz. De nuevo a Largarate, hacia la parte de Urrestilla.

Nuestro rincón preferido era Astigarreta, hacia la parte de Mandubia, desde donde veíamos el ferrocarril y la carretera entre Tolosa y Zumárraga. Teníamos, además, la opción de dirigirnos tanto hacia Azpeitia como a Navarra o a Álava. Al otro lado de Mandubia, los caseríos de Largarate y Kostortzu.

–¿Los sucesos del jueves lardero? (El 20 de Febrero).

Yo estaba en la parte de Los Mártires, vigilando el camino de Zumárraga. Una escuadra.

## **Bizkai aldera**

## **A Vizcaya**

Onera etorri zitzaigun Ermuako Markesa (Valdespina) bere bi seme ta ajudanteekin. Guda jantzia. Gure buru egin zan ta Bizkai aldera.

–Zertara?

–Bizkaitarrak gudara irtetzeko-edo nagi zeuden. Berotzeko, eraman zituzten lenbizi naparrak; gero gu, gipuzkoarrak.

–Ez dakit. Bizkaitarrak oso uzkur zebiltzan. Lenagoko udaran, irten aldi txit ederra egin zuten. Bañan gero, Amorebitako sasi pakearekin-ta oso erori ziran, ta ezin beroturik zeuden. Nunbait bizkaitarrak jasotzeko eraman gindun aruntza, gure bazter abek utzita.

Zori gaiztoan abiatu giñan. Arroara (Ia). Arno, Mendaro, Markina-Etxeberri (Ia)... Noizbait ere Gernikara; artsaldea zan. labak-edo. 15-en bat egun.

–Nola uzten zizuten etsaiak batera ta bestera ibiltzen?

(V.: reconcentración de fuerzas por Moriones y sus intentos de conspiración al ser proclamada la república. Piralá, T. IV, pg. 198.

V. Piralá, T. IV, pág. 319. Gorago: 316).

4 ta 5 Epaillan (Piralak dionez) Gernikan uste batean nola sartu zaizkigun. Loma mikeleteak aurretik zitula. (V.: Amubek esanak eta VII-an jarriak).

Irten gera Gernikatik ta Mermeo aldera jo genuen, mikeleteak-eta gañean genitula. Guk anak ariñak eta urrutiratu giñan. Batzuk arrapatu zizkiguten. Torre zarra zaldi gañean zijoan eta esan ziran:

–Eutsi akiok nere zaldiaren buztanari eta obeto etorriko aiz.  
Bai egin ere.

Bi aldetatik genitun etsaiak, ta itxaso aurretik. Illuntzera-koan, markesa negarrez, ezpata arrastaka zula: entregatu egin bearko gendula. Iturbek-eta: ezetz oraindik. Gu alde guztitatuak giñalakoan, etsaiak geratu ziran.

–No me lo habían pintado así en Madrid –Inestrilla.

Gabean, oso galduak giñanean, zeruko aingerua bezela azaldu zitzaigun artzai batek esan zigun etsai artetik aterako giñula esanaz. Gu, ixilik eta erre gabe, aren atzetik ertetzeko. «Zaldiak irrintzi egin ez zezaten, baionetazoka il genitun» (Amubek).

Irten giñan orregatik zori gaiztoko zulo artatik. Urrengo goizean, Loma ta Alonsotegi gure billa jun ziranean, zuloa utsik; erbiak iges egin zien. Etsaiak gure atzetik ibiltzez aspertuta utzi giñuzten, ta gu Gipuzko aldera berriz.

Ez giñan jun aña etorri. Guretako mutil batzuk ango basarrietan geratu ziran. Bizkaian arto lanak laiaz egiten zituzten, ta arazo ortan geratu; besteak ikazkintzan (Amubek).

Bizkaian izan giñan artean ez gendun karlistarik bat ere ikusi.

–Danak batean al zenetozten?

–Ez. Mutill motelenak ta nekatuenak, D. Agustiñekin. Besteak, al gendunez. Ibaiak betean zetozten; zubiak, berriz, beltzak artuta. D. Agustin, bere mutil sallarekin, Mendaroko ondoan ibaia txalupetan igaro ta aurrera.

Gu, mutil salla bat, gabaz, Maltzagako bentara eldu giñan. Etxea illunpean ta gizonex bete-betea. Ez genekigun zein ziran. Ez berak ere gu ezagutu. Alakoan, badator bat eskallera bera, eskuan argia zula; ta txapeleko txapa zula (guk ez gendun oraindik) ikusi gendunean:

–Aizak: beltzak dituk!

Argia ez dakit nola itzali zaio ta guk, illunari eskerrak, alde egin genun. Berak zer edo zer igarri diote ta atea itxi ta guretako amaika barruan geratu ziran.

–Ta ibaia nola igaro zenuten?

–Ara: ortarako ibaiz gora ekin genion ta Oñati aldean igaro.

Se nos presentó aquí el marqués de Ermua (Valdespina) con sus dos hijos y sus ayudantes. Uniforme militar. Se constituyó en nuestro jefe y a Vizcaya.

–¿A qué?

–Los vizcaínos andaban muy remisos para lanzarse a la guerra. Para animarlos, llevaron primero a los navarros; y después, a nosotros, los guipuzcoanos.

–No lo sé. Los vizcaínos andaban muy remolones. En el verano anterior habían realizado un alzamiento muy bueno. Pero luego, con la falsa paz de Amorebieta, se vinieron abajo y no conseguían recobrase. Por lo visto, nos llevaron para allá, abandonando estas tierras nuestras, a fin de animar a los vizcaínos.

En mala hora nos pusimos en marcha, A Arrona, dormir. (Monte) Arno, Mendaro, Marquina-Echebarría, dormir... Por fin, a Guernica; era la tarde, a eso de las cuatro. Unos quince días.

—¿Cómo os permitía el enemigo andar de un lado a otro?

(V.: reconcentración de fuerzas por Moriones y sus intentos de conspiración al ser proclamada la república. Pirala, T. IV, pg. 198.

V. Pirala, T. IV, pág. 319. Más arriba 316).

El 4 y 5 de Marzo, (según dice Pirala), se nos coló inopinadamente en Guernica (el general) Loma con sus miqueletes en vanguardia. (V. lo relatado por Amube y lo escrito en VII).

Salimos de Guernica y tomamos hacia Bermeo, con los miqueletes pisándonos los talones. Nosotros teníamos pies ligeros y nos alejamos. A algunos les echaron mano. El viejo Torre iba a caballo y me dijo:

—Agárrate a la cola de mi caballo y así irás mejor.

Claro que lo hice.

Teníamos enemigos por los dos lados, y el mar por delante. Al anochecer, el marqués, con lágrimas y arrastrando el sable: que tendríamos que entregarnos. Iturbe y demás: que todavía no. Creyendo que estábamos rodeados por todos los lados, el enemigo hizo alto.

—No me lo habían pintado así en Madrid —Inestrilla.

A la noche, estando perdidos sin remedio, se nos presentó un pastor como si fuera un ángel del cielo, diciendo que él nos sacaría de entre los enemigos. Que nosotros saliéramos tras él en silencio y sin fumar. (Amube: «Para que los caballos no relincharan, los matamos a bayonetazos»).

Salimos, de todas maneras, de aquel malhadado agujero. A la mañana siguiente, cuando Loma y Alonsotegi fueron a por nosotros, el agujero estaba vacío. La liebre se les había escapado. El enemigo se aburrió de andar tras nosotros y nos dejó, y volvimos a Guipúzcoa.

No regresamos tantos como salimos. Algunos chicos de los nuestros quedaron en los caseríos de allí. En Vizcaya hacían los trabajos del maíz con layas, y se ocuparon en ese quehacer; los otros, en el carboneo (Amube).

Mientras estuvimos en Vizcaya, no vimos a un solo carlista.

—¿Veníais todos juntos?

—No. Los chicos más flojos y más cansados, con D. Agustín. Los demás, como podíamos. Los ríos bajaban crecidos; y los puentes estaban tomados por los liberales. D. Agustín, con su grupo de muchachos, pasaron el río en barcas por junto a Mendaro y siguieron para adelante.

Nosotros, un grupo de chicos, llegamos de noche a la Venta de Málzaga. La casa estaba a oscuras y llena de hombres. No sabíamos quiénes eran. Tampoco ellos nos conocieron. En esto, viene uno escaleras abajo con una luz en la mano; y cuando vimos que tenía una chapa en la boina (que nosotros aún no la teníamos):

—Oye: ¡son liberales!

No sé cómo se le apagó la luz y nosotros, gracias a la oscuridad, huimos. Ellos adivinaron algo y cerraron la puerta, y once de los nuestros se quedaron dentro.

—Y ¿cómo pasasteis el río?

—Mire: fuimos remontando el río y lo pasamos por la parte de Oñate.

## **Berriz Gipuzkoan**

## **De nuevo en Guipúzcoa**

Azkoitiko Martiretara. Badira an Arrieta basarriak. 15 egun edo.

(Pirala: T. IV, pg. 316, párrf. 2º., al fin: «Regresaron los carlistas... y se establecieron por las inmediaciones de Azpeitia y Azcoitia...»).

Largarate, Astigarreta. Lizarraga sendatu ta an agertu zan (Epaillaren 19-an) Korostortzun.

—Emen gaituk berriz ere gure txoko maitean!

Azkoiti gañetik Astigarretara, Beasain gañean ta Ernio ipar aldera. Kaledun erririk bat ere ez; basarri gutxi ta baso ugari.

–Ta barruti orretan ez al ziran etsaiak sartzan?

–Bai; noizbaiten. Largaraten-ta giñala, Matxinbentatik gora sartu ziran. Ikusi genitun; tontor batean jarri giñan; bai alkarri tiroka asi ere. Illunabarra zala-ta, beltzak aspertu ziran noski ta atzera. Abetako batean zauritu ziguten Orioko apaiza. Bi iztarrak batean zauri; bala batek lau zulo egin zizkion. Azkoitiko Marti-retara eraman gendun; an Zendoian egon zan sendatu arte.

Alako batean, oraindik oso sendatu gabe zala, badatoztela Azkoitiko karabiñeroak.

–Ea, bada, goazemak!

Makil birekin ta etxeko mutil gazte Arozena Justok lagun-duaz ezkutatu zan. Karabiñeroak, etxean sartu gabe, berriz aldapa bera abiatu ziran.

Ostegun done eguna, Jorraillaren 10-an, Lesakan giñan. Egun artan bertan irten ta Betelutik igaro ta Amezketan goizean. Larunbat donean, Loma Abartzizketan.

A Los Mártires, (barrio de) Azcoitia. Hay allí unos caseríos (llamados) Arrieta. Unos quince días.

(Pirala: T. IV, pg. 316, párrf. 2º, al fin: «Regresaron los carlistas... y se establecieron por las inmediaciones de Azpeitia y Azcoitia...»).

Largarate, Astigarreta. Allí se nos presentó Lizarraga, ya curado (19 de Marzo), en Korostortzu.

–¡Aquí estamos de nuevo en nuestro querido rincón!

Por encima de Azcoitia a Astigarreta, encima de Beasain y con (el monte) Ernio al norte. Nada de pueblo con calles; pocos caseríos y mucho bosque.

–¿Y el enemigo no entraba en esa zona?

–Sí, alguna vez. Estando en Largarate y demás, se nos colaron subiendo de Machinventa. Los vimos, nos situamos

en una cima y empezamos a tirotearnos. Que ya anochecía y los liberales se cansaron y recularon. En una de éstas, nos hirieron al cura de Orio. Le hirieron los dos muslos: una bala le hizo cuatro orificios. Lo llevamos a Los Mártires, Azcoitia. Estuvo allí, en Zendoya, hasta que se curó.

En esto, cuando aún no se había curado del todo:

–¡Que vienen los carabineros de Azcoitia!

–¡Pues vámonos!

Apoyado en dos palos y ayudado por Justo Arozena, joven muchacho de la casa, pudo esfumarse. Los carabineros, sin entrar en la casa, se fueron cuesta abajo.

El día de Jueves Santo, 10 de Abril, estábamos en Lesaca. Aquel mismo día salimos y, pasando por Betelu, a la mañana en Amézqueta. El Sábado Santo, Loma en Abalcisqueta.

## **Abartziketa**

## **Abalcisqueta**

Larunbat santu eguna, Jorraillaren 12-an.

Bagenbiltzan, beti bezela, gora ta bera, gure txokotik irtenta. Ataun aldetik igaro ta Abartziketetan giñala:

–Bazetoztik! Bazetoztik!

Alaxe zan ere: aldapa gora bazetozten. Guk ere gera egin ta tiroka asi giñan. Ez ziran aurrerago etorri, ta noizbait ere alde egin zuten. Gu, Astigarretara.

Día de Sábado Santo, 12 de Abril.

Caminábamos, como siempre, para arriba y para abajo, habiendo salido de nuestro rincón. Tras pasar por la parte de Ataun, estando en Abalcisqueta:

–¡Que vienen! ¡Que vienen!

Así era: venían cuesta arriba. Nosotros nos detuvimos y la emprendimos a tiros. No siguieron para adelante y, al fin, se largaron. Nosotros (nos fuimos) a Astigarreta.

## Pazkoa bigarreneko      Lo del segundo día de Pascua

(Jorraillaren 14). Egun larria izan zan. Danak galdu ez giñanean, pozik.

Kizkitzako elizatxo ondoan, Martzelo bere konpañiarekin. Salbatoretik gora ixil-ixilik gure etsaiak abiatu dira. Ez Martzelok ez mutillak igarri gabe, mikeleteak Kizkitzan sartu zitzaizkion. Konpañi osoa igesi guregana, bañan tirorik egin gabe. Bestela guk igarriko genion Martzelorenak guregana zetoztela.

–Emen dirala ta emen dirala!

Ta bear bezela burrukarako gertzeko betarik ez ta danak, Lizarraga ta guzti, Azkoiti aldera. Azkar gero! Mendi gain-gañezka. Orduan ere guk soldau xarrak baño anak ariñagoak eta pixka bat aldendu giñan; bañan su egiten ziguten; batzuetan baita kañoi sua ere. Aurrera ta aurrera: Izazpi mendi, Pagotxeta; aurrera ta aldapa bera.

Artetxe-errekako zulora jetxi gera. Artetxe-errekak: Azkoititik Zumarragara bitarteko 15 km. ditun sakona. Bide erdian, Aizpurutxo. Ez genekigun an zer zan.

Etsaiak, batzuek, Salbatore aldetik ertendakoak, atzetik; bañan baziran besteak, Zumarragatik irtendakoak, gu erdian arrapatzeko asmoan. Aben nagusi Txakon gurekin zebillenaren anaia omen zan. Beltz abek, Artetxe errekan sartu ta laxter geratu egin ziran, gure zai noski. Aurrerago sartu izan balira, beren besoetan artuko giñuzten.

Lizarraga, konpañi batzuekin, Aizpurutxora. Iturbe, berriz, goraxeago gera; errotara. Zumarragatik ertendako etsaiak geldirik etzanda, menditxo bat bitarte. Iturberenak oso urreratu ziran; entzuten zuten berriketa otsa; bañan, zein ote ziran jakin gabe, etsaietara zijozten zuzen-zuzen.

An ere izan zan zeruko aingeru bat. Bazebillen artzai bat bala artean ardiak biltzen, ta esan zien:

–Nora zoazte?

–Zer bada?

–Ez al dezute beltzen *armonia* (berriketa otsa) entzuten?

–Entzuten degu, bañan ez genekigun etsaiak ziranik.

Eskuira, bada, len aldapa bera ta orain berriz mendi gora, Elosu aldera. Lizarraga ere berdin, Aizpurutxotik gora. Orduan, berriz, aurrean agertu zitzaizkigun Eibarko boluntarioak.

–Auxen bear geniken!

Ango zalaparta nola izan (zan) iñork al daki? Illunabarra zala ta nola edo ala, arbola tartean, ni ta lagun batzuk Elosura eldu gera. Elizapeko etxean sartu ta ara etorri zitzaigun Lizarraga, bizirik eta osorik. Besteak ere urrengo egunetan bildu ziran.

14 de Abril. Fue un día tremendo. Contentos de que no pereciéramos todos.

Junto a la ermita de (la Virgen) de Kizkitza, estaba Marcelo con su compañía. El enemigo tomó de Salvatore para arriba, con todo sigilo. Sin que ni Marcelo ni los muchachos lo advirtieran, los miqueletes se les presentaron en Kizkitza. Toda la compañía escapó hacia nosotros, pero sin disparar un tiro. De otro modo, nosotros nos hubiéramos dado cuenta de que los de Marcelo venían a nosotros.

–¡Que están aquí ¡Que están aquí!

Y, a falta de tiempo para prepararnos como es debido para el combate, todos, Lizarraga y los demás, tomamos hacia Azcoitia. ¡Y bien rápidos, por cierto! Por toda la cresta del monte. También entonces tuvimos nosotros piernas más ágiles que los soldados y les sacamos ventaja. Pero nos disparaban; algunas veces, hasta con fuego de cañón. Hala adelante y adelante: el monte Izazpi y Pagotxeta. Adelante y empezamos a bajar.

Hemos descendido al hondón del arroyo de Arteche. Arroyo de Arteche: la hondonada de quince kilómetros que va de Azcoitia a Zumárraga. A mitad de camino, Aizpurucho. No sabíamos con qué nos íbamos a encontrar allí.

Parte de los enemigos, los que habían salido de Salvatore, tras de nosotros; pero había otros, los que habían salido de Zumárraga, con intención de cogernos en medio. El jefe de estos, Chacón, dice que era hermano del que andaba con nosotros. Estos liberales entraron en el arroyo de Arteche y pronto se detuvieron, esperándonos, claro. Si hubieran tirado algo más para adelante, habríamos caído en sus brazos.

Lizarraga, con algunas compañías, a Aizpurucho. Iturbe, en cambio, quedó más arriba; al molino. Los enemigos que habían salido de Zumárraga hicieron alto y se echaron largos, interponiéndose una colina. Los de Iturbe se les acercaron mucho. Oían el rumor de la conversación; pero, sin saber quiénes eran, iban derechos al enemigo.

También allí hubo un ángel del cielo. Andaba un pastor entre las balas reuniendo las ovejas y les dijo:

—¿A dónde vais?

—Pues ¿qué pasa?

—¿No oís la *armonía* (el rumor de la conversación) de los liberales?

—Lo oímos, pero no sabíamos que era el enemigo.

Pues hacia la derecha, y así como antes cuesta abajo, ahora cuesta arriba, hacia Elósua. Lo mismo Lizarraga, de Aizpurucho para arriba. Pero allí se nos presentaron entonces de frente los voluntarios de Eibar.

—¡Lo que nos faltaba!

¿Hay alguien que sepa cómo fue aquel zafarrancho? Gracias a que ya oscurecía, por entre los árboles, Dios sabe cómo, algunos compañeros y yo llegamos a Elósua. Entramos en la casa que hay debajo de la iglesia y allí se nos presentó Lizarraga, vivo y entero. También los demás se nos fueron juntando los días siguientes.

Toki batean luzaro geldirik egonta galduak giñala ta bagebiltzan beti batera ta bestera, Oraingo ibillerak ara nola izan ziran: Elosutik Osentzura (Bergara ta Plazentzi bitartean), Elgeta, Eskoriaza. Emen Lizarragak sermoi egin zigun:

–Gobierno berriak eliz kanpoko ezkontzak egin zeitezkiela ta gure zarrak orrelakorik ez zutela ezagutu, ta ortarako egindako paperak (Registro Civil) erre egin bear zirala...

Paper oiek ekarri erazi zitun ta erre genitun.

Gero, Bizkai aldera: Otxandio, Urkiolara. Emen beltzak zirala barruan ta aurrera.

Ez zait gogoratzen zer erritan arkitu genitun bizkaitar tropak. Belasko zuten jenerala, guk Lizarraga bezela. Esan ziguten erri artan geldirik 17 egun zeramazkitela. Gu arriturik; beti bagebiltzan batera ta bestera, ezin sinistu amazzpi egun erri batean egon zeitezkela.

Puesto que estábamos perdidos si permanecíamos mucho tiempo en un sitio, andábamos siempre de un lado para otro. He aquí cuáles fueron nuestras caminatas de entonces: de Elósua a Osinchu (entre Bergara y Placencia), Elgueta, Eskoriaza. Lizarraga nos endilgó aquí un sermón:

–Que el nuevo gobierno decía que se podía contraer matrimonio fuera de la iglesia, pero que nuestros mayores no habían conocido nada de eso, por lo que había que quemar los papeles hechos para el caso (Registro Civil)...

Hizo traer esos papeles y los quemamos.

Después, a Vizcaya: Ochandiano, Urquiola. Aquí, que los liberales estaban dentro y seguimos para adelante.

No recuerdo en qué pueblo encontramos tropa vizcaína. Tenían como jefe a Velasco, como nosotros a Lizarraga. Nos dijeron que llevaban diecisiete días quietos en aquel pueblo. A nosotros nos extrañó, porque como andábamos siempre de

aquí para allá, no podíamos creer que pudiera estarse diecisiete días en un pueblo.

## **Naparroara bigarren aldiz**

## **A Navarra por segunda vez**

Jorraillaren azkenekoetan.

Ez gendun noski Bizkaian egiteko aundirik ta berriz gure Probintzira. Emendik, berriz, aurrera, Naparroara.

Arizalan, Jorraillaren 25-an. An zegon Dorregarai, lau probintzietako guda buru zana. Naparren nagusi, Ollo, len Azpeitian-ta izan zana. Ollo ta gure Lizarraga, Dorregarairen mendekoak.

Jorraillaren 28. Aurrera; naparrakin Ebro aldera. Bada ibai ondoan S. Vicente de la Sonsierra erria. An bat-batean sartzeko giñan, bañan alperrik; bertan zeuden etsaiak igarri ziguten ta gu atzera. An galdu gendun Abalia kapitana, azpeitiarra, preso geratuta.

—Betiko galdu al zenuten?

—Ez; azkenean etorri ta komandante izan genun.

A finales de Abril.

Como es natural, no teníamos en Vizcaya cosa mayor que hacer y volvimos a nuestra provincia. Y de aquí, otra vez para adelante, a Navarra.

En Arizala, el 25 de Abril. Allí estaba Dorregaray, general en jefe de las cuatro provincias. Jefe de los navarros, Ollo, que anteriormente había estado en Azpeitia y demás. Tanto Ollo como nuestro Lizarraga, estaban a las órdenes de Dorregaray.

28 de Abril. Adelante; con los navarros hacia el Ebro. Está junto al río el pueblo de San Vicente de la Sonsierra. Pretendíamos entrar en él por sorpresa, pero fallamos. Los liberales se dieron cuenta y reculamos. Allí perdimos al capitán Abalia, azpeitiano, que cayó prisionero.

-¿Lo perdisteis para siempre?

-No; volvió por fin y lo tuvimos de comandante.

## **Eraulgo burrukan**

## **En la batalla de Eraul**

San Inazio bezperan Aritxulegin. (Misa de campaña. Danak pillan batalloi egin gabe).

San Inazio egunean (batalloia egin zan) Altzibar gañera, Karabiñeroak erten-aldiak egiten zituzten, ta guk Altamilaretik su egin genien. Lenengo tiroak an izan nitun. San Inazio egunean. Gero amarretan Meza. Gero batalloia formatu.

(Egun artan edo egin zan batalloia)

An kantatu genun lenbiziko aldiz San Inazioren martxa.

–Santa Kruzen mutillekin bakarrik egin al zan batalloia?

–Ez; berak bakarrik berreunen bat besterik, ezin. Beste asko sartu bear izan ziran.

Sería el 27 ó 28 del mes. Nosotros en Gainchurizqueta, por si acaso. Allí se nos presentó un montón de carros, llenos de armas; los hombres (las traían) al hombro.

Tomamos las armas. No teníamos uniformes. Cada uno vestía lo que había llevado de casa. Aprendimos a hacer la colada y todo.

La víspera de San Ignacio (estábamos) en Arichulegui. (Misa de campaña. Todos amontonados, sin formar batallón).

El día de San Ignacio (se creó el batallón) a encima de Alci-bar. Los carabineros hacían salidas, y nosotros les disparamos desde Altamilar. Fueron mis primeros tiros. En el día de San Ignacio. Luego, a las diez, misa. Después se formó el batallón.

(Aquel día creo se formó el batallón).

Allí cantamos por primera vez la marcha de San Ignacio.

–¿El batallón se formó con sólo chicos de Santa Cruz?

–No; ellos eran unos doscientos solamente y no se podía. Hubo que meter a otros muchos.

## Gipuzkoako lenengo batallioia

### El primer batallón de Guipúzcoa

Lenengo nagusi (¿coronel?): Aizpurua.

Bigarren nagusi (¿T. C.): Itxaso.

Irugarren nagusi (Comandante): Emparan Inozenzio (azpeitiarra).

1<sup>a</sup>. Compañía, Capitán: Arregiko Beltxa (oiartzuarra): 120 gizon.

2<sup>a</sup>. Compañía, Capitán: Jose Martin Aramakua (edo 7<sup>a</sup>.?).

3<sup>a</sup>. Compañía, Capitán: Antxusa (oiartzuarra).

4<sup>a</sup>. Compañía, Capitán: Iñazio Urkizu (Aizpuruen illoba).

5<sup>a</sup>. Compañía, Capitán: Inazio Mari (Oiartzun).

6<sup>a</sup>. Compañía, Capitán: Legorretako maixua.

7<sup>a</sup>. Compañía, Capitán: ?.

8<sup>a</sup>. Compañía, Capitán: Etxeberria (gero Donostian relojero ezagutu genun).

Laster sakabanatu giñuzten. (1<sup>o</sup>. de Agosto).

Gu (4-garrengoak) Zaldigain (iya Artikutzako mugan). Emen asi giñan ikasketan (instrucción).

Antxusa (3) Altzibarren.

Arregi Beltza (1<sup>a</sup>.) Iturriotzen

Uztaren<sup>1</sup> 15-an Goizuetara (festetara) 3 ta 4-garrengo kopañiak.

Uztaren 16. Iturriotzara.

Emendik Altzara.

–Ez al zan mikeleterik edo?

–Ez; an jangaiak (errazioak) artu ta aurrera joateko ziguten.

Ara zer zan: Antxusa Usurbillara joan, ta preso artu ditu alkatea

---

<sup>1</sup> Apalategik Uzta idazten du. Baiña naastu egin zan. Abuztuan zan. San Inazio eguna (Uztaren 31-garrena) igarota baitzegoan; eta Goizuetako festak Abuztuaren 15-ean izaten baitira. (Argitatzaillearen oarra).

(a) Tranpas ta sekretarioa, ta Aritxulegira zeramazkien. Gu bidali ba-ezpada. Txoritokieta aldera gijoazela Garberaztik, Arzelusek bat-batean *deskarga* bota zigun. Uts oso. Arzelus Antxusa arrapatu naiean zebillen, bañan alperrik.

–Loiolako Komunio aundian?

–Ez; ez giñan izan.

Primer jefe (¿coronel?): Aizpurua.

Segundo jefe (¿T. C.?): Ichaso.

Tercer jefe (comandante): Empanan Inocencio, azpeitiano.

1ª Compañía, Capitán: el Negro, de Arregui: 120 hombres.

2ª Compañía, Capitán: José Martín, de Arama (¿o de la 7ª?).

3ª Compañía, Capitán: Anchusa, natural de Oyarzun.

4ª Compañía, Capitán: Ignacio Urquizu, sobrino de Aizpurua.

5ª Compañía, Capitán: Ignacio María, Oyarzun.

6ª Compañía, Capitán: el maestro de Legorreta.

7ª Compañía, Capitán: ?

8ª Compañía, Capitán: Echeverría, luego le conocimos en San Sebastián de relojero.

Pronto nos dispersaron. (1º de Agosto).

Nosotros, los de la cuarta, en Zaldigain, casi en la muga de Articuza. Aquí empezamos a aprender la instrucción.

Anchusa (de la tercera) en Alcívar.

Arregui “el Negro” (de la primera) en Iturrioz.

El 15 de Agosto<sup>1</sup> a Goizueta, a las fiestas, la tercera y cuarta compañías.

El 16 de Agosto, a Iturrioz.

---

<sup>1</sup> Apalategui escribe Uzta; o sea Julio. Pero es una confusión. Era en Agosto, pues ya ha pasado el día de San Ignacio (31 de Julio), y las fiestas de Goizueta son el 15 de Agosto. (Nota del editor).

De aquí a Alza.

—¿Es que no había miqueletes?

—No; allí nos aprovisionamos de raciones y nos dijeron que siguiéramos para adelante. He aquí lo que pasaba: Anchusa había ido a Usúrbil y había hecho presos al alcalde (a) Trampas y al secretario, y los llevaba a Arichulegui. A nosotros nos enviaron por si acaso. Cuando íbamos por Garbera hacia Choritoquieta, Arcelus nos disparó de pronto una descarga. Falló del todo. Arzelus andaba queriendo echar mano a Anchusa, pero en vano.

—¿En la comunión general de Loyola?

—No; no estuvimos.

## **Tolosako setioan**

## **En el sitio de Tolosa**

Ara joateko. Abiya. Berastegi. Ango elizan kantatu genun bigarren aldiz San Inazioaren martxa. Oraingoan pausoa eramanaz (oñekin lurra joka).

Gero sakabanatu, Belabieta ta goardietara. Berriz batu Berastegin. Irura. Alkiza. 8 egun.

(Tolosako Miserikordi gañean bazan etxea baztanga zutentzat. An ere izan giñan).

Tolosako Miserikordian ere goardi egin genun. Orduko Erruki-etxea ez zegon oraingoaren tokian. Iruratik zuazela, zubian sartu bañon lenxeago, ezkerrera. Orain etxe berriak daude.

Que fuéramos para allá. Nos pusimos en marcha. Berástegui. En la iglesia de allí cantamos por segunda vez la marcha de San Ignacio. En esta ocasión, llevando el paso (golpeando con los pies el suelo).

Luego nos dispersamos, a Belabieta y a hacer guardias. Nos juntamos otra vez en Berástegui. Irura. Alkiza. Ocho días.

(Encima de la Misericordia de Tolosa había una casa para los afectados de viruela. También allí estuvimos).

También en la Misericordia de Tolosa hicimos guardia. La Casa de la Beneficencia de entonces no estaba en el sitio de la de ahora, Según vas de Irura, (estaba) un poco antes de entrar en el puente, a mano izquierda. Ahora hay casas nuevas.

## Partida berria

## Nueva partida

Alkizan giñala, esan ziguten Zubieta alderako partida egin bear zala ta nai zuenak pauso bi aurrera egiteko. Inguru abeta-koak giñanak, beti ere Beko aldean naiago ta nik ta beste batzuek bi pausoak eman genitun. Partida aundia, eun bañon geiago. Kapitana, Meliton Zatarain, (Anbrosio ta Juan Jose osangille nere adiskideen aita), Usurbilko Torrekoa. Teniente, Sasiain, Usurbilgo bikario jaunaren illoba. Abiatu giñan.

Guardiak, Usurbilko San Esteban gañean ta zubitako. Zubietan gabeko patrullak, ta ur mean, ur gutxi zanean, ibaiz beste alde-  
tik. Usurbillen sartu bai, bañon ez lo. Bi *ronda*; bat gau erdirarte. Usurbillen ez zan guarniziorik, ta boluntariorik bat ere ez.

Oriora zeramaten *convoy* koxkor bat ere arrapatu genun. Alako batean, gabeko bigarren *ronda* egindakoa, goien giñan Romeroren jauregi ondoan; egunsentia. Zentinelak esan zun:

–Ara: Usurbillen –gere aurre-aurrean–, Txaparren zubi gañean, jendea ageri dek.

–Bai; alaxen dek. Txapel gorriak.

–Ea, ondo apuntatu! Bat, bi, iru, lau!

*Pruuum!* Laxter ziran danak korrika Kale-txikira. Arzelusenak ziran. Bat il genien. Plazentxitarra.

Estando en Alquiza, nos dijeron que había que formar una partida para la parte de Zubieta y que el que lo deseara diera dos pasos al frente. Los que éramos de este entorno preferíamos siempre en esta zona más baja, y yo y otros varios

dimos los dos pasos. Una partida grande; más de cien. Capitán, Melitón Zatarain, padre de los médicos Ambrosio y Juan José, amigos míos, de la Torre de Usúrbil. Teniente, Sasiáin, sobrino del señor vicario de Usúrbil. Nos pusimos en marcha.

Las guardias (las hacíamos) sobre San Esteban de Usúrbil y en el puente. En Zubieta, patrullas nocturnas, y cuando había poca agua, al otro lado del río. Entrábamos en Usúrbil, pero no dormíamos. Dos rondas; una, hasta la media noche. En Usúrbil no había guarnición, y ni un solo voluntario.

También nos apoderamos de un pequeño convoy que llevaban a Orio. En una de éstas, tras hacer la segunda ronda nocturna, estábamos arriba, junto al palacio de Romero; (era) el amanecer. El centinela dijo:

–Mirad: en Usúrbil –delante de nosotros– sobre el puente de Chaparrene se ve gente.

–Sí; así es. Son los boinas rojas (los miqueletes).

–¡Ea, apuntad bien! ¡Una, dos, tres, cuatro!

¡Pruuum! Pronto echaron todos a correr hacia Kale-txiki. Eran los de Arcelus. Les matamos a uno, natural de Placencia.

## Belabieta

–Belabietakoan?

–Ez giñan gertatu. Zubitan giñala, jakin genuen Santa Kruz ta Lizarragarenak tiroka zebiltzala.

–Joan bearko diagu– zion Melitonek.

–Goazen.

Artsaldean irten giñan ta Itxumitzan (Sorabilla ibai inguruan) lo. Gau artan zetozten Asteasutik Santa Kruz ta bereak. Gu goizean Asteasura. Antxusa-ta preso zeuden. Lizarragak itzaldi: «Berak Santa Kruz estimatzen zuela, bañan ezin zeikiela... Ez zuela berak (Lizarragak) Prantzira bota. Valdespinak eta danak ebaki zutela...».

Euskeraz polliki xamar egiten zun.

–Zer deritzaizkizu Lizarragaz?

–Gizon ona zala, ta onegi izateak galdu zula.

Zaratera bidali gindun, ta an giñala izan zan Belabitako atake gogorra. Tiroak-ta entzun genitun.

Bidani, Goiatz. Antxe giñan Antxusa il zutenean.

Oikiña aldera.

–Zertara?

–Esango dizut: Moriones-ek Tolosatik berriz Donostira. Batzuk itxasoz Zarautzara; besteak Arratzain aldetik Orio, Zarautz. Azpeitira jun nai zun, bañan Lizarragak bere batalloiak alde aietara eraman zitun, ta Moriones itxasoz Bizkairako asmoan. Gu, nere partida, Oikira. Zubia pasatzerakoan lanean ari ziran gureak zubia zulatzen. Oikian lotarakoan *prumm!*, zubia gora, Morionesenak ez igarotzeko.

24. Olentzaro, Oikiyan.

25. Egoarri eguna. Urdanetan meza entzun. Aian bazkaldu. Zubitan lo.

26. Alegira. An berritu zan batalloia, ta gure partida lenbiko konpañia. Irugarrenean, Antxusaren ordez, azkoitiar Karlos Alkorta kapitan.

30. Gabirira, bañuetara, mutillak atsa zutela. 10 egun. Ederki.

6 Ilbel. Erregetan Azp. 8 egun. 1874.

–¿En Belabieta?

–No nos tocó allí. Estando en Zubieta, nos enteramos de que los de Santa Cruz y los de Lizarraga se habían liado a tiros.

–Tendremos que ir –decía Melitón.

–Vamos.

Salimos a la tarde y dormimos en Itxumitz, cerca del río de Sorabilla. Aquella noche venían de Asteasu Santa Cruz y los suyos. Nosotros, a la mañana, a Asteasu. Anchusa y demás

estaban presos. Lizarraga habló: «Que él estimaba a Santa Cruz, pero que no podía ser... Que él (Lizarraga) no le había expulsado a Francia. Que lo habían decidido Valdespina y todos...».

Hablaba bastante bien en vascuence.

—¿Qué opina usted de Lizarraga?

—Que era un hombre bueno y que el ser demasiado bueno le perdió.

Nos envió a Zárate, y estando allí se libró el recio combate de Belabieta. Oíamos los tiros y demás.

Bidania, Goyaz. Allí estábamos cuando mataron a Anchusa. Hacia Oiquina.

—¿A qué?

—Se lo diré: Moriones tomó de Tolosa otra vez a San Sebastián. Algunos (se dirigieron) por mar a Zarauz; otros, por la parte de Arratzain, a Orío, Zarauz. Quería ir a Azpeitia; pero Lizarraga movió hacia esa zona sus batallones, y Moriones planeó ir a Vizcaya por mar. Nosotros, nuestra partida, a Oiquina. Al pasar el puente, estaban los nuestros trabajando en barrer el puente. Estando durmiendo en Oiquina, ¡prumm!, el puente por los aires, para que no pasaran los de Moriones.

24, día de Olentzaro (Nochebuena), en Oiquina.

25, día de Navidad, oímos misa en Urdaneta. Comimos en Aya. Dormimos en Zubieta.

26, a Alegi. Allí se renovó el batallón, formando nuestra partida la primera compañía. Capitán de la tercera, en sustitución de Anchusa, Carlos Alcorta, azcoitiano.

30, a Gabiria, al balneario, pues los chicos tenían sarna. Diez días. Bien.

6, enero, día de Reyes, a Azpeitia, ocho días. 1874.

## **Bi illabete gora ta bera Dos meses arriba y abajo**

Jo Zumarragara, jo Azpeitira.

–Zer bada?

–Ara: Gipuzkoan 8 batalloi osatu zirala, bañan lau (3, 4 ta 7, 8) Bizkaira junak. Gero Aritxulegitik Asteasuraño bide luzea bait da ta gutxinaz beste bi batalloi bear ziran. Gañera, Azpeitia gorde bear, kartutxo pabrikak an genitun ta. Tolosatik, berriz, ta baita Getaritik edo Altsatsutik ere, bat-bateko sartu aldia egin zezaketen etsaiak, eta orregatik gebiltzen Azpeiti inguruetan.

Orrela giñala, Zumarragan eman zizkiguten udarako brusak ta oñetakoak. Andik laxter kapote negukoak; auts koloreak. Gero, berriz, Urrestillan galtzak; franja gorria, aske, geronek jos-teko.

Marcha a Zumárraga, marcha a Azpeitia.

–¿Por qué?

–Mire: en Guipúzcoa se habían formado ocho batallones; pero cuatro, el 3º, 4º, 7º y 8º, habían ido a Vizcaya. Luego, desde Arichulegui hasta Asteasu hay mucha distancia y se necesitaban otros dos batallones, por lo menos. Además, había que guardar Azpeitia, pues teníamos allí las fábricas de cartuchos. Pero de Tolosa, y también de Guetaria o Alsasua, el enemigo se nos podía colar de repente, y por esa razón nos movíamos en las inmediaciones de Azpeitia.

Estando así, nos dieron en Zumárraga blusas para el verano y calzado. Al poco, capotes para el invierno, de color ceniza. Luego, en Urrestilla, pantalones, con la franja roja suelta, para que la cosiéramos nosotros.

## **Epaillean**

## **En Marzo**

1. Aingeru Goardako eguna, Tolosa entregatu zan. Ara joan ta antxe lo.

2. Zizurkil, Sorabilla. Iturrioztik Azpeitira berriz. Batallioia Elgoibar aldera ta gu, lenengo konpañia, atzerago.

1. Día del Ángel de la Guarda, se rindió Tolosa. Allí fuimos y allí dormimos.

2. Zizúrquil, Sorabilla. Por Iturrioz, otra vez a Azpeitia. El batallón hacia Elgóibar y nosotros, la primera compañía, algo más atrás.

## **Bizkaira**

## **A Vizcaya**

Azkoititik aldapa gora bueltaka.

–Nore ote goatxik?

Elgoibarko sarreran arrapatu batalloia, sartzeko formatzen ari zala.

Aurrera. Bergarara ote goaz? Ez: Eibarrara; lo.

Illaren 3-an Durangora. Zimitorio aundi pean. (Lo?)

Zornozaruntz gijoazela, bidean topo Segorbeko prisioneroak.

–Adios!

Ta:

–Adios!

Zornoza; pasa aurrera.

Bidebietan ez giñan geratu.

Amurrion, lo.

Balmasedan 8 egun. Kafe ta kopa 6 koartoz (20 zentimoz) ematen ziguten.

Desde Azcoitia, cuesta arriba, trazando curvas.

–¿A dónde vamos?

A la entrada de Elgóibar alcanzamos al batallón, que estaba formándose para entrar.

Adelante. ¿Vamos a Bergara? No; a Éibar. Dormir.

El día 3 del mes, a Durango. En el gran atrio. ¿Dormir?

Cuando caminábamos hacia Zornoza, nos encontramos con los prisioneros (del batallón) de Segorbe.

–¡Adiós!

Y:

–¡Adiós!

Zornoza; seguimos para adelante.

No nos detuvimos en Bidebieta.

Dormimos en Amurrio.

En Balmaseda, ocho días. Nos daban café y copa por seis cuartos, veinte céntimos.

## **Illabete ta erdi gora ta bera**

## **Mes y medio arriba y abajo**

Villaverde (de Trucios), 2 edo 3 egun.

Burgos aldera.

19, S. Jose eguna. Callejo dioten erri koxkor batean. Paseoz erten giñan karretera aurrera ta Anton (Santiyo mendikoa) bidesian exerita, egon.

–Zer dek, motel?

–Zer detan? Amaika S. Jose egun eder pasa izan ditugu, ta orain emen...

Tristurak eman ziyon.

–Motel, ator gurekin.

Tabernara eraman genun ta...

Karranzan lo.

Villaverde, Balmaseda.

23, Laudiora (Llodio erderaz).

–Zer zenuten orrenbeste batera ta bestera?

–Zer izango genun? Moriones zebillen inguru, nundikan sartuko zitzaigun. Bazirudien batean Orduña aldetik joko zula; bestean itxas aldetik, ta gu ere ibilli bear.

Atzanean Castro aldetik jo zun...

Villaverde de Trucios, dos o tres días.

Hacia Burgos.

19, día de San José. En un pueblo pequeño que le dicen Callejo. Salimos de paseo carretera adelante, y Anton (de Santiagomendi), sentado en el pretil del camino, quieto.

–¿Qué tienes, chico?

–¿Que qué tengo? Muchos buenos días de San José hemos pasado, y ahora aquí...

Se le había apoderado la tristeza.

–Chico, ven con nosotros.

Lo llevamos a la taberna y...

Dormir en Carranza.

Villaverde, Balmaseda.

El 23, a Laudío (Llodio en castellano).

–¿Qué teníais para tantas idas y venidas?

–¿Qué íbamos a tener? Moriones andaba cerca, a ver por dónde se nos colaba. Un día parecía que atacaría por la parte de Orduña; otro, que por la parte del mar, con lo que también nosotros teníamos que movernos.

Al final atacó por la parte de Castro...

## Somorrostrora

## A Somorrostro

Laudiotik Somorrostro gañera (+ dagon tokian).

Ara jun da «rompan filas» esandakoan, baimen eskatu genun Arenasetara joateko, 4-garrena an zegola ta lagunak ikustera. Illunabarrean gure tokira gijoazela, bidean zalaparta ta deadarrak. Zer ote da? Ta naparrak mortero bat mendi gañera zeramatela. Aurrera. Gure goizeko tokira eldu giñanean, danak erderaz ari ziran. Zer da au? Arabako laugarrengoak gure ordez. Gureak Kortesera aldatu zituztela. Ara. An lo ta egunsentian trintxerara.

De Llodio a encima de Somorrostro, a donde está la cruz.

Al llegar allá y decirnos «rompan filas», pedimos permiso para ir a Las Arenas, pues estaba allí el cuarto batallón, y a ver a



Aurreko muñoan geratu da salla. «Fuego a discreción» egiten ziguten.

Gerrillak ere asi ziran aldapa gora.

Illarrazuk deadar egiten zigun:

–Berrogei pausora etorri arte ez su egin.

Gu egon ta egon. Urreatu dira, bada, berrogei pausora-edo; beren kañoiak ixildu dira; orduan guk ekin. Beranduegi. Aurrera zetozten, arrastaka-ta: kefeak ezpataz joka. Gutxiegi giñan ainstesteri egon arazteko; ezker-eskui ere inguratzen giñuzten. Atzeratzeko agindu ziguten. Bost miñutu geiago egon bagina, danak galduak giñan.

Diyotenez, gure konpañi batek, lenbizikoak, uts egin zun ta zulo artatik sartu zirala etsaiak ta gure atzera jarri. Besteak, berriz, zioten gure eskuiko erreka zulotik iyo ta guri atzea artu zigutela.

Orduan agertu ziran goitik gure batalloi: kastillano, arabar... Armak armatzeko, ura burni otsa! Baionetak sartu, aurrera ekiñaz. Amar miñutuz lenago etorri izan balira, garaille giñan. Bata besteen parean geratu ziran alkarri tiroka, belauna lurrean zutela. Beltzak gure lubakietan geratu; andik gora ez ziran aurreratu.

An il zan Alkorta, azkoitiarra, irugarren konpañiko kapitana. Itxaso oñez. Zaldiya, mutillak eskutik zeramala, balaren batek jo zun noski ta an jun zan galopeka aldapa gora soldadu artean.

Las trincheras eran de tepes. Con poca profundidad dentro. Las granadas de cañón las agujereaban y traspasaban. Teníamos que estar acurrucados. Los muchachos, de dos en dos metros. Éramos pocos para hacer frente a tantos.

Cuando clareó el día, la carretera en frente de nosotros la vimos negra. Marchaban hacia Las Carreras. Y también una gran fuerza hacia nosotros. Comenzaron los cañones a tirarnos. Nosotros, cuerpo a tierra. De vez en cuando, las granadas levantaban la tierra delante de nuestra trinchera y eso nos perjudicaba.

La fuerza se detuvo en la colina que teníamos delante. Nos hacían «fuego a discreción».

También las guerrillas tiraron cuesta arriba.

Illarazu nos gritaba:

–¡Hasta que no estén a cuarenta pasos, no tiréis!

Nosotros quietos. Se acercaron, pues, hasta unos cuarenta pasos; callaron sus cañones; entonces la emprendimos nosotros. Era demasiado tarde. Seguían adelante, a rastras o como fuera; los jefes les golpeaban con el sable. Éramos demasiado pocos para contener a tantos; nos iban también rodeando por la derecha y por la izquierda. Nos ordenaron que reculáramos. De haber permanecido allí cinco minutos más, hubiéramos perecido todos.

Según se dijo, una compañía nuestra, la primera, había flaqueado y por aquella brecha se había colado el enemigo, situándose a nuestra espalda. Otros, en cambio, decían que habían subido por la hondonada a nuestra derecha y que así nos habían ganado la espalda.

Aparecieron entonces por arriba nuestros batallones: castellanos, alaveses... Al calar las armas, ¡qué ruido a hierro! Calaban la bayoneta y tiraban para adelante. Si hubieran llegado diez minutos antes, habríamos salido vencedores. Se detuvieron los unos al par de los otros, disparándose mutuamente, con la rodilla en tierra. Los liberales se quedaron en nuestras trincheras; de allí para arriba no dieron un paso.

Allí murió Alcorta, azcoitiano, capitán de la tercera compañía. Ichaso (iba) a pie. El caballo, que un chico llevaba de la brida, recibió un balazo y allí se fue al galope, cuesta arriba, entre los soldados.

## **26 ta 27...**

## **El 26 y el 27..**

Goragoko lubakietara.

–Ba-ez-padakoan egiñak al ziran?

–Ez nuke esango ordurako egiñak ziran edo gau artan egin zituzten. Andik suka bi egun aietan.


Releboak (aldaketak) lau ordutik lau ordura. Arabatarrak txandan. Lubakitik mendi gora ta bera agerian. An izaten genitun baja geienak. Andoaindar bati granadak besoa purrukatu, ta beste eskuekin eutsi ta aurrera. Besoa moztu ziyoten, bañan sendatu.

Zanjan zauritzen zutena, ez zan andik ateratzerik illunarañon. Arabar bat ikusi genun zaurituta, Jainkoari promesak-eta eskeñiaz... Gaba arte antxen egon zan. Sendatu zala.

Gabez ez zan pospollo piztutzerik, ezta dunda edo kardatsa erretzerik ere.

28: Parlamento. Alkar berriketa

29: Goiko lubakietan. Ez aurrera ta ez atzera. Mendi gañeko zelaian txabolak egin genitun. Bai bear ere, egoaldi oso txarrak asi ziran ta. Lurrean baionetakin zuloak egin:  $a - b$ . Goien  $c$  lotu ta bizkarrak zotalez estali. Lau ta bost mutil bakoitzean. Batzuetan erortzeko okertzen asten ziran ta orduan barrendik baionetakin txarrantxa ematen genien. Erri bat ematen zun. Txabola tarteko bideak oso labain, irrix egiteko egoki.



A las trincheras de más arriba.

–¿Estaban ya hechas por si acaso?

–No sabría decirle si estaban para entonces hechas o las hicieron aquella noche. De allí hicimos fuego aquellos dos días.

Los relevos, cada cuatro horas. Nos turnábamos con los alaveses. Desde la trinchera monte arriba y monte abajo, al descubierto. Allí teníamos el mayor número de bajas. A uno de Andoain una granada le destrozó el brazo, y él se lo sujetó con la otra mano y siguió para adelante. Le amputaron el brazo, pero se curó.

Al que herían en la zanja no se le podía sacar hasta que se hiciera oscuro. Vimos a un alavés herido, haciendo promesas a Dios... Allí estuvo hasta la noche. (Dijeron) que se había curado.

De noche no se podía encender una cerilla, ni tampoco mecha o yesca.

28: Parlamento.

29: En las trincheras de arriba. Ni para adelante ni para atrás. En el llano de lo alto del monte hicimos chozas. Es que las necesitábamos, pues empezaron unos tiempos muy malos. Con las bayonetas hacíamos en la tierra agujeros: a - b. Encima, en c, lo atábamos y las vertientes las cubríamos con tepes. Cuatro o cinco chicos en cada una. A veces se empezaban a torcer para caerse, y entonces les dábamos apoyo con las bayonetas. Parecía un pueblo. Los caminos entre las chozas muy resbaladizos, buenos para patinar.

## **Jorraillean**

## **En Abril**

Burruka gogorrik ez zan geiago izan. Egunez tiro gutxi; kañoizko bat edo beste. Aldaketa (erreleboa) ordutik ordura. Gabez lubaki lanean paisanoak eta. Egunaz ez bait zan egiterik ta. Len bañon geiago zulatu genitun; gizona zutik ibiltzeko aña. Lurra kanpora etsai aldera.

Gero lur au zabaldu egin zuten ta orduetzkeru artilleroak ezin apuntatu lur zabalduak, soro urratua ematen zun ta.

Kortes 25-an artu zutela, bañan laxter utzi zuten. Guk, goardi beko zubi zarrean. Sezio bat. Gañerako konpañi osoa gorago parapetoan.

Nun, batean, ikusten degun konboia zeramatela karreteraz. Tenienteak:

–Ea, mutillak! Jarri ta ondo apuntatu!

*Pruuum!* An ikusiko ziran aurretik zijoazten goardizibillak-eta igesi mandoak-eta utzita.

Tenienteak esan zigun:

–Ea kabo bat lau mutillekin salta ta joaten dan!

Nik baietz, ta nere lau mutillekin joan gera. Manduak artu, zortzi, ta abia gurietara. Lenengoan ez giñuzten ikusten goiko etsaiak, sakonean bait giñan ta; bañan gorago irten giñanean, asi zitzaizkiguten tiroka. Guk mandoen babesean aurrera, aldapa gora. Mandoak ostikoka balak artutakoan. Noizbait ere iyo gera. Bat bakarrik eritu, iztarrean.

–Ez nazazutela utzik, Jainkoatik!

Artu ta mando gañera bota genun. Mando batek 7 balazo; danak ariñak.

Goian arabatarrak.

–Bapo, mutillak!

An zegon jeneralak mando bat artu zigun. Gure batalloia alde egiña zan, ta gu lau mutil, ta arabar bi. An ez zala egoterik ta alde; illuna zan.

(Gau artan alde egin zuten Somorrostro aurrean ziran bata-lloi guztiak. Etsaiak atzetik arrapatu giñuzten ta).

Egun artako eginkizunagatik sarjento egin ninduten, ta gañera eguneko erreal zuben gurutzea eman zidaten.

Gau artan, bada, ibilli ta ibilli gure mandoekin, nun genbiltzen ez genekigula –bi arabarrak zekiten– ta gau erdian Ola-beagan giñala.

–Bazekiagu, ibai ondoan.

Andik aurreraxeago ta Desierton. Emen lo egin nai gendun, bañan obe gendula ibaia igaro. «Goazen, bada», ta Plentziraño

ez giñan geratu. Iya goiza zan. Plentzian sardiñ preskoak. Gipuzkoar batzuk arkitu. Aizpuru koronela aurreraxeago zegola ta arañjo joan bearko gendula.

Aizpuruk ederki artu gindun. Alojatzeko; mandoentzat ukullu ederra eskeñi ziguten. An mandoak jarri ta gu lo antxe bertan. Ura loa! Goizean esnatu giñanean, gure ukullua zaldiz ta mandoz bete-betea. Etxetik kanpora, soldaduz ta kañioiz. Guk, berriz, lotan giñala, iñor sartu zanik ere igarri ez.

–Zer zan ba?

–Bilboko setiotik zetozten kañoi ta batalloi; brigadak...

Goizean abiatu nai, bañan ezin gure txanda izan artean. Noizbait ere errenkadan jarri giñan. Aurrera. Kilometro bat ez gendun egingo ta gure batalloia bide ondoan formatuta.

–Zer zabiltzate, mutillak?

No hubo más combates fuertes. De día pocos disparos; alguno que otro de cañón. El relevo cada hora. Los paisanos trabajaban de noche en las trincheras, porque de día no se podía. Las ahondamos más que antes, tanto como para que anduviera un hombre de pie. La tierra para afuera, hacia el enemigo.

Luego esta tierra la extendieron, y desde entonces los artilleros no podían apuntar con la tierra esparcida. Parecía un campo labrado.

Que el 25 tomaron Las Cortes, pero pronto lo abandonaron. Nosotros (hacíamos) guardia en el viejo puente de abajo. Una sección. El resto, la compañía entera, más arriba, en el parapeto.

De pronto, dónde vemos que llevaban un convoy por la carretera. El teniente:

–¡Ea, muchachos! Colocaos y apuntad bien.

*¡Pruuum!* Allí verías a los guardias civiles y a los que iban en vanguardia abandonar los mulos y huir.

El teniente nos dijo:

–¡A ver si un cabo, con cuatro muchachos, salta y va!

Yo, que sí; y hala con mis cuatro chicos. Nos apoderamos de los mulos, ocho, y nos dirigimos hacia los nuestros. Al principio el enemigo no nos veía desde arriba, pues íbamos por la hondonada; pero cuando salimos a terreno más alto, comenzaron a dispararnos. Nosotros adelante cuesta arriba, al resguardo de los mulos. Estos daban coces al recibir los balazos. Subimos, por fin. Hirieron a uno sólo (de los nuestros), en el muslo.

–¡No me abandonéis, por Dios!

Lo levantamos y lo pusimos sobre un mulo. Uno de los mulos tenía siete balazos, todos leves.

Arriba estaban los alaveses.

–¡Bien, muchachos!

El general que estaba allí nos tomó un mulo. Nuestro batallón se había retirado, y nosotros éramos cuatro chicos, y dos alaveses. Que allí no se podía estar y nos fuimos; era ya oscuro.

(Aquella noche se retiraron todos los batallones que estaban ante Somorrostro, porque el enemigo se nos colaba por la espalda).

Por la hazaña de aquel día me nombraron sargento, y me concedieron además una cruz a la que le correspondía un real diario.

Conque aquella noche caminar y caminar con nuestros mulos, sin saber por dónde andábamos. Los alaveses sí lo sabían y a media noche: que estábamos en Olabeaga.

–Ya lo sabemos, junto a la ría.

Un poco más para adelante y (llegamos) al Desierto. Queríamos dormir allí, pero que era mejor pasar la ría. «Vamos, pues» y no nos detuvimos hasta Plencia. Era casi la mañana. En Plencia, sardinas frescas. Encontramos a unos guipuzcoanos. Que el coronel Aizpuru estaba un poco más adelante y que tendríamos que ir hasta allá.

Aizpuru nos recibió bien. Que nos alojáramos; nos ofrecieron un hermoso establo para los mulos. Metimos allí los mulos y nosotros a dormir allí mismo. ¡Qué manera de dormir! Cuando a la mañana nos despertamos, el establo estaba lleno por completo de caballos y mulos. El exterior de la casa, de soldados y cañones. Nosotros, en cambio, que dormíamos, ni nos dimos cuenta de que había entrado nadie.

–Pues ¿qué pasaba?

–Venían del sitio de Bilbao cañones, batallones, brigadas...

A la mañana (quisimos) ponernos en marcha, pero no podíamos hacerlo hasta que llegara nuestro turno. Nos pusimos, por fin, en la fila. Adelante. No habríamos caminado un kilómetro, cuando (nos encontramos) con nuestro batallón, formado junto al camino.

–¿Qué tal andáis, muchachos?

## **Maiatzean**

## **En Mayo**

Gipuzkoako batalloi geienak Probintzira etorri ziran. Gu ta bigarrengoak ez.

Zaldibarren iru egun.

Elorriotik Arlabanera. Andik sartuko ote ziran Gipuzkoara. Gu, lau mutillak, zazpi mandoekin.

Azpeitira. Artsaldeetan mando gañean Loiola paseoz, 3 edo 4 egun. Mandoak an eman genitun. Bi, gure batalloiko gurdirako; beste bostak, brigadarako. Andik irten bañon len, mandoai azken ikustaldi ta igurtze legunak egin genizkien.

Mondragoira. An lo egindako etxean ezagutu nun gero nere aitagiyarreba izango zana.

Arlaban.

Gatzaga. Illundu ta irten. Goizerako Salbatierran. Lo egin nai gendunean, «toque a la carrera». Gora, motellak! Bitoriko zaldizkoak zetoztela ta erria inguratu bañon len mendi zuloa artzera.

Urbasa barrena. San Martin? (Lo).

Estella.

Alloz. Emen jakin genun Ernani artzeko asmoetan zirala Gipuzkoan.

La mayor parte de los batallones de Guipúzcoa vinieron a la Provincia. Nosotros y los del segundo, no.

En Zaldívar, tres días.

De Elorrio a Arlabán. Que de allí podría entrar (el enemigo) a Guipúzcoa. Nosotros, los cuatro muchachos, con siete mulos.

A Azpeitia. Por las tardes, montados en los mulos, de paseo a Loyola, tres o cuatro días. Entregamos allí los mulos. Dos, para el carro de nuestro batallón; los otros cinco, para la brigada. Antes de salir de allí, les hicimos a los mulos una última visita y unas suaves caricias.

A Mondragón. En la casa en que allí dormimos, conocí al que sería después mi suegro.

Arlabán.

Salinas. Al anochecer, salimos. Para la mañana, en Salvatierra. Cuando nos disponíamos a dormir, «toque a la carrera». ¡Arriba, muchachos! Que venía la caballería de Vitoria y que, antes de que rodearan el pueblo, buscáramos refugio en el monte.

A través de Urbasa. ¿San Martín? (Dormir).

Estella.

Alloz. Aquí nos enteramos de que en Guipúzcoa planeaban la toma de Hernani.

## **Estella aurrean**

## **Delante de Estella**

San Joanak ziran. Iru eguneko burruka gogorra. Gu Grozinen. Granadak elizatxoan jo ta arriak botatzen zizkiguten.

Sasiain tenientea eritu ta geronek eraman genun Iratxeraño. Irugarren lo eginda deitu ziguten. «Orain ere bai?». Jarri giñan

gere tokietan tente ta nun urrutira ikusten degun etsai gurdi errenkada, len etorritako bidean zijoala. Ziraukira. Artsalde artan bertan.

29? Iratxe aurreko “gran parada”; an ezagutu nun erregea.

Altsatsura. Illabete “contra caballería”-ko ikasketak, Olatzagutiko zelaietan-ta.

Eran los días de San Juan. Tres días de encarnizada batalla. Nosotros en Grocin. Las granadas pegaban en la iglesita y nos salpicaban de piedras.

El teniente Sasiain cayó herido y nosotros mismos lo llevamos hasta Irache. A la tercera dormida nos despertaron. «¿También ahora?». Nos colocamos firmes en nuestras posiciones y dónde vemos a lo lejos una columna enemiga de carros que se iba por el camino por el que había venido. A Cirauqui. Aquella misma tarde.

¿El 29? Delante de Irache, gran parada; allí conocí al rey.

A Alsasua. Un mes aprendiendo tácticas contra la caballería, en los campos de Olazagutía.

## Gipuzkoara

## A Guipúzcoa

Agoztuko 22-23 Ataunen lo. Tolosara. Emendik Andoaiñara iges aldi bat egin genun. Illunabarreko *listara* ez giñala etorri ta “arrestados” Tolosako Justizi palazioan.

24. Urrengo egunean San Bartolome, Ibarako jaiak. Nere gurasoak ta osabak jun dira T. Koronelengana ta askatu gaituzte. Andoaiñara. Destakamento. Aste bat edo. Arrikartera. Gure batailloiak mutil asko galdu zitula ta ordaintzeko mutil bilketan Usurbil ta Orioko inguruetan. Ortarako gure konpañia. Zubietan biltzen genitun mutil berriak.

–Oiek ere boluntario al ziran?

–Bai; gogoz etörtzen ziran. Baziran zai zeudenak ere.

Zubitan zenbat mutil ainbat errazio. Bañan gero, bazkaitara beren etxera nai zutenai uzten genien, ta errazioak guretzat.

El 22-23 de Agosto dormimos en Atáun. A Tolosa. De aquí hicimos una escapada a Andoain. Que no nos habíamos presentado a la lista del anochecer y quedamos arrestados en el Palacio de Justicia de Tolosa.

24. Al día siguiente, San Bartolomé, fiestas de Ibarra. Mis padres y tíos se presentaron al teniente coronel y nos dejaron libres. A Andoain. Destacamento. Una semana o así. A Arricarte. Que nuestro batallón había perdido muchos chicos y, para cubrir bajas, anduvimos reclutando muchachos en los alrededores de Usúrbil y Orio. (Designaron) para eso a nuestra compañía. Concentrábamos en Zubieta a los nuevos chicos.

—¿También esos eran voluntarios?

—Sí; venían por su voluntad. Hasta había quienes estaban esperando.

En Zubieta, tantas raciones cuantos chicos eran. Pero después, a los que querían ir a comer a sus casas se lo permitíamos, y las raciones para nosotros.

## **San Martiñetan (1874) Por los días de San Martín**

Irunen-ta burruka gogorra. Gu ez giñan an gertatu. Andoaiñen. Ara etorri zitzaigun Naparroako laugarrena. Naparrak amorruru bizian zetozten, berak zeuden tokira uste gabeen liberalak sartu zitzaizkiela ta. Andoaiñen geratu ta gu aien orde z Goiburutik Oiartzun gain aldera.

Pagollagan errazioak. Goizeko amarrak-edo izango ziran.

Uxategi. Otz ta ebia zan. Gero elurra. Gatzarrietara igo giñanean elurra ia belaunetarañoa.

Gure kapitanak zaldia bazun, bañan otzagatik oñez zijoa.

Orrela, gure mutil bat otzaz ta aulkeriz lurrera erori da. Kapitanak zaldi gañera jasotzeko. Jarri gendun ta bagijoazen, gu ere ez oso sendo. Gero beste bat lurrera, geroxeago bestea. Gure zaldi gañekoa ere erori ta an utzi gendun.

Noizbait ere Lesakara eldu gera. Illuna zan. Goizeko amarretatik ezer artu gabe. Erria guda gizonez bete betea zegon. Errian zeudenak erriz kanpora baserrietara-ta irtenazi zituzten ta gu erriko etxeetara. Su egin.

An bertako gizonak irten ziran guk bidean erorita utzitakoen billa. Batzuk illak zeuden, beste batzuk sukondoan pixtu ziran. Artean udarako blusak genitun. Lo.

Santestebanera. Bide motxa, Lo.

Irurita. Zubieta. Leiza. Ibarra. Emen eman zizkiguten kapote (grisak) ta brakak (franja berdea). Andoaiñara berriz.

En Irún y demás recio combate. A nosotros no nos tocó allí. En Andoain. Allá se nos presentó el cuarto de Navarra. Los navarros venían de muy mal genio, porque los liberales se les habían metido por sorpresa a donde ellos estaban. Se quedaron en Andoain, y nosotros a reemplazarles, por Goiburu a las alturas de Oyarzun.

En Pagollaga, las raciones. Serían las diez de la mañana, poco más o menos.

Uxategi. Hacía frío y llovía. Luego nieve. Cuando subimos a Gatzarrieta, la nieve casi hasta las rodillas.

Nuestro capitán tenía caballo, pero por causa del frío iba andando.

Así las cosas, un chico nuestro cayó al suelo de frío y debilidad. El capitán, que lo pusiéramos sobre el caballo. Lo pusimos y seguimos, aunque tampoco nosotros íbamos demasiado fuertes. Luego, otro al suelo; y un poco después, otro. El que iba sobre el caballo cayó también, y allí lo dejamos.


Llegamos por fin a Lesaca. Era ya oscuro. Sin tomar nada desde las diez de la mañana. El pueblo estaba abarrotado de

soldados. A los que estaban en el pueblo les hicieron salir afuera, a los caseríos, y nosotros a las casas del pueblo. Hicimos fuego.

Los hombres de allí salieron en busca de los que habían caído en el camino y nosotros habíamos dejado. Algunos estaban muertos; otros revivieron junto al fuego. Todavía estábamos con blusas de verano. Dormir.

A Santesteban. Camino corto. Dormir.

Irurita. Zubieta. Leiza. Ibarra. Nos dieron aquí capotes, grises, y pantalones con franja verde. Otra vez a Andoain.



## Urnietakoa (1874)

## Lo de Urnieta

Gu Arkaitzaga gañean. Bala bat edo beste etortzen zitzaigun. Utsa. Goitik begira.

Gure azpiko baserrian, Azkortan, arrapatu genun Ama Berjin bezperan konpañi osoa. Andoainen ikusi genitun; beren kapitana asuna bañon berdeagoko luze bat.

Ama Birjin egunean. Goitik ikusten genun dana. Aritzola, Ernani gañean, Estado Mayor ta tropa pillá aundiak.

Andik abiatu ta Urnietako estazio parean gerrillak zabaldu; gero konpañi osoak bota... Danak alperrik.

Nosotros, en el alto de Arkaitzaga. Nos llegaba alguna que otra bala. Nada. Lo contemplábamos desde arriba.

En el caserío que estaba a nuestros pies, en Azkorta, hicimos prisionera a toda una compañía la víspera de Nuestra Señora. Los vimos en Andoain; su capitán era un tipo largo, más verde que una hortiga.

En el día de la Virgen. Lo veíamos todo desde arriba. En Aritzola, sobre Hernani, el Estado Mayor y grandes contingentes de tropa.

Partieron de allí y al par de la estación de Urnieta se desplegaron en guerrillas; luego lanzaron compañías enteras... Todo en vano.

## 1875

Meagetakoan ta ez giñan gertatu. 1875-ko Otsailla.

No nos tocó en lo de Meagas. Febrero de 1875.

## Buruntzakoan

## En lo del (monte) Burunza

1875, Kandelarietan.

Gu Andoainen, Beltranenean (Azkonabitako parean). Goiz argitu bañon len, tiroak Arrikaitzaga aldera.

–Zer ote da? Gureak bata besteak tiroka ari ote dituk?

Goizean lañua zan. Garbitutakoan, Arkaitzaga gañetik Arrikarteraño liberal errenkada beltz-beltza.

Gu, Andoaingo aurrean formatuta.

Surik etzan izan. Berak jetxi ziran berez.

1875, en la Candelaria.


Nosotros en Andoain, en Beltranene, al par de Azkonabita. Antes de amanecer, tiros hacia la parte de Arrikaitzaga.

–¿Qué es eso? ¿Los nuestros se habrán liado a tiros unos con otros?

A la mañana había niebla. Cuando despejó, una fila liberal,  
 muy negra, desde el alto de Arkaitzaga hasta Arrikarte.  
 Nosotros en formación, delante de Andoain.  
 No se hizo fuego. Bajaron ellos mismos.

## Orio aurrekoak

## Lo de delante de Orio



1875-garreneko Otsail asieran.

Udaraberi zan ta gure etsaiari zer edo zer egiteko asmoz ziran.

Alako batean, mikeleteak-ta Orio aurreko ibaia txalupetan-ta pasa ta Amuzko Etxeberri artu ta antxe geratu.

Zer nai zuten? Azpeitiko bidea artu? Edo gu arunzko aldera eraman, berak beste aldean egitekoa egiteko? Au izango zan noski.

Gu, batalloi bik inguru guztia artu genien. Lenengo bata-lloikoak Zubietatik asi ta Aiarañon: San Esteban, Puella, Zarate (benta), Eztenaga; berago Pagarraga, Lokate, Azpilkueta.

Aiatik itxasorañon, Zarautzen zeuden 5-garrengoak jarri ziran.

Aiako kanposantuan kañoiak ipiñi genitun.

Amuzkotik bota bear genitula gure nagusiak erabaki dute. Gabez. Martxoaren 10-an.

Ni ta beste batzuk Lokaten giñan. An armak utzi ta jetxi gera Azpilkoetako bentara, iñori ezer esan gabe. An mutil pillaa undia, jan ta edan. Gu goiko bizitzan. Gu an giñala ta ezer ez genikula, abiatu dira nere konpañiakoak Amuzkora. Bentan giñala, bada, entzun gendun *ti-ta*.

–Zer ote da?

Gure konpañia Amuzkoan tiroka.

–Ea, mutillak!

Abiatu gera aldapa gora. Lokaten armak artu ta bagiatxik ito-itoan. Amuzkora orduko bazetozten atzera gureak.

Illunakoan sartu ziran lubakian, bai an billatutakoak baio-netaz josi ere; bañan barrengoak gogor egin zuten, ta gureen lanak alperrik. An il ziguten Jose Petritza, Zubietako semea, atea aizkoraz joka ari zala.

Jose gizagajoari gerrikoan ontz urrezkoak billatu zizkioten. Baita urrengo egunean mikeleteak deadar egiñaz ziguten:

–Orlako asko al dituzute? Bialdu, bialdu onera, pozez artuko ditugu ta!

Parlamentoa. Ostiral santu eguna zan. Gu Amuzko aurrean, Urkigian. Etxerik etzan; urkiak baizik. Mikeleteak asi ziran:

–Gaur, ostiral santu eguna, ez degu su egiteko ordenarik.

–Ondo –guk– noizean bein pake aldi pixka bat.

–Nai al dezute armarik gabe etorri?

–Bai –guk.


Goizean zan. Jetxi giñan batak ta besteak armak utzita, ta an aritu giñan berriketan, bazkaitara arte. Artsaldean berriz. Pai-

sano-ta asko. Orrela giñala, gure artilleroak kañonazoa botatzen digute.

–Ea, mutillak, bakoitza bere zulora! Aguro gero!

Pagarragan gure ingenieroak bateriak egin ta kañoiak ipiñi genitun, ta *zipli-zapla* zubia purrukatu genien. Erriari ezer ez, Orioko apaizak ez zun nai ta.

Urkigiko trintxeratik gure teniente Martin Jose (Ernanin alprajeta denda izan zun) betaurrekoekin begira zegola, balak beraurrekoak jo ta garrondotik irten. Sendatu zan, bañan aurpegi guztia kristal zuloz betia utzi zion. Emigrazioan il zan. Ez zun etorri nai izan.



Bitartean, liberalak, Igeldo gañetik asi ta Oriamendira, fuer-teak (gudetxeak) egiten ari ziran. Egindakoan, Maiatzean, Amuzko, Orio ta Usurbil utzi ta atzeratu, ta gu aurrera. Mendi-

zorroztik Teresategira. Orio ta Usurbil oso guretzat geratu ziran. Orion jarri zan 5-garren batallioia.

Usurbillen jarri zan seigarrena.

Lasarte, Arrikarte ta Andoaíñen 1, 2 ta 7 (ez beti).

3 ta 4-garrena Txoritokieta ta San Markosen.

8-garrena Irun aldera.

Ernaniko bidean kalte aundi egiten zieten gure Erastorbe (Mugerzak), ta Oriamendi bideko etxeak sendotu ta bide ondo esiak zotal ormaz egin zituzten.

Intxaurrondo.

Txandermenea.

Katxola (orain Pakea) bide ezkerrera, Aieteren urren.

A comienzos de Febrero de 1875.

Era la primavera y estaban con ganas de hacerles alguna faena a nuestros enemigos.

En una de éstas, los miqueletes y demás pasaron el río de delante de Orio en barcas, tomaron Amuzko-Etxeberri y allí se quedaron.

¿Qué es lo que querían? ¿Tomar el camino de Azpeitia? ¿O llevarnos a nosotros a la orilla de allá, para que ellos hicieran alguna fechoría en la otra? Esto segundo, seguramente.

Nosotros, dos batallones, les ocupamos todo el contorno. Los del primer batallón, desde Zubieta hasta Aya: San Esteban, Puella, venta de Zárate, Eztenaga; más abajo, Pagarraga, Lokate, Azpilcueta.

Desde Aya hasta el mar, los del quinto, que estaban en Zarauz.

En el cementerio de Aya emplazamos los cañones.

Nuestros jefes decidieron que había que echarlos de Amuzko. De noche. El 10 de Marzo.

Yo y unos cuantos más estábamos en Lokate. Dejando allí las armas, bajamos a la venta de Azpilcoeta, sin decirle nada

a nadie. Un buen grupo de muchachos allí, comiendo y bebiendo. Nosotros, en el piso de arriba. Estando nosotros allí y sin que lo supiéramos, los de nuestra compañía se pusieron en marcha hacia Amuzko. Estando, pues, en la venta, oímos: *ti-ta*.

—¿Qué es eso?

Nuestra compañía a tiros en Amuzko.

—¡Ea, muchachos!

Nos pusimos en marcha cuesta arriba. Tomamos en Lokate las armas y continuamos echando los bofes. Para cuando llegábamos a Amuzko, volvían para atrás los nuestros.

Al hacerse oscuro entraron en la trinchera, cosiendo a bayonetazos a los que encontraron allí; pero los de dentro se hicieron fuertes y fueron en vano los esfuerzos de los nuestros. Nos mataron allí a José Petriza, natural de Zubieta, cuando estaba golpeando la puerta con un hacha.

Al pobre José le encontraron en el cinto onzas de oro. Al día siguiente los miqueletes nos decían a gritos:

—¿Tenéis muchos como éste? ¡Enviadlos, enviadlos para acá, que los recibiremos a gusto!

Parlamento. Era el día de viernes santo. Nosotros, delante de Amuzko, en Urkigui. No había casas; sólo abedules. Los miqueletes empezaron:

—Hoy, día de viernes santo, no tenemos orden de abrir fuego.

—Está bien —nosotros— un poco de paz de vez en cuando.

—¿Queréis venir sin armas?

—Sí —nosotros.

Era a la mañana. Bajamos unos y otros, dejando las armas, y estuvimos charlando hasta la hora de comer. Otra vez a la tarde. Muchos paisanos y demás. Estando así, nuestros artilleros nos lanzan un cañonazo.

—¡Ea, muchachos, cada uno a su agujero! ¡Pero rápido!

Nuestros ingenieros habían preparado unas baterías en Pagarraga, y colocamos los cañones y les destruimos *zipli-zapla* el puente. Pero al pueblo (no le hicimos) nada, porque el cura de Orio no lo quería.

A nuestro teniente Martín José, que tuvo tienda de alpagatas en Hernani, estando mirando con catalejo desde la trinchera de Urkigui, una bala le dio en el catalejo y le salió por el cogote. Se curó, pero le dejó toda la cara llena de agujeros de los cristales. Murió en la emigración. No quiso volver.

Entre tanto, los liberales estaban construyendo fuertes, desde lo alto de Igueldo hasta Oriamendi. Una vez hechos, en Mayo, abandonaron Amuzko, Orio y Usúrbil y retrocedieron, y nosotros adelantamos las líneas. De Mendizorroz a Teresategui. Orio y Usúrbil quedaron completamente nuestros. En Orio se situó el quinto batallón.

En Usúrbil, el sexto.

En Lasarte, Arrikarte y Andoain, el primero, el segundo y el séptimo, (no siempre).

El tercero y el cuarto, en Choritoquieta y San Marcos.

El octavo, hacia la parte de Irún.

En el camino de Hernani les causaba muchas pérdidas nuestro Erastorbe, Muguerza, y en el camino a Oriamendi fortificaron las casas, y los caminos los flanquearon con paredes de tepes.

Inchaurrondo.

Chandermenea.

Katxola (ahora Pakea) a mano izquierda, próximo a Ayete.

## **Espedizioa**

## **La expedición**

Bigarrena. Lenengoa Somorrostro ta Estellakoa izan zan.

San Juan eguna edó. Trenez Zumarragaraño. Bergara (lo), Elgeta, Elorrio, Zornoza... Balmaseda aldera.

San Pedro eguna zan. Burgos aldeko erri txiki batean illunabarrean sartzeko giñala. Aurretik gastadoreak, urren banda, gero plana mayor. Errian sartu bañon lentxeago erritik zetorren batek esan du:

–Nora zoazte? Liberalak barruan daude zuen zai enboskadan.

Alto! Geratu ta atzera. Etsaiak ikusi zutenean, kaballeria bota ziguten. Zaldi gañetik tiro gaizki egiten da. Kuadro formatzeko. Goazen aurreko menditxora. Andik su gogor egin genun ta pakean utzi giñuzten. An bertan lo.

Araba aldera. Maestu. Naparroara. Población. Logroño aurrera.

La segunda. La primera fue la de Somorrostro y Estella.

Hacia el día de San Juan. En tren hasta Zumárraga, Bergara (dormir), Elgueta, Elorrio, Zornoza... Hacia Balmaseda.

Era el día de San Pedro. Estábamos a punto de entrar en un pueblo pequeño de la parte de Burgos, al anochecer. Por delante los gastadores, a continuación la banda, después la plana mayor. Un poco antes de entrar en el pueblo, uno que venía de él dice:

–¿A dónde vais? Los liberales están dentro, esperándoos emboscados.

¡Alto! Nos detuvimos y atrás. Cuando lo vio, el enemigo nos lanzó la caballería. Desde encima del caballo se dispara mal. Que formáramos el cuadro. Vamos a la colina de enfrente. Desde allí les hicimos un recio fuego y nos dejaron en paz. Allí mismo dormimos.

Hacia Álava. Maestu. A Navarra. Población. A (situarnos) enfrente de Logroño.

## Viana

Garagar illaren 28 edo 29-an.

Ibiltaldi gogorra egin genun. Erria bañon lentxeago egon ta danak lurrean etzan giñan.

–Aurrera! –Sebastian komandanteak–. Ea, mutillak, beste pixka bat!

Jaiki ta musika joaz sartu. Plazara.

–¡Alto!

Ta etzan berriz ere antxe bertan.

Bando egin zuten guri etxeetan lo tokiak atontzeko.

Morgrobejo zan an guda nagusi.

Urrengoan, beragoko barriora aldatu. «Goazen!». Andik Ebroko ibarrak. Logroño gure aurrean. Gure nagusiak betaurrekoaz ikusten zuten trenak nola zetozten soldaduz bete-beteta.

Illunabarrean “toque de llamada”. Aurreko muño batera. Bageneramazken mortero bi. Illunakoan asi dira artilleroak morteroak ta bonba Logroñora botaka.

Urrengo egunean, Morgrobejok alde egin du La Guardi aldera, zaldizkoak berekin eramanez.

El 28 ó 29 del mes de julio.

Hicimos una fuerte caminata. Un poco antes del pueblo, nos detuvimos y nos echamos todos al suelo.

–¡Adelante! –Sebastián, el comandante–. ¡Ea, muchachos, un poco más!

Nos levantamos y entramos tocando música. A la plaza.

–¡Alto!

Y nos tumbamos otra vez allí mismo.

Echaron bando para que nos prepararan en las casas alojamiento para dormir.

Morgrobejo era allí el jefe militar.

A continuación, que bajáramos al barrio de abajo. «¡Vamos!»». Desde allí (empezaban) las llanuras del Ebro. Logroño (quedaba) delante de nosotros. Nuestros jefes veían con catalejo cómo llegaban trenes cargados de soldados.

Al anochecer, "toque de llamada". A un cerro que estaba delante. Llevábamos dos morteros. Al hacerse oscuro, empezaron los artilleros a disparar morterazos y bombas a Logroño.

Al día siguiente, Morgrobejo se fue hacia La Guardia, llevándose consigo la caballería.

## **San Inazio eguna**

## **Día de San Ignacio**

Bazetoztik Logroñotik etsaiak, iru salletan. Gure ezker aldera zaldizko sallak, gu inguratzeraz. Gure eskuikoak zearka; gure konpañi bat arrapatu zuten. Erdiko salla aurrez aurrez errira.

Gu (gutxi; konpañi erdi edo) ostatu etxean. Logroño aldera. Ederki ikusten genitun nola zetozten. Gariak iya mozteko zeudela, su eman zien. Kea izugarria soro aietan.

Guk, leiotan koltxoiak ipiñita, su egiten asi giñan. Uste genun seguru giñala. Norbait etorri zitzaigun esanaz:

–Zer ari zerate? Zuen batallioiak-eta alde egin dute.

–Bai?

Ta:

–Bai.

–Goazen, bada.

Lenago errazioak artu genitun ta guretako batek baita ardo zar ontzi bat ere.

Erritik ertetzerakoan, zetozten ezker aldekoak. Amar miñutuz ez giñuzten erdian artu.

Laxterka-laxterka aldapa gora; noizbait ere batallioia artu degu. Eskuiko kaballeria aurreratu zitzaigun. Sebastianek:

–Kuardro egin!

Bai egin ere. Olatzagutin ikasiyai eskerrak. Su; aguro itzuli ziran. Ura burni otsa!

Mendi gañean geratu giñanean, guk, ostatukoak, zatuak beteak; besteak utsik. Sebastianek:

–Ardo tanta bat bai al dezute?

–Bai, jauna, bai. Ar beza; baita ogia ere.

Artu zitun ta erreal bi eman zizkidan.

Gu an gebiltzala izan ziran: Zumelzu (Trebiñoko burruka), 7-an. Billafrankan Karlos VII-k Fueroak juratu zituna.

Oraindik izan zan Naparroara espedizioen bat, bañan aguro itzuli ziran, liberalak Donostira jende asko ekarri zutela ta.

Venía de Logroño el enemigo, en tres columnas. A nuestra izquierda, la caballería, para rodearnos. Los de nuestra derecha, sesgados; hicieron prisionera una compañía nuestra. La columna del centro, derecha hacia el pueblo.

Nosotros, unos pocos, algo así como media compañía, en la casa de la posada. Cara a Logroño. Veíamos muy bien cómo se acercaban. A los trigos, que estaban a punto de siega, les dieron fuego. Una humareda terrible en aquellos campos.

Nosotros, puestos colchones en las ventanas, empezamos a disparar. Creíamos que estábamos seguros. Alguien vino diciendo:

–¿Qué hacéis? Vuestros batallones se han largado.

–¿Sí?

Y:

–Sí.

–Vámonos, pues.

Antes tomamos las raciones, y uno de los nuestros también un recipiente de vino viejo.

Al salir del pueblo, se nos acercaban los de la izquierda. Por diez minutos no nos coparon.

A todo correr, cuesta arriba; alcanzamos por fin al batallón. La caballería de la derecha se nos adelantó. Sebastián:

–¡Formad el cuadro!

Lo formamos. Gracias a lo aprendido en Olazagutía. Fuego; pronto volvieron grupos. ¡Qué ruido a hierro!



Andra Maietako Tolosan. Andoañara.

Urkabe. Iraillaren 15-an artu ziguten. Egun argi bañon lenago. Andoaindik irten ta karlistak atondutako bidetik joan giñan.

–Zer bide zan ori?

–Ara: Andoaindik Oiartzunako bide zabala Ernanitik dijoa, ta gureztat ez bait zan Urnietatik aurrera sartzerik eta orregaitik atondu zituzten Goiburutik Bentetara arteko bideak. Artilleri ta kotxe ta danentzat.

Prantzillagan lo. Otsazuloetatik Bentetara. Emen egon alditxo bat. Goiz goizetik entzun gendun San Markos aldeko tiro-zalaparta. An zan gogorrena.

Gure aldera kolumna bi. Bat Erreteritik. Malda gañez, aldapa legun-legun sakonik gabe, Zamora gañeraño errex etortzen ziran. An aurrean bagenun trintxera, konpañi bat edo. Abek galdu ziran. Zamoran zeudenak atzea artu zieten uste gabean. Ekin diyote baionetaka. An il zuten Etxeberria tenientea (Eskoriatzakoa) ta besteren bat. Gañerakoak alde.

Urkabe(tik) zetoztenak Iturriotztik Munuaundi aldera. Gu irten giñan Bentetatik eta arbola tartean ikusi ditugu; bai su egiñ ere. Atzeratu egin ziran.

–Ta Zamorakoak?

–San Markos aldekoa nola ote zijoan zai. Beltzak gora iyotzen baziran, aiek artuko zituzten atzetik; bañan ez zitzaïen orla gertatu, ta Erreterira berriz. Bai aguro ere. Gu aien ondoren. Laxterka. Bidez, morralak arintzeagatik, arroza-ta pillaka boteaz. An billatu genun Etxeberri gizagajoa, baionetakaz josiya.

Para Nuestra Señora, en Tolosa. A Andoain.

Urkabe. El 15 de septiembre nos lo tomaron. Antes de hacerse de día. Salimos de Andoain y nos fuimos por el camino preparado por los carlistas.

–¿Qué camino era ése?

–Mire: la carretera de Andoain a Oyarzun va por Hernani,

pero nosotros no podíamos pasar de Urnieta para adelante, y por eso habilitaron los caminos de Goiburu a Ventas. Para artillería, para coches y para todo.

Dormimos en Prantzillaga. De Otsazuloeta a Ventas. Aquí una breve parada. Desde la mañana oíamos el tiroteo hacia San Marcos. Allí era lo más recio.

Dos columnas (venían) hacia nosotros. Una, desde Rentería. Por la ladera, con una pendiente muy suave y sin hondonadas, alcanzaban fácilmente el alto de Zamora. Allí delante teníamos una trinchera, con una compañía. Estos se perdieron. Los que estaban en Zamora les ganaron la espalda sin que se dieran cuenta. Se lanzaron a la bayoneta. Allí mataron al teniente Echeverría, de Escoriaza, y a algún otro. Los demás huyeron.

Los que venían de Urcabe, por Iturrioz hacia Munuaundi. Nosotros salimos de Ventas y los vimos entre los árboles. Les disparamos. Retrocedieron.

—¿Y los de Zamora?

—Esperando a ver en qué paraba lo de San Marcos. Si los liberales alcanzaban la cima, los cogerían por la espalda. Pero no sucedió así y otra vez a Rentería. Y rápido. Nosotros, detrás de ellos. Corriendo. De camino, para aligerar los morrales, tiraban el arroz y lo demás a montones. Allí encontramos al pobre Echeverría, cosido a bayonetazos.

## **Mendizorrotzkoa**

## **Lo de Mendizorroz**

1876, Ibeltzaren 29-an.

Gu Arrikarten giñan. Artsaldean, aurrera joateko. Teresategi aldetik sartu giñan. Liberalak Belartza goikoan ta bekoan sartu, gaba pasatzeko asmoan.

Guk ekin genien bekoai, etxea zulatzen ari zirala. Atzeko atetik jun zitzaizkigun goikora. Andik arrika ekin ziguten.

1876, 29 de Enero.

Nosotros estábamos en Arrikarte. Por la tarde, que tiráramos para adelante. Entramos por la parte de Teresategui. Los liberales en (el caserío) Belartza de arriba y en el de abajo, con ánimo de pasar la noche.

Nosotros arremetimos contra los de abajo, cuando estaban perforando la casa. Por la puerta de atrás se nos fueron a Belartza de arriba. De allí empezaron a tirarnos piedras.

## Montebideo



Montebideo, Ernaniko estazio parean.

–Montebideo zuen mendean?

–Bai.

–Nola zeikeen, bada, etsaiak Ernani ta Astigarragan zirala?

–Liberalak Astigarraga utzi zutenean artu genun. Andik Ernani tiro noiznai ta angoak naigabe.

Montevideo, al par de la estación de Hernani.

–¿Montevideo estaba en poder de ustedes?

–Sí.

–¿Cómo puede ser, estando el enemigo en Hernani y Astigarraga?

–Lo tomamos cuando los liberales abandonaron Astigarraga. Desde allí disparábamos en cualquier momento a Hernani, para disgusto de los de aquí.

## **Mikeleteak**

## **Los miqueletes**

Amuzko-etxeberrita utzi zutenean, Loiolan jarri zituzten. Emendik Donostira iges-aldiak, gabez batez ere, egin oi zituzten. Ezin jun zeitezken karreteratik, Alkoleako goardiak (boluntarioak) galerazi egiten zien ta mendiz, ibaia igarota Txorkoenetik.... ta Polloe edo... Atotxara.

Alako batean, mikelete(et)ako agintariyai esan diote urrengo egunean, egun sentirako, Txoritokietako bean izan bear zutela.

Zendoia kapitanak kornetak jo erazi ditu, oraindik mutillak lo zirala. Jaiki bear. Formatu. Lista pasa. Mutil batzuek falta. Zendoia amorratuta. Batzuek Donostira junak. Sarjentoak esan omen zion:

–Goien ere batzuek izan bear dute.

An dioa Zendoia ta... belar pilletan ezpata sartu, bai baionetak ere.

–Ai, ai, ai!

–Ator! Ator!

Pitax tolosarra ta.... Ez zan Pitax bakarrik. Bizkarretan zigorkadak emanaz daramazki... Txoritokietara.

Cuando abandonaron Amuzko-Etxeberri y demás, los colocaron en Loyola. De aquí hacían escapadas a San Sebastián, sobre todo de noche. No podían ir por carretera, porque los guardias de Alcolea, voluntarios, se lo impedían, y (marchaban) por monte, pasando el río por Txorkoene... y por Polloe o por donde fuera... a Atocha.

En cierta ocasión, les comunicaron a los mandos de los miqueletes que al día siguiente, para el amanecer, debían estar al pie de Choritoquieta.

El capitán Cendoya hizo sonar las cornetas, estando aún durmiendo los chicos. Tuvieron que levantarse. Se formaron. Pasaron lista. Algunos chicos faltaban. Cendoya muy enfadado. Algunos se habían ido a San Sebastián. Dicen que el sargento le dijo...

–También arriba debe de haber algunos.

Allá va Cendoya y... en los montones de hierba metía el sable, y también las bayonetas.

–¡Ay, ay, ay!

–¡Ven! ¡Ven!

El tolosano Pitax y no sólo Pitax. Dándoles azotes en la espalda los llevó a Choritoquieta.



## Menta-zikin

1934. Jorraillaren 18-an. Etxera datorkit Anastasi, Jose Antonioren emaztea. Senarra gaizki dagola ta. Ara noa.

19. Menta-zikiñara J. L. Azpiazu-rekin karlisten bateriak nun ziran<sup>1</sup>...

20. J. A.-rengana. Gaizki arkitu nun; esan niyon orratik:

–Atzo Menta-zikiñen izan nintzan.

–Bai?

Ta:

–Bai.

–An egon nintzan zentinelan...

Nik:

–Bateria etxe ondoan al zegon?

–Ez; etxe ondoan metak eta alderako.

21. J. A.-ok elizakoak, berak eskatuta. Kaputxino Nagusiak aitortu.

1934-garreneko † Jorraillaren 27-an. G. B.

1934. El 18 de abril me viene a casa Anastasia, la esposa de José Antonio. Que el marido se encuentra mal. Allá voy.

19. A Menta-zikin con J. L. Azpiazu, a ver dónde estaban las baterías carlistas<sup>1</sup>.

20: A casa de José Antonio. Lo encontré mal. Así y todo le dije:

–Ayer estuve en Menta-zikin.

–¿Sí?

Y:

---

<sup>1</sup> Azken karlista gerratean Donostia bonbardeatu zuten kañoiak. Oiek botatako granada batek zauritu zuan Bilintx donostiar bertsolaria, eta eriotza ortik etorriko zitzaion. (Argitatzailaren oarra).

<sup>1</sup> La batería carlista que bombardeó San Sebastián en la última guerra carlista. Una de las granadas lanzada por ella hirió al poeta donostiarra Bilintx, causándole heridas de las que murió. (Nota del editor).

–Sí.

–Allí estuve de centinela....

Yo:

–¿La batería estaba junto a la casa?

–No; junto a la casa los almiares, y al lado.

21: José Antonio (recibe) los últimos sacramentos a petición propia. Le confiesa el Superior de los capuchinos.

† el 27 de abril de 1934. (Q. e. p. d.)

\* \* \*

Alkoleako –gaur Martín Santos klinika– aldapa jetxi ta, zubian sartu bearrean, ezkerretara, zubiaren eta ibaiaren ixkiñan, an dago Aztiñenea baserria. Ura ez da asko aldatu. Uraren ertz-ertzean dago, eta batez ere marea gora danean, ibaia dauka ispi-llutzat.

Bertan bizi dira Jose Antonioren lengusu bat, Pedro Arteaga Galain, 84 urte, ta illoba, Inazio San Sebastian Arteaga (61 urte). Bi jaun auei zor dizkiegu orain emen emango ditugun argibideak.

Donostiako baserririk zaarrenak onako auek izango omen dira: Manteo, Okendoren jaiotetxea, Baratzategi, Tuniz eta Aztiñenea. Aztiñeneak ba omen du beste aspaldiko izen bat: Zubimuxu.

Lengo zarrak ziotenez, toki ontan lendabizi egurrezko zubi bat izan omen zan; gero arrizkoa egin zuten estrata edo galtzara igarotzeko. Kamioa egin zutenean, zubi zarraren gañeko aldea zabaldu, ta estrataren tokian kamioa jarri zuten. Arkuak lengoak omen dira oraindik.

Bi anai ibili ziran karlistekin: Jose Antonio ta Frantzisko. Bi arreba, Dolores ta Manuela, oiñez joaten oi ziran Azpeitira-ta, anaiei arropa garbia eramatera. Baita Arrixulegira ere.

Bein, Manuela ibaian arropa garbitzen ari zala, San Markostik botatako granada bat aldamenean lertu zitzaion.

Liberalak Jose Antonioren aita (Jose) ta arreba (Manuela) Donostiko Gaztelura eraman ta an eduki zituzten illabete pare bat.

Kartzelatik irten ta Goierrira joan ziran, Legorretako Iparagirre baserrira. An jaioa zan Jose Antonioren aita.

Gerra bukatuta, Jose Antonio Galiziara joan zan jardinero ikastera. An urte pare bat egin zuan.

Gero Donostiako jardineroen kapataza izan zan. Gipuzkoako Plazan ta Alderdi-Eder-en-ta jarduten ziran lanean. Illoba (Inazio) maiz joaten zitzaion bazkaria eramatera.

Bere kontu ere artzen zuan beste lore-toki askoren lana.

Emazte artu zuena, Anastasia, Mondragoiko alaba zan. Seme-alabarekin alargun gelditu ta Donostira iñude etorri zan. Alkar ezagutu ta ezkondu ziran, baiña etzuten familirik izan.

Jose Antonio langille purrukatua zan. Etzuan batere gastorik. Tabernara ere etzan joaten. Diru puska bat egin zuan azkeanean. Etxe txiki polit bat egin zuan Aztiñenearen ondoan, baiña ibaiatz eta zubiaz beste aldean. *Anastasia-enea* jarri zion izena eta oraindik ere alaxe du.

Etxe onen ondoan baratza, dana lore-landarez betea. Arretaz kontu egiten zien. Esate baterako, gerratik etorri ta lore tar-tean igaro zuan bere denbora guzia.

Gizon liraiña omen zan, ondo egiña.

Aita Apalategi maiz etorri omen zitzaion.

Biotzetik il zan, batere miñik gabe.

(1961 urtean bildutako argibideak).

Si después de bajar la cuesta de Alcolea (hoy de la Clínica de Martín Santos), en vez de entrar al puente, tomamos a mano izquierda, entre el puente y el río, allí está el caserío Aztiñenea. Éste no ha cambiado mucho. Está en el mismo borde del agua y, sobre todo en las mareas altas, se refleja en el río como en un espejo.

Allí viven un primo de José Antonio, Pedro Arteaga Galáin, 84 años, y un sobrino, Ignacio San Sebastián Arteaga, 61 años. Debemos a estos dos señores las datos que ahora daremos.

Los caseríos más antiguos de San Sebastián serán Manteo, casa natal de Oquendo, Baratzategui, Tuniz y Aztiñenea. Aztiñenea tiene otro nombre antiguo: Zubi-muxu.

Según decían los viejos de antes, en este sitio hubo primero un puente de madera, y después hicieron otro de piedra para que pasara la calzada. Al hacer la carretera, ensancharon la parte de arriba del viejo puente, y en el lugar de la calzada pusieron la carretera. Los arcos son todavía los mismos.

Anduvieron con los carlistas dos hermanos: José Antonio y Francisco.

Dos hermanas, Dolores y Manuela, solían ir andando hasta Azpeitia y demás, a llevar a los hermanos ropa limpia. Y también hasta Arichulegui.

Una vez, estando Manuela lavando ropa en el río, explotó a su lado una granada lanzada desde San Marcos.

Los liberales llevaron al Castillo de San Sebastián al padre, José, y a la hermana, Manuela, de José Antonio, y allí los retuvieron durante un par de meses.

Al salir de la cárcel, marcharon al Goyerri (zona alta de Guipúzcoa), al caserío Iparraguirre, de Legorreta. Allí había nacido el padre de José Antonio.

Terminada la guerra, José Antonio se fue a Galicia, a aprender jardinería. Pasó allí un par de años.

Después fue capataz de los jardineros del Municipio de San Sebastián. Solían trabajar en la Plaza de Guipúzcoa, en Alderdi-Eder y demás. Su sobrino Ignacio solía llevarle muchas veces la comida.

Tomaba también por su cuenta el trabajo de otros muchos jardines.

Se casó con Anastasia, natural de Mondragón. Ella había quedado viuda con un hijo y una hija y había venido a San Sebastián de nodriza. Se conocieron y se casaron, pero no tuvieron familia.

José Antonio era un gran trabajador. No tenía ningún gasto. No iba ni a la taberna. Logró, al fin, hacer un poco de dinero. Levantó una pequeña y bonita casa cerca de Aztiñenea, pero al otro lado del río y del puente. Le puso de nombre Anastasi-enea, que todavía conserva.

La huerta de junto a la casa la tenía siempre llena de plantas y flores. Se podría decir que, una vez vuelto de la guerra, pasó entre flores el resto de su vida.

Era un hombre esbelto, bien formado.

El padre Apalategui le visitaba con frecuencia.

Murió del corazón, sin ningún sufrimiento.

(Datos recogidos en 1961).

# D. Pedro Belderrain

Oiartzungo apaiza, D. Pedro zarra.

1862-garrenean jaioa. Gudatean gaztetxea zan, bañan ger-tatutakoak ederki dakizki.

1933, Maiatzaren 4-an.



Udaletxean mikeleteak, gero karabiñero ta soldadu xarrak. Elizaraño joateko enparantzan iriki zuten lurpeko bidea.

1/ Santa Kruz sartu zanean, etxe ontan izan zan Antxuxa, ta aurreko (Udaletxe) leioan sartu ere sugarri botilla.

2/ Udaletxe aldamenetako 1 ta 2 Santa Kruzek erre izan balitu, mikeleteak galduak izango ziran.

3/ Emen jarri zun Santa Kruzek kañoitxoa. Gero mendi gorago eraman. Biyak alperrik.

4/ Pared con impactos de las balas liberales.

Etxe abetatik egiten zuten su karlistak, leioetan koltxoiak jarrita.

Lenengotik liberalak bere etxetzat Udaletxea artu zuten. Ogei ta amarren bat boluntario, Indart eskribaua nagusi ta berrogeiren bat mikelete.

Kapitana Fernandez (gallegoa edo) zuten. Gizon arro zakarra. Errikoak geienak karlistak bait ziran ta, ez ziyen Fernandezek pakean uzten. Tabernan-ta beti irainka. Askok alde egin zuten karlistetara Fez-en zirikaldiagatik. Ezin ikusi zuten.

Erriz alde, Altzibar ta Iturriotzen, nik dakit zenbat ixillu izan ziran. Batean, karabiñero (amar edo) Altzibarrera abiatu ta arrapatu. Bestean, mendian burruka eginta beltzak errira zetoztenean, atzetik karlistak tiroka ta zirikaka ta orrela.

Sacerdote de Oyarzun, Don Pedro el viejo.

Cuando la guerra era jovencito, pero recuerda muy bien lo sucedido.

1933, 4 de Mayo.

En el ayuntamiento (estaban) los miqueletes; luego los carabineros y soldados. Para ir a la iglesia, abrieron en la plaza un camino subterráneo.

1/ Cuando entró Santa Cruz, en esta casa estuvo Anchusa y por la ventana de delante del Ayuntamiento metió una botella de líquido inflamable.

2/ Si Santa Cruz hubiera quemado las casas 1 y 2 de al lado del Ayuntamiento, los miqueletes se hubieran visto perdidos.

3/ Aquí colocó Santa Cruz el cañoncito. Luego lo llevó más arriba en el monte. Todo en vano.

4/ Pared con impactos de las balas liberales.

Desde estas casas hacían fuego los carlistas, habiendo puesto colchones en las ventanas.

Al principio, los liberales utilizaron como cuartel el Ayuntamiento. Unos treinta voluntarios, con el escribano Indart como jefe, y unos cuarenta miqueletes.

Tenían como capitán a un tal Fernández, quizás gallego. Un hombre arrogante y áspero. Como los del pueblo eran en su mayor parte carlistas, no les dejaba en paz. En la taberna y demás sitios, siempre estaba insultándoles. Muchos se pasaron a los carlistas debido a las invectivas de Fernández. No le podían ver.

Yo sé cuántos zafarranchos hubo cerca del pueblo, en Alzibar e Iturriotz. Una vez, unos diez carabineros salieron para Alzibar y los apresaron. Otra vez, cuando los liberales volvían al pueblo después de alguna refriega en el monte, los carlistas les seguían disparándoles e incordiándoles.

## **Santa Kruz gau batean Cierta noche Santa Cruz**

**Maiatzan?**

Bere partida bete-betean zuenean sartu zan. Bost eun mutil izango zitun. Oiartzuarrak asko. Mikeleteak udaletxean zirala, etxe guztiak artu zitun. Kañoitxoa ere jarri ta ekin, bañan kalterik etsai ei. Mikeleteak ere su galanki leioetatik. Mutil bat il zioten kañoi ondoan. Gero mendi gora jaso zun. Antxusak bada-kizu iya su eman ziola Udaletxeari. Larri ibilli ziran itzaltzeko.

–Fernández... matar! –deadar egiten zioten karlistak–. Bizirik erre!

Ta orrelakoak, berak barrendik entzuten zitula.

Norbaitek esan zion apaizari udal ezker-eskuiko etxeak erretzeko ta barrengoak galduak zirala. Bañan etzun nai izan, Goizean alde ta len bezela. Santa Kruz alde egin da bereala, bota zituzten liberalak ezker eskuiko bi etxe aiek.

¿En Mayo?

Cuando hubo completado su partida, entró. Tendría unos quinientos muchachos. Muchos de ellos naturales de Oyarzun. Estando los miqueletes en el ayuntamiento, se apoderó de todas las casas. Colocó también el cañoncito y empezó (a disparar), pero sin causar daño al adversario. También los miqueletes hacían un nutrido fuego desde las ventanas. Le mataron un muchacho junto al cañón. Luego se lo llevó monte arriba. Ya sabe usted que Anchusa casi le pegó fuego al ayuntamiento. Anduvieron apurados para apagarlo.

—¡Matad a Fernández! —gritaban los carlistas—. ¡Quemadlo vivo! —y cosas por el estilo, que él oía desde dentro.

Alguien le dijo al cura que pegara fuego a las casas a mano izquierda y derecha del ayuntamiento y que los de dentro estarían perdidos. Pero no lo quiso.

A la mañana se retiraron y todo quedó como antes. Al poco de largarse Santa Cruz, los liberales derribaron aquellas dos casas de derecha e izquierda.

## Setiyoa

## El sitio

Udaran, Santiyo inguruak ziran.

Karlotarrak, Ondarrabiko ondartzan pusill pilla galanta legorreratu ta bear bezelako batallioiak egin zituzten.

Santa Kruzen mutillekin egin zan lendabizikoa. Aizpurua buru.

Abek inguratu zuten Oiartzun. Arregiko Beltxa Iturriotz gañean. Antxusa Altzibarren. Besteak Urkaben ta abar.

Mikeleteak, Udaletxea naiko etzutela, eliza artu zuten. Batetik bestera joateko, enparantzan lubakia egin bear izan zuten.

Karlistak, berriz, erri gañeko menditik tiro egiten zieten; ta berak, berriz, kanpantorretik inguruan ikusten zuten danai.

Amabostean bein ekartzen zizkieten Errenteritik errazioak, jan ta edan gaiak. Ortarako, Urkabe gaña tropaz artzen zuten, ta orrela errian gurdiak sartu.

Mikelete ta boluntarioak alde egin ta soldadu xar ta karabiñeroak etorri ziran.

Iya zazpi illabete.

Tolosa utzi zutenean, Epaillaren 1-an, askatu zuten ere Oartzun.

Era en verano, por los días de Santiago.

Los carlistas desembarcaron en la playa de Fuenterrabía un gran alijo de fusiles y formaron batallones como es debido.

Con los muchachos de Santa Cruz se formó el primero. Como jefe, Aizpúrua.

Estos cercaron Oyarzun. El "Negro" de Arregui, encima de Iturrioz. Antxusa, en Alzibar. Los demás en Urkabe, etc.

Los miqueletes, como si con el ayuntamiento no tuvieran bastante, ocuparon la iglesia. Para pasar del uno a la otra, tuvieron que abrir una zanja en la plaza.

Los carlistas, entre tanto, les disparaban desde el monte que está encima del pueblo; y ellos, a su vez, desde el campanario, a todo el que veían en los alrededores.

Cada quince días, les traían desde Rentería las raciones, los comestibles. Para eso, ocupaban con tropa toda la cresta de Urkabe, y así entraban en el pueblo los carros.

Los miqueletes y voluntarios se retiraron y vinieron soldados y carabineros.

Casi siete meses.

Cuando abandonaron Tolosa, el 1º de Marzo, evacuaron también Oyarzun.


## San Martiñetan (Nv. 1874)      En San Martín

Karlistak Irun artu naiean,

Asalto egin bear zutela. Zein batallatik ekin bear zuten izen-datu ta Txakurtxulo Irungo katean (Bentak bañon Irun alderago). Azkenean uts.


Karlista guda-nagusi D. Hermenejildo Zeballos; karlista oso leiala, bañon guda-agintari buru gutxikoa. Ez zula bear zanean agindu, Ernanikoan bezela, ta ez dakit nik zer. Ez zuten karlistak gauz onik egin. Asaltorik ez. Mutillak amorro biziyan, traizio zala ta...

Orrela, badator Donosti aldetik etsai salla izugarria.




Gobernuak ifar alde abetan zun guda nagusi goenekoa zan. Ebroko alderdian zebillen. Irungo gertaerak jakin zitunean, ango tropa sallak bildu, Santanderrera trenez ta emendik Donostira itxasoz.

Irun aldera jotzeko iru zati egin zitun bere gudari sallak.



Salla bat ezkerretik, Jaizkibel menditik. Bestea eskuitik, Txoritokieta ta S. Markos (Zamalvide, Oiartzun). Besteak erditik.



Zeballos gizagajoa an zegon Astigarragako bentetan zer egin ez zekiela... Ez bear bezela, ez dem... agindu. Liberalak aisa Irunen sartu.

Karlista batalloi nagusi bakoitzak al zuen aldera jo zun. Geienak Bera ta Lesakara mendiz. Txakurtxulo Oiartzunara. Aren urren, Errege bera. Oiartzungo enparantzan 3-garrena formatu ta:

–Biba Erregea!

–Biba! –erantzun mutillak.

Bañan norbaitek deadar egin zun:

–¡Mueran los ojalateros<sup>1</sup>!

Zeballosengatik zioten batez ere.

Zamalbiden zegon 4-garrena (edo 5<sup>a</sup>?), naparra. Ez zekiten nun ziran, ta ezta San Markos bera zetozkietela etsaiak. Alako batean, mikeleteak beren aurrean.

–Zeintzuk dira oiek? ¿Quiénes son esos?

–Miqueletes.

–¿Qué es eso de miqueletes?

Ez bait zuten mikeleteen berririk.

–Peseteros<sup>2</sup> –esan zun norbaitek.

–¿Peseteros? ¡A ellos!

Baionetak pusill muturretan jarri ta ekin diete. Mikeleteak atzera. Bañan beren bizkar zetorren tropa salla aundia ta aiekin bat egin ziran.

Ori ikusterakoan, naparrak asarre egin ziran. Oso gero. Bat-batean etsaiak gañera etorri zitzaizkiela, ezer jakin gabe ta... Amorro-amorroz bide aurrera jo ta Andoaiñen gertatu ziran.

Don Karlos Lekoene baserrira lotara. Txakurtxulok konpañi bi eman zizkion. Urrengo goizean mendi gora abiatu ta zaldia lertu omen zun.

---

<sup>1</sup> Se les llamaba ojalateros a los que sin exponerse a las balas, desde el séquito del rey o desde cualquier otro lugar seguro, no cesaban de decir: «Ojalá tomemos Bilbao! ¡Ojalá...!». (Nota del editor).

<sup>2</sup> Soldados liberales a los que se les pagaba una peseta diaria. (Nota del editor).

Txakurtxulo erre-errean zegon. San Markos artu? Kutarro ere artu? Andik Oiartzun aldera etorriko zirala edozeñek ikusten zun. Iñork agindu gabe, artzen du batalloia ta, pipa erreaz, etsaien bidera dioa. Munuaundin jarri (Munutxikin berriz Arregiko Beltxa). 6 konpañi ta mutil gutxikoak.

(Asieratik konpañi bakoitzak 100 mutil bazitun, bañan Somorrostrokoekin asko gutxitu ziran. Geroztik geitu zituzten; ala ere Txakurtxulok konpañi bakoitzean zenbat izango zitun? Irurogei bat mutil? Sei konpañiak ez beintzat 400 gizon).

Asi ziran surtan. Lenengotik il zanetako, Beltxa. Oiartzunara esku eskallera ekarri zuten.

Txakurtxulok bere aurrekoai bakarrik begiraten zion, ta ara nun mikelete salla, Olazabal nagusi zutela, Munuandi atzera joan dan ta bat-batean su egin ta Txakurtxulo bera jo. (Atzetik; naigabe aundi izan zun). Zauri orregatik il zan.

Mutillak, inguratuta zirala ikusi zutenean, danak alde. Orduan ta sasoi ederrean, Lekoenera Erregearekin jun ziran bi konpañi aiek etorri ta gogor egin zuten, ta baita etsaiak geratu erazi ere. Aiei eskerrak ez ziran mutil asko galdu.

Los carlistas querían tomar Irún.

Que se lanzarían al asalto. Determinaron qué batallón lo haría y (le tocó) al de Chacurchulo, (que estaba) en la Cadena de Irún, más cerca de esta población que las Ventas. Pero al final, nada.

El general en jefe carlista era D. Hermenegildo Cevallos, un carlista muy leal, pero jefe militar de poca cabeza. Que no dio la orden a su debido tiempo, lo mismo que en Hernani, o yo no sé qué. Los carlistas no hicieron nada de provecho. No se dio el asalto. Los chicos estaban enfurecidos: que era una traición...

Estando así, va acercándose desde San Sebastián un imponente cuerpo de ejército.

Era el general en jefe que tenía el Gobierno en el norte. Andaba en las cercanías del Ebro. Cuando se enteró de los

acontecimientos de Irún, reunió las tropas que tenía allí, (las llevó) a Santander en tren y de aquí a San Sebastián por mar.

Para marchar hacia Irún, distribuyó sus tropas en tres cuerpos.

Uno por la izquierda, por el monte Jaizquíbel. El otro, por Choritoquieta y San Marcos (Zamalbide, Oyarzun). El otro, por el centro.

El pobre Cevallos allí estaba, en la ventas de Astigarraga, sin saber qué hacer. No dio las órdenes como debía o a su (tiempo). Los liberales entraron con facilidad en Irún.

Los jefes de los batallones carlistas tomaron cada uno por donde pudo. La mayor parte, a Bera y a Lesaca por monte. Chacurchulo a Oyarzun. A seguido, el rey mismo. En la plaza de Oyarzun se formó el tercer batallón y:

–¡Viva el rey!

–¡Viva! –contestaron los chicos.

Pero alguien gritó:

–¡Mueran los ojalateros!

Lo decían, sobre todo, por Cevallos.

Estaba en Zamalbide el cuarto (¿o el quinto?) navarro. No sabían dónde se hallaban, ni que de San Marcos para abajo se les echaba encima el enemigo. En una de éstas, delante de ellos los miqueletes.

–¿Quiénes son esos?

–Los miqueletes.

–¿Qué es eso de miqueletes?

Es que no tenían ni noticia de los miqueletes.

–Peseteros –dijo alguien.

–¿Peseteros? ¡A ellos!

Calaron las bayonetas en la punta de los fusiles y les acometieron. Los miqueletes, para atrás. Pero a su espalda se acercaba un gran contingente de tropa y se unieron a ellos.

Al verlo, los navarros se enfurecieron. Pero muchísimo. Que de repente el enemigo se les echaba encima, sin saber

ellos nada... Siguieron enfurecidos camino adelante y se encontraron en Andoain.

Don Carlos fue al caserío Lekoene a dormir. Chacurchulo le dio dos compañías. Dicen que a la mañana siguiente tomó monte arriba y reventó el caballo.

Chacurchulo estaba muy quemado. ¿Que (los liberales) habían tomado San Marcos? ¿Que también habían tomado Kutarro? Que desde allí se lanzarían hacia Oyarzun lo veía cualquiera. Sin que se lo ordenara nadie, toma su batallón y, fumando su pipa, sale al encuentro del enemigo. Se sitúa en Munuaundi (en Munuchiki, en cambio, el Negro, de Arregui). Seis compañías y de pocos muchachos.

(Al principio, cada compañía contaba con cien muchachos, pero con lo de Somorrostro habían disminuido mucho. Más tarde cubrieron bajas: así y todo, ¿cuántos tendría Chacurchulo en cada compañía? ¿Unos sesenta muchachos? Las seis compañías no llegarían, al menos, a cuatrocientos hombres).

Se abrió fuego. Uno de los primeros que murió fue el Negro. Lo trajeron a Oyarzun en una escalera de mano.

Chacurchulo no miraba más que a los que tenía delante, y he aquí que un grupo de miqueletes, mandados por Olazabal, se cuela por detrás de Munuaundi, la emprenden de repente a tiros y alcanzan al mismo Chacurchulo. (Por la espalda; eso supuso para él un gran disgusto). De aquella herida murió.

Los chicos, cuando se vieron rodeados, echaron todos a correr. Entonces, tan oportunamente, llegaron las dos compañías que habían acompañado al rey a Lekoene, plantaron cara y le hicieron detenerse al enemigo. Gracias a ellas no se perdieron muchos chicos.

## **Karlistak Oiartzunen    Los carlistas en Oyarzun**

Urte t'erdi luzetxo (1 Mar. 74 a 15 Spt. 75) (amazazpi illabete t'erdi) izan ziran karlotarrak Oiartzunen jabe.

Geienezan 8-garrena egon zan. Bikuña Errezilgo sekretarioa nagusi. 4 konpañi bialtzen zitun Irun aldera, bi Errenteri gañera. Errian beste bi, gañera musika ta Plana Mayor.

Año y medio (1 Mar. 74 a 15 Spt. 75), diecisiete meses y medio, fueron los carlistas dueños de Oyarzun.

La mayor parte del tiempo estuvo el octavo (batallón). Como jefe, Bicuña, secretario de Régil. Enviaba cuatro compañías hacia Irún; dos, a encima de Rentería. En el pueblo, otras dos, más la música y la Plana Mayor.

## Txokoa

Ez ziran Oiartzungo gizon danak armetan jarriyak. Gazteak, batallioetan; ezkonduak, berriz, edo 9-garrenean (ezkon berriyak) edo terzioetan. Abek pusilla etxean, noiz deituko zieten zai, bolarako joateko. Bañan oraindik baziran beren etxeetan banaka batzuek (edo zarregiak edo seme bakarrak)... Abek mordoxka bat egin zuten. Orain estazioa dagon ortan egin oi zuten goardia. Txokoa nagusi.

Alako batean, Txokoa afari ederrean, jan ta edan ubari, gero lo, ta goizean liberalak, Urkabe bide zijoaztela, atxitu digute. Donostiko Gaztelura eraman zuten.

No todos los hombres de Oyarzun habían tomado las armas. Los jóvenes, en los batallones; los casados, en cambio, o en el noveno (los recién casados) o en los tercios. Estos (guardaban) el fusil en casa, esperando a que los llamaran, para marchar por una temporada. Pero en las casas había aún algunos otros, o demasiado viejos o hijos únicos... Estos formaron un contingente. Hacían guardia donde ahora está la estación. Jefe: Txokoa.

En una de éstas, Txokoa comió y bebió abundantemente en una buena cena, luego se durmió y a la mañana los liberales, que iban camino de Urkabe, lo hicieron prisionero. Lo llevaron al Castillo de San Sebastián.

# Ernani ta... Espartero Ernanira<sup>1</sup>

## Hernani y... Espartero a Hernani

---

Amaika burruka ta amaika odol-putzu ikusi ditu erri onek ta bere inguruko mendiak. Bai lenengo gudatean ta bai bigarreanean ere.

Lenbizikoaren asieran inguru abetan ondatu zuten Lardizabal. Gero karlisten mendean 1837 udara arte.

1837. Epailaren 16-an irabazi zuten karlotarrak Oriamendiko burruka ta uste zuten noski ez zirala liberalak sekula abiatuko Ernani aldera; bañan besterik gertatu zan. Lenago jakin zazu: Maiatzaren 20, Kaseda. Errege, iya 14.000 gizonekin, Madrillerontz. (Pirala: T. IV, pg. 51).

Orrekin gutxitu ziran emengo karlotarrak. Gipuzko bata-loiak emen geratu ziran, bañan gutxi izan, etsaiak (ingeles-ta) Donostian itxita edukitzeko ozta-ozta.

Maiatz asieran, Espartero itxasoz Bilbotik Donostira. Orain larriyak. ¡29 batallones y 3 escuadrones! Askotxo dituk. Gañera, emengo ingeles ta txapelgorriak. (Pirala: T. IV, pg. 39).

(Pirala: pg, 41). Zer ikusi bear ote diagu? Orrenbeste guda gizon Antigoatik Pasai bitartean. Karlotarrak, berriz, Igeldopetik Ondarrabirañoakoak gordetzeko, Probintziko batalloiak bakarrik. Ezin zediken.


Maiatzaren 14. Aurrera Espartero ta bereak! Goizeko labak ziran. Aietetik Martutenerako baztar guztiak beterik ekin gora.

Oraingo arrantzale “arrasteroak”, bi ontziren artean sare luzea artu ta aurrean arkitzen duten (guzia) arrapatzen dute. Alaxe, Oriamenditik Ametzagaña azpira, bost kilometro. Dana

---

<sup>1</sup> Atal ontan eta urrengoan esaten diranak, leen gerratekoak dira. (Argitatzailaren oarra).

<sup>1</sup> Quanto se dice en este capítulo y en el siguiente se refiere a la primera guerra. (Nota del editor).



gizonez bete-betean zijoazten liberalak. Agerre baserria centro de la línea.

Zortzi ta erdietan Oriamendi gañean ziran. Ernanira jetxi. Urnietan azkeneko burruka. Karlotarrak elizan ta plazan. Berriz atzera. Goiburua ta Ergoienen geratu, Andoain bañon lenago.

Espartero abetan zebilela, bazijoan Erregea Naparroatik Madril aldera. Esparterok, galeraztearren, emendik irten bear ta laxterka gero. Espartero, noizbait ere, Iruñan zan.



Muchas batallas y muchos charcos de sangre han visto este pueblo y los montes de su entorno. Tanto en la primera guerra como en la segunda.

Al comienzo de la primera en estos alrededores derrotaron a Lardizábal. Después (estuvo) en poder de los carlistas hasta el verano de 1837.

1837. El 16 de Marzo ganaron los carlistas la batalla de Oriamendi y creían, como es natural, que los liberales nunca más se dirigirían hacia Hernani. Pero sucedió muy al contrario. Has de saber que el 20 de Mayo, desde Cáteda, el rey se puso en camino hacia Madrid, con casi catorce mil hombres. (Pirala: T. IV, pg. 51).

Con eso disminuyó aquí el número de carlistas. Los batallones de Guipúzcoa se quedaron aquí, pero eran pocos; los justos para mantener encerrado en San Sebastián al enemigo, ingleses y demás.

A comienzos de Mayo, Espartero (se dirigió) por mar de Bilbao a San Sebastián. Entonces los apuros. ¡29 batallones y 3 escuadrones! Eran demasiados. Además, los ingleses que había aquí y los boinas rojas (miqueletes). (Pirala: T. IV, pg. 39).

(Pirala: pg. 41). ¿Qué vamos a ver? Tantos soldados desde el Antiguo hasta Pasajes. Los carlistas en cambio, sólo los batallones de la Provincia, para defender todas las posiciones entre el pie de Igueldo y Fuenterrabía. Era imposible.

14 de Mayo. ¡Adelante Espartero y los suyos! Eran las cuatro de la mañana. Subían para arriba llenando toda la zona entre Ayete y Martutene.

Los pescadores modernos, los arrasteros, extienden una larga red entre dos pesqueros y atrapan todo lo que encuentran delante. De esa manera, los cinco kilómetros que hay entre Oriamendi y la base de Ametzagaña. Avanzaban los liberales inundándolo todo de hombres. El caserío Aguerre (era) el centro de la línea.

A las ocho y media estaban en la cima de Oriamendi. Bajaron a Hernani. En Urnieta (tuvo lugar) la última pelea. Los carlistas, en la iglesia y en la plaza. Otra vez para atrás. Se detuvieron en Goiburu y Ergoyen, antes de Andoain.

Mientras Espartero se ocupaba en esto, el rey avanzaba de Navarra hacia Madrid. Para detenerle, Espartero tuvo que salir de aquí y de prisa, llegando por fin a Pamplona.

Los carlistas no tenían fuerza como para oponérsele de frente; pero por los flancos y por la espalda le pegaban unas acometidas terribles. Es que en la zona de Navarra hay unos bosques enormes.

Para cuando los liberales llegaron a Pamplona, el rey, de Huesca para adelante, andaba ya por Barbastro. Allí lograron los carlistas una gran victoria (2 Jn.).

Si Espartero hubiera sabido las intenciones de los carlistas, desde luego que no hubiera venido de Bilbao aquí; pero vino y, con su venida, les abrió a los carlistas la puerta hacia Aragón.

No había guipuzcoanos con el rey. Se quedaron todos aquí. Navarros sí que los había.

De jefe de las cuatro provincias quedó Uranga, azpeitiano. Su casa natal está encima de la estación de Loyola. Su nombre: Mayordomo.

En el verano marcharon dos batallones guipuzcoanos a Castilla con Zaratiegui.

# Zaratiegi

---

Karlistak guda-buru oso bikañak zituztela eta ez zan Zaratiegi motelenetakoa. Naparra zan, Oliteko semea. Zumalakarregiren adiskide aundia, Ormaiztegiko semearen sekretario, koronel mallakoa zala. Zumalak mutillak berotzeko idaztiak egi-ten zitunean, Zart-k irakurtzen zitun zaldi gañetik.

Gipuzkoan, Donosti inguruetako arazoetan, Oriamendi ta Ernaniko giñan artean, Zaratiegi Naparroako nagusi zan ta Solana-n zegon.

Karlos V Aragoi ta Kataluñan zebillela jakinta, liberal jeneral guztiak aren atzetik zebiltzela ikusirik, bildur zan orrenbesteren artean Erregea itoko ote zuten. Au galeraztera badijoa Urangarengana.

Altsatsun izan zuten berriketa, eta Kastillan karlistak sartzea on izango litzakela esan dio. Orrela, Erregeren gain zebiltzen liberal oste aietatik sallaren bat aldenduko zala.

Urangari ongi eman zion, ta batalloi mordoxka izendatu du Kastillarako lenbaitlen.

(Pirala: T. IV, pg. 105; 1º. y 7º. de Navarra; 4º. y 7º. de Guipúzcoa; 5º. de Castilla; escuadrones 2º. y 4º. de Navarra. Batalloi bakoitzak, bata bestez, 600 gizon ozta-ozta; 300 zaldizko).

Ta ara nun dijoazten gure mutillak Kastillako zelai zabale-tara, basorik gabeko lurrak ikustera. Milla ta berreunen bat ziran gipuzkoarrak, Iturbe azpeitiarra nagusi.

21. Ebro igarotzerakoan, burruka koskor bat izan zan Arabako Zambranen. Portugaltarrak aurkeztu zitzaizkien, bañan bai aguro uxatu ere.

23. Ebro igaro Irzioko uribian. Errioxan ziran. Beti ego aldera ibilketak.

Garillaren erdia zan ta alderdi aietan bero gogorrak izan oi dira; bañan ez zaie ardurarik; lenbiziko burrukan garai izan zirala ta pozik ziaztik.



Aurrera ta aurrera, etsairik arkitu gabe. Gezurra dirudi. Kastillako liberal jeneralak bazituzten Z-k añako indarrak, bañan naparrai bildur ziotela ematen zuten. Gañera Z-k bazekien ezkerrea ta eskuira kiñu egiten ta abekin etsaiak nora joko zuten ez jakiñik zekarzkien. Ala, liberalak kezketan zirala, karlistak aurrera ta arin gero.

Ebro igaro ta amabigarren egunean Segobi aurrean ziran. Olakorik! Ezin siñistu alakoa!

(Fuerzas de los sitiados: 1.000 nacionales, 250 de tropa, 200 cadetes y 7 cañones.

Detalles del asalto: tres divisiones: Iturbe, arrabal; Novoa, flanc.; Guip. frente; Navarr. reserva. Saqueo. Pirala: pág. 108-9).

Dagonillaren 4 zan.

Segobi, gure Donosti zarraren antzeko erria. Erri guztia gud-ormaz (murallas) inguratua. Barrenen baziran 1.500 armadun ta zazpi kañoi. Zaratiegik kañoirik batere ez ormak purrukatzeko. Ala ere, entzun zazu siñistu ezin leikeena.

Illaren 4-an karlistak Segobi aurrean, erri sendoari begira; ta egun artan bertan barrenen apaldu ta lo.

–Nola izan zeiken?

–Nola? Esku-eskallerak ormari ipiñi ta gora, mutillak! Ateai, berriz, su eman ta barrura sartu.

Urteak dira azpeitiar zar bati entun nizkiola orain esango dituanak.

Karlistak Segobi aurrean nola sartuko ote ziran begira zeudela, esan omen zion Iturbe azpeitiarrak Zaratiegiri:

–Badakit nik nola sartuko liraken gure mutillak.

–Bai?

Ta:

–Bai.

–Nola, bada?

–Nola? Sakeo libre eskeintzen bazaie.

Ez dakit Zaratiegik zer erantzun zun, bañan mutillen artean ots ori zabaldu ta bereala batzuek esku-eskallera gora, bestea ateai su ematera.

Ateak lurrera erori ziran, bañan surtan zirala. Gure mutillak illeti gañetik ziaztik. Orduan kartutxoak sabel aurrean eraman oi ziran. Su artu zezateken ta, orlakorik gertatu ez zedin, mutillak kapoteen aurreko muturrak jaso ta oiekin kartutxoak estaliz sartu ziran, sugar gañetik saltoka.

Errian arkitu ziranean, asi dira, bada, etxe batzuetan sartu ta jan ta eran lasai. Zaratiegik eliz aurre ta gaxo-etxe aurren guda-mutil zintzoak jarri ditu. Sakeoa galerazi nai zun. Guda-mutil bat ikusi du kalean etxeren batetik kendutako jantziak zeramazkiala; ekin dio ezpata joka ta mutil orren bizkarrean puska bi egin zun.

Urte aietan egin oi ziran Segobin diruak. “Casa de la Moneda” esaten zioten ola arri. An sartu dira guda-mutillak; arkitu dituzte txanpon egin berriak pilla. Badakizu, txanponak egin berrian urrezkoak ematen dute.

Urreak ziralakoa, Bergarar batek bete ditu morrala ta poltxikoak diru berriz. Uste zun noski bere bizi guztiko aberastu zala. Bañan bere lagunuen parrak, txanponak zirala igarri ziotenean.

–Bañan, mutil! Zer uste uken? Urre txikiak zirala? Bostna durokoak? A, gizagajoa! Eramaitzik, eramaitzik Bergarara! Baserri pare bat, bei guri pare ta guzti erosteko izango dek eta...

Segobian bada, ba, “Alcázar” dioten antziñako errege jau-regi sendo ederra. An sartu ziran “kadeteak” edo gudari-gaiak.

Abek ez bai zituzten ateak ain berealakoan iriki, ta bitarten Zaratiegik mutil zintzo pillak zabaldu zitun sakeoa gerazteko. Gero, ero xamar ibillitakoak erriz ate eraman ta naparrak, oraindik sartu gabeak, etorri erazi zitun.

Laxter Alkazar barrengoak ere beren buruak eman ta an irten ziran berreun gaztetxo aiek, danborra joaz, karlista mutil errenkada biren erditik.

Segobiatarrak oso karlista aldekoak ziran. Gazte asko izan ziran D. Karlosen alde gudari nai zutenak ta batalloi berria egin zan. An bertan artutako pusillak eman zizkien Zaratiegik.

Los carlistas tenían excelentes jefes militares, y Zaratiegui no era de los más torpes. Era navarro, hijo de Olite. Gran amigo de Zumalacárregui, secretario del hijo de Ormaiztegui, con la graduación de coronel. Cuando Zumalacárregui escribía arengas para enardecer a los muchachos, las leía Zaratiegui desde encima del caballo.

Mientras en Guipúzcoa estábamos ocupados con los acontecimientos del entorno de San Sebastián –Oriamendi y Hernani–, Zaratiegui tenía el mando sobre Navarra y estaba en la Solana.

Temía que, sabiendo que Carlos V andaba por Aragón y Cataluña, todos los generales liberales se echasen tras él y que entre tantos coparan al rey. Para impedirlo, marcha a donde Uranga.

Tuvieron su entrevista en Alsasua y le dijo que sería conveniente que los carlistas entraran en Castilla. De esa manera, alguna de aquellas masas que perseguían al rey se separaría.

